



ORIOKO TOKIKO AGENDA 21 **IRAUNKORTASUNERAKO UDAL PROZESUA**



DIAGNOSIA



2005eko maiatza



TOKIKO AGENDA 21. ORIO

UDALTALDE 21 UROLA KOSTA

UROLA KOSTAKO UDALTALDE21-EKO ESKUALDEKO BATZORDEA

PARTE HARTUTAKO UDALETXEAK

Igor Iturain Ibarguren. Aiako Alkatea

Jose Francisco Larrate Aguirre. Aizarnazabalko Alkatea

José Ezenarro González-Etxabarri. Getariako Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde. Orioko Alkatesa

Maite Etxaniz Balenciaga. Zarauzko Alkatesa

Gorka Unanue Zabala. Zestoako Alkatea

M^a Eugenia Arrizabalaga Olaizola. Zumaiaiko Alkatesa

UROLA KOSTAKO MANKOMUNITATEA

Javier Zarraonandia. Urola kostako Mankomunitateko Presidentea

Arantza Alberdi. Ingurugiro Sailaren Arduraduna.

Elixabete Zuriarrain. Udaltalde21-eko Koordinatzailea

IHOBE

Josu Sanz

Xabier González

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Aitor Lekuona

Xabier Zabala

DIAGNOSTIKOAK LANTZERA KOAN PARTE HARTU DUTEN LAGUNTZAILEAK

ARDURADUN TEKNIKOAK ETA UDAL POLITIKARIAK

Amaia Usandizaga. Teknikaria

Jose Carrera. Teknikaria

Pilar Azurmendi. Teknikaria

Idoia San Sebastian. Teknikaria

Javier Zabaleta. Teknikaria

Mikel Izquierdo. Teknikaria

M^a Luisa Urbieto. Teknikaria

Elena Legarra. Zinegotzia

Jesús Rodríguez. Zinegotzia

Eugenio Cotado. Zinegotzia

Eneko Olariaga. Zinegotzia

Noemí Ostolaza. Zinegotzia

GIZA ERAGILEEN ORDEZKARIAK

Garbiñe Manterola

Alazne Goenaga

Iñaki Zaldúa

Cristina Salsamendi

Marije Gz. De Txabarri

Maikar Iurramendi

Eneko Dorronsoro

Alazne Goenaga

Eneritz Odriozola

Imanol Manterola

Ricardo Uzkudun

Ane Miren Fernández

Ruth Etxeberria

Ainara Peña

Amaia Dorronsoro

Zigor Saizar

Leandro Azkue

Emeterio Iribar

Luis Azkue

Jose Luis San Sebastián

Joxe Mari Makazaga

Pello Orbañanos

Santos Carretero

AHOLKULARI TALDEA: ONDOAN S.COOP eta HAIZEA IKERKETA S.L.

Jon Zubiria. Koordinatzailea

Maidier Etxaide. Koordinatzailea

Ainhoa Zubillaga. Teknikaria

Arantza Zubizarreta. Teknikaria

Itoitz Arrue. Teknikaria

Juan Mari Apaolaza. Teknikaria

Laura Moreno. Teknikaria

Leire Egaña. Teknikaria

María Heras. Teknikaria

Junkal Fernandez. Teknikaria

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK	5
2. SARRERA.....	8
2.1. Metodología	8
2.2. Parte-hartzea eta komunikazioa	11
3. EREMU ESTRATEGIKOA ETA FUNTZIONALA	14
3.1. Tokiko Agenda 21 proiektuaren ezartze eremua	14
3.2. Udaltalde21 Urola Kosta udalerrien eremuan parte hartzen duten erakundeen egitura funtzionala.....	14
3.3. Tokiko Erakundeen organigrama funtzionala.....	15
4. EKONOMIA ETA GIZARTE ARLOA.....	18
4.1. Biztanleria:	18
4.1.1. Biztanleriaren bilakaera	18
4.1.2. Migrazioa.....	19
4.1.3. Biztanleriaren egitura.....	19
4.1.4. Biztanleriaren dentsitatea	20
4.1.5. Familia egitura eta tamaina	20
4.2. Jarduera ekonomikoa eta lana	20
4.2.1. Lana	21
4.2.2. Egitura ekonomikoa.....	23
4.3. Oinarrizko zerbitzuak eta bizi kalitatea	30
4.3.1. Etxebizitza	30
4.3.2. Hezkuntza	31
4.3.3. Osasuna.....	32
4.3.4. Gizarte zerbitzuak	33
4.3.5. Kultura.....	35
4.3.6. Kirola:.....	37
4.3.7. Euskara	38
4.3.8. Aisia:	39
4.3.9. Kontsumoa	40
4.3.10. Hiri birsorkuntza:	40
5. INGURUNE FISIKOA	39
5.1. Udalerriak.....	39
5.2. Arroak	39
5.3. Geomorfologia eta edafologia	39
5.4. Klimatologia	41

6. INGURUNE NATURALA	45
6.1. Landare komunitateak eta fauna:	45
6.1.1. Estai bioklimatikoak.	45
6.1.2. Landaredia Potentziala.....	46
6.1.3. Gaur egungo landaredia. Landare estalkiaren bilakaera azken hamarkadetan.	47
6.1.4. Mehatxupean dagoen Fauna.....	53
6.2. Naturgune eta elementu natural babeatuak.....	57
6.2.1. Eskualdean babestutako naturgune eta elementuen zerrenda.	57
6.2.2. Kontserbaziorako arrazoiak	57
6.2.3. Babestutako eremuen babes figura eta berorien garapen maila.....	62
6.3. Ondare Naturala eta Paisaia Kontserbatzeko Intereseko Eremuak	63
6.3.1. Natura Intereseko Guneak LAA- ren arabera.....	63
6.3.2. Garrantzi Geologikoa duten puntu eta areak	65
6.3.3. Beste interes gune batzuk	69
6.4 . Ingurune naturala biziberritzeko proiektuak	70
7. LURRALDE PLANEAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA.....	72
7.1. Lurralde eremua.....	72
7.1.1.Udalerriaren kokapena eta garrantzia Gipuzkoan.....	72
7.1.2. Udalerriaren kokapena eta garrantzia eskualdean.....	72
7.1.3. Herriguneak eta hauen arteko distantziak.....	73
7.2. Udalerrian Eragina Duen Antolamendu Orokorra	73
7.2.1. Lurralde Antolamenduaren Jarraibideak	73
7.2.2. Lurralde Zatikako Plana.....	74
7.2.3. Lurraldearen Arloko Planak (LAP)	78
7.3. Lurzoruaren Erabilera Eta Egungo Hirigintza Egitura	84
7.3.1. Berdegune eta aisialdirako guneen azalera totala.	84
7.3.2. Azalera urbanizagarria eta urbanizaezina azalera totalarekiko	84
7.4. Arau Subsidiarioen Analisia.....	85
7.4.1. Irizpide eta helburu orokorrak	86
7.4.2. Hazkunde aurreikuspenak.....	87
7.4.3. Lurzoru urbanizaezinaren tratamendua	89
7.4.4. Beste elementu esanguratsu batzuk.....	91
7.5. Ondare Historiko-Arkitetkoniko eta Arkeologikoa.....	91
7.5.1. Ondare Historiko-Arkitetkonikoa	91
7.5.2. Ondare Arkeologikoa.....	92
8. MUGIKORTASUNA, GARRAIOA ETA IRISGARRITASUNA.....	94

8.1. ERREPIDE SAREA.....	94
8.1.1. Egungo Errepide Sarea	94
8.1.2. Errepide Sarearen Dentsitatea	95
8.1.3. Errepide Sareko Proiektuak.....	95
8.2. Mugikortasunaren Ezaugarriak.....	97
8.2.1. Mugikortasunaren Arrazoiak.....	97
8.2.2. Parke Mugikorra	100
8.2.3. Zirkulazioaren Intentsitatea.....	103
8.2.4. Aparkalekuak.....	105
8.2.5. Garraiobideak.....	106
8.2.6. Oinezko eta Bizikleta bidezko Mugikortasuna.....	110
8.3. Irisgarritasuna	112
9. INGURUMEN BEKTOREAK	114
9.1 URA	114
9.1.1. Ur baliabideak:	114
9.1.2. Hornikuntza	116
9.1.3. Ur kontsumoak	118
9.1.4. Saneamendua eta arazketa:.....	118
9.1.5. Kontrolerako udal ekimenak	119
9.1.6. Aurkitutako gabeziak	119
9.2. ENERGIA.....	121
9.2.1. Udalerrriaren energia egitura. Energia iturriak	121
9.2.2. Energía kontsumoa	122
9.2.3. Energia berriztagarriak	124
9.2.4. Udalerrian hartutako edo aurreikusitako energia aurrezteko neurriak	124
9.3. Hondakinak	125
9.3.1. Gaikako bilketa.....	125
9.3.2. Tasak	131
9.4 Atmosfera eta akustika.....	133
9.4.1. Atmosfera.....	133
9.4.2. Zarata.....	138
10. JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA	141
10.1 Baso ustiapenak:.....	141
10.2. Nekazaritza eta abeltzaintza:	142
10.3. Arrantza:	143
10.4. Industria eta zerbitzuak:	144
10.5. Lurzoru poluituak:.....	146

11. ARRISKUEN ANALISIA ETA KUDEAKETA	149
11.1 Udal Larrialdi Plana	149
11.2 Udal azpiegitura eta instalakuntzen Larrialdi Planak.....	153
12. KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA.	
.....	154
12.1. Komunikabideak:.....	154
12.2. Komunikazioa udaletxetik.....	154
12.2.1. Komunikabide-kanalak	154
12.2.2. Udal-batzordeak	155
12.3. Heziketa jarduerak eta udalak edo udalaz gaindiko erakundeek sustaturiko kanpainak	156
12.4. Tokiko elkarte sarea eta parte-hartze modua	156
12.4.1. Beste parte-hartze moduak: erlijiozkoa, auzolanak, etab.	157
13. INGURUMENAREN UDAL-KUDEAKETA	159
13.1. Udalaz gaindiko erakundeen kudeaketa eta koordinazioa	159
13.2. Arloen arteko barne-komunikazio eta koordinazioa	159
13.3. Ingurumen-kudeaketarekin erlazionaturiko enpresa eta erakundeak	159
13.4. Tokiko ingurumen-arautegia.....	159
13.5. Udal-aurrekontua	160
13.6. Ingurumen konpromisoa.....	161
I. ERANSIKINA:	163
DIAGNOSIAREN LABURPENA ETA ONDORIOAK.....	163
II. ERASKINA:.....	215
DIAGNOSIAREN ONDORIOAK ETA HELBURUEN PROPOSAMENA	215

1. AURREKARIAK

Gizadiak bere subsistentziarako edo garapenak sortzen dituen beharrak asetzeko produktuak erauzterakoan natura erabiltzeko duen modua, erabat lotuta dago gizadi jarduerak sistema naturalarekin duen harremanarekin. Giza jarduerak efektu eta aldaketak eragin ditu sistema naturaletan, zenbait positiboak, beste batzuk negatiboak, batzuk itzulgarriak eta itzulezinak besteak, agerikoak batzuetan, hautemateko zailak gehienetan, eta maiz arbuiagarriak, baino askotan katastrofikoak.

Gizarte sistemak betidanik erabili du sistema naturala, baliabide naturalak ustiatuz, edo inguru naturalak moldatzeko eta asimilatzeke duen gaitasuna aprobetxatuz. Erabilpen eskala da berria, baino baliabide naturalak geroz eta era intentsiboagoan ustiatzen baititu, eta sistema naturalen asimilazio eta erresilientzia gaitasunaren gainean presioa eragiten baitu.

Komunitate internazionalak ondorio sozioekonomikoak eta ingurumenaren narriadura aztertzeke deialdia egin zueneko lehen aldia 1972an izan zen. 113 nazioak parte hartu zuten Estokolmon Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Batzarrean.

Ondoren, 1987an, Nazio Batuen **Ingurumen eta Garapen Batzordeak**, garai hartan Gro Harlem Brundtland mahaiburu zelarik, *Gure etorkizun komuna* deritzon txostena aurkeztu zuen. Brundtland Txostena bezala ezagunagoa den aipaturiko txosten honetan, garapen iraunkorraren kontzeptua aurkeztu zuen eta honela definitu zuen *“orainaldiko beharrianak asetzen duen garapena, betiere hurrengo belaunaldiak euren asetzeko arriskuan jarri gabe”*

Tokiko iraunkortasunaren aldeko mugimendua 1992an Rio De Janeiroko Lurraren Goi-Bileran onarturiko iraunkortasuneranzko Ekintza Programa batetik sortzen da. Programa hau Agenda 21 izendatua izan zen eta 28.artikuluak aipamen berezia merezi du, non Tokiko Programa 21 edo Tokiko Agenda 21 burutzeko tokiko agintarien ardurak finkatzen diren. Iraunkortasuneranzko prozesu honetan tokiko agintariak ekimenetarako ardura eta gidaritza bere gain hartzea beharrezkoa dela adierazten da.

1994ean, Rioko Goi-bilerako eta Europar Batasuneko Ingurumen Programako mezua jasoz, tokiko ente ugari Aalborg-en (Danimarka) bildu ziren Europako Hiri Jasangarrien I. Konferentzia ospatzeko. Konferentzia honetan iraunkortasuneranzko Europako Hirien Agiria aurkeztu zen, Aalborg-eko Agiria bezala ezagunagoa dena. Garai hartan

laurogei udalerrik sinatu zuten agiria, iraunkortasunera bideratzeko tokiko prozesu partehartzaile bat hasteko borondatea hartuz: mundua gogoan jardun auzoan.

Orduz geroztik, herri eta hiri ugari atxikitu dira Aalborg-eko Agirira, gaur egun 2000 hiri izanik euren tokiko Agenda 21en elaborazio prozesua martxan jarri dutenak.

Hamar urte geroago, 2004ko Ekainean Aalborg+10 ospatu da, non iraunkortasunaren aldeko hamar urteetako tokiko ekintza errebisatzeko aukera eskaini den, Agenda edo Programatik Ekintzara igarotzeko helburu berriak finkatu eta Aalborg-eko Agiritik Aalborg-eko konpromisoak hartzera igaroz. Konpromiso hauen helburua Europa osoan hiri iraunkortasunaren aldeko egungo ahaleginak sendotzea, Tokiko Agenda 21 suspertzea eta tokiko zein iraunkortasun globalerako helburu, estrategia eta ekintza berrien definizioan laguntzea baizik ez da.

Euskal Herriari dagokionean, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorrak, ikuspuntu orokor batetik hiri gaietarako jarduketa guztietan udalerriek iraunkortasunean oinarrituriko estrategiak bere gain hartzearen garrantzia aitortzen du. Lege honek jopuntu gogoangarri bat suposatzen du, Euskal Autonomi Erkidegoko lurralde-eremu osoan garatutako ingurumen politika ororen helburu izan behar duen garapen iraunkorra finkatzen baitu du.

Legeak, Euskal Herriko ingurumen politika lau urterako Ingurumen Programa batean gauzatuko dela finkatu arren, beharrezkoa ere ikusten du ingurumen politikaren antolamendu egonkor eta iraunkor baten antolaketa sustatzea, inizatiba pribatua eta ekintza publikoa bermez segurtasunez eta eraginkortasunez hornituko duena.

Arrazoi hori dela eta Eusko Jaurlaritzak 2002-2006 Ingurumen Programa onartu zuen, eta ondoren epe luzeko ikuspegi estrategiko batean kokatu zuen (2002-2020), Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategia finkatuz.

Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiak bost jomuga finkatzen ditu:

- Aire, ur eta lurzoru garbi eta osasungarriak bermatzea
- Natur Baliabideak eta hondakinak erantzukizunez kudeatzea
- Natura eta Bioaniztasuna babestea
- Lurralde oreka eta mugikortasun orekatua lortzea ikuspegi bateratuaz
- Klima aldaketaren eragina mugatzea

EAEko estrategiak iraunkortasunerantz bideratzeko ezartzen dituen baldintzen artean, 2006rako 5.000 biztanletik gorako EAEko udalerri guztiek, bakarka zein eskualdeka, euren Tokiko Agenda 21 diseinatu izan dezatenaren konpromisoa dago.

2. SARRERA

Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia udalerriek Urola Kosta Mankomunitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia eta IHOBE S.A. Sozietate Publikoaren bitartez Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Departamentuarekin batera 2004ko maiatzean UDALTALDE 21 UROLA KOSTA eratzeke Hitzarmena sinatu zuten.

Lan talde honen helburua aipaturiko udalerri bakoitzean Tokiko Agenda 21 garatzea da, iraunkortasunerantz bidea hasteko helburuarekin. Iraunkortasun irizpideak eta Agenda 21en aplikatzen Zarautz izan da Urola-Kostako udalerri aurreratuena. Horrela, 2002an bertako Ekintza Plana onartu zen eta ordutik aipaturiko Planeko ekintzak ezartzen jardun da.

Udaltaldeko gainontzeko udalerriek 2004ko udan eman zituzten lehen pausoak Aalborg-ko Gutuna sinatuz. Epe honetan Diagnostika landu da, behin betiko dokumentu hau izango da helburuak definitzeko oinarria ondoren Ekintza Plana landu ahal izateko.

2.1. Metodología

Agenda 21 prozesu jarraia da, ez da berehalako (bat-bateko) produktu bat. Forma hartzeko eta emaitzak lortzeko denbora behar da. Zenbait fase bereizten dira elaborazioan eta martxan jartzean:

- ♣ Motibazioa
- ♣ Diagnostikoa
- ♣ Ekintza Plana
- ♣ Jarraipen Plana

Lehen faseko helburua prozesuan inplikaturik dauden eragileak motibatzea da eta horretarako bilera eta informazio-bilkurak egiten dira. Fase hau Aalborg-ko Gutuna sinatzen denean amaitzen da.

Udalek konpromisoak hartu ondoren udalerriaren Diagnostika osoaren burutze lana hasten da. Ingurumen eta sozioekonomia sektoreen analisiaren bitartez, alde batetik aspektu estruktural eta bestetik teknikari eta herritarren ekarpenekin batera,


diagnostiko bat egiten da, non egungo egoera eta dagoen problematika deskribatzen den, gabeziak, indarguneak eta ahuleziak.

Momentu honetan Orioko udalerria bigarren fasea amaitutzat eman du. Ondoko dokumentuak udalerriko Diagnosia jasotzen du, ondorengo atal edo gaien bidez:

- ♣ Ingurune ekonomiko eta soziala
- ♣ Ingurune Fisikoa
- ♣ Ingurune Naturala
- ♣ Lurralde antolamendua eta hiri plangintza
- ♣ Mugikortasuna eta garraioa
- ♣ Ingurumen sektoreak: ura, hondakinak, energia, kutsadura akustikoa, kutsadura atmosferikoa
- ♣ Jarduera ekonomikoen Ingurumen eragina
- ♣ Arriskuen analisia eta kudeaketa
- ♣ Komunikazioa, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea
- ♣ Udalerriko Ingurumen kudeaketa

Hurrengo pausoa aurretik buruturiko Diagnosia oinarritzat hartuz Orioko Ekintza Plana egitea izango da. Diagnostikoak helburu orokorrak edo lerro estrategikoak determinatzeko balioko du, eta baita helburu eta ekintza konketuagoak zehazteko ere. Azken hauek Ekintza Plana egituratuko dute.

Azkenik, Ekintza Planaren bilakaera ezagutzeko eta planteaturiko ekintzetan helburuak betetzen ez diren kasuetan aldaketak egiteko Jarraipen Plana diseinatuko. Honek adierazle serie baten ezarpena eskatzen du.



2.2. Parte-hartzea eta komunikazioa

Aalborg-ko gutunak herritarrek tokiko prozesuetan erabakiak hartzeko parte hartu ahal izatearen garrantzia azpimarratzen du. Zentzu honetan, Aalborg-ko Gutuna sinatu dutenak lan guztiak alderdi inplikatuaren arteko lankidetzan oinarritzea, herritar guztiei informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzea eta tokiko prozesuetako erabaki-hartzetan partikulariki edo erakunde baten ordezkapenean parte hartu ahal izateko ardura ukatea konprometitzen dira

Urola Kosta Udaltalde 21ean zenbait bitartekari erabili dira parte-hartzea sustatzeko:

- **Kontsultarako telefonoa**

Urola Kosta Mankomunitateak kontsultarako telefono bat (943 890045) martxan jarri du, bertan interesatuek Agenda 21en inguruan dituzten zalantzak argitzeko, edota euren proposamenak, iritzia eta kezak azaltzeko.

- **Foro birtuala**

Urola Kosta Mankomunitatearen web orrian parte hartze gune bilakatu nahi den foro birtuala martxan jarri da, nahi duenak bere iritzia eman

- **Mahai teknikoak**

Diagnostikoaren elaborazio prozesuan zehar Mahai Teknikoak deiturikoak bilarazi ziren, non teknikari eta iraunkortasun gaiaren inguruan adituek euren ikuspuntuak eman zituzten udalerraren egoerari dagokionez. Honetarako lau Mahai osatu ziren lanerako ondorengo gaiekin:

- Ekonomi jarduerak eta Ingurumen sektoreak
- Planeamendua eta Mugikortasuna
- Gizarte arloa
- Ekonomia

Azaroan zehar Diagnostikari ekarpenak egiteko bildu ziren mahaiak. Martxoan zehar berriro ere bildu ziren Ekintza Planaren oinarri izango diren helburuen finkapen

lanarekin hasteko. Bilera hauen azkeneko txanda nahi izan zuten herritar guztientzako ireki ziren.

Mahai hauek Ekintza Plana eta Jarraipen Plana burutzeko ere bilduko dira.

Planeamenduko Mahaitik eratorritako Mahai Berezi bat sortu da Oria Ibaiko Arraun eta Piragüismoko Pista Olinpikoaren Proiektua landuko duena.

- Inkestak

Diagnostikoa osatzeko 400 inkesta inguru egin ziren inplikaturako udalerrietan. Honela, ingurumen, ekonomia eta gizartearen alderdi nagusien inguruan herritarrek duten pertzepzioa determinatu ahal izan zen.

Diagnostikoaren dokumentua eta inkestaren emaitzak Udaletxean edo www.urldkosta.org web gunean kontsultatu daitezke.

Erabilitako inkestaren lagina Urola Kosta Udaltaldearen ingurune osorako izan da. Udalerrri bakoitzaren emaitzak nahi izango balira %95eko ziurtasun maila, udalerrri bakoitzean egindako inkesta kopurua handitu beharko litzateke

Inkestan jasotako emaitzen arabera, jende gaztea da Agenda 21en inguruan ezagutza handiagoa duena, 16-18 bitartekoak eta 19-24 bitartekoak ondoren. Bi adin tarte hauek elkartuz, 16-24 tarte, Agenda 21en ezagupena % 30-33 artean dago, gehienak ikasleak direlarik. Adin tarte helduagoetara jo hala Agenda 21aren ezagupena gutxitzen doala ikusten da.

Orioko kasuan 58 inkesta egin ziren.

- Parte-hartze Foroak

Herritarren ekarpenak jasotzeko eta Diagnostikoa osatzeko herritarrei zabaldutako Foro Ireki baterako deialdia egin zen, non bertaratutakoek euren iritziak eta kezak azaldu ahal izan zituzten. Tokiko Agenda 21en diseinua eta ezarpenaren prozesuko fase desberdinetan beste zenbait Foro antolatuko dira, momentu oro herritarrek euren ekarpenak egin ahal izateko.

Orain arte bi Foro egin dira, lehenengoa abenduaren 1ean izan zen, bertan herritarrek Diagnosiari eginiko ekarpenak jaso ziren. Ekarpen hauek dokumentu honetan jasotzen dira.

Diagnosi fasea amaitzeko eta Ekintza Planaren fasearen sarrera moduan apirilaren 21ean bigarren Foro bat egin zen, bertan Diagnostik eratorritako helburuen lehentasunak landu eta ekintzen lehenengo proposamen bat egin ziren.

Aipagarria da bi Foro hauetan oriotar askok hartu zutela parte.

3. EREMU ESTRATEGIKOA ETA FUNTZIONALA

Orioko Tokiko Agenda 21en diseinu eta ezarpen prozesua Udaltalde 21 Urola Kosta eremuan burutzen da.

Udaltalde 21 Urola Kosta osatzen duten udalerriak eremu funtzional eta konplexu batetan kokatzen dira eta eremu hau eskumen eta interbentzio esparru ezberdinak dituzten erakunde ezberdinez osaturik dago.

Horregatik nahiz eta proiektu honen helburua Udaltalde 21eko udalerri bakoitzak bere Ekintza Plana edukitzea izan, Tokiko Ekintza Planak egiterako garaian erakunde horiek lehendik garatzen ari diren plan, programa eta ekintzak ere kontutan hartu beharko dira.

Horrekin batera, erakunde bakoitzaren eskumenak noraino heltzen diren jakitea beharrezkoa izango da ekintza planeko ekintzak gauzatzerako garaian erakunde bakoitzak izango dituen erantzukizunak zehazteko.

Ondoren proiektuaren ezartze eremua zehaztu eta bertan parte hartzen duten erakundeen egitura funtzionala identifikatuko da.

3.1. Tokiko Agenda 21 proiektuaren ezartze eremua

Udaltalde 21 Urola Kosta ondorengo udalerriak osatzen dute: Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.

3.2. Udaltalde 21 Urola Kosta udalerrien eremuan parte hartzen duten erakundeen egitura funtzionala

Udaltalde 21 Urola Kostako eraketa Mankomunitatetik bultzatua izan eta bere koordinazioa erakunde horretatik eraman arren, Udaltaldeak Mankomunitatean parte hartzen ez duten herriak ere batzen ditu, Zestoa eta Aizarnazabal, hain zuzen ere. Herri hauek, Azpeitia, Azkoitia, Beizama, Bidegoian eta Errezil-ekin batera Urola Erdiko Mankomunitatea eratzen dute.

Urola Kostako Mankomunitatea Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia osatzen dute, eta herri hauei ondorengo zerbitzuak ematea du helburu:

- ♣ Suteen itzaltzea
- ♣ Sarbide profesionalerako tailerrak, eskola tailerrak e.a. garatzeko obren gauzapena eta zerbitzugintza.
- ♣ Hiri hondakinen tratamendu eta deseginketa.
- ♣ Giza ongizatea, kultura, euskara, e.a.-rrei buruzko zerbitzuak ematea gai hauei buruzko ikasketa prospektiboak barne.

Beste aldetik, Urola Erdiko Mankomunitateak, Zestoa eta Aizarnazabali hondakinak eta zaborrak desegiteko zerbitzua eskaintzen die.

Udalaldeko udalerri guztiek ondorengo udalez gaindiko erakundeetan parte hartzen dute:

- ♣ Gipuzkoako Ur Partzuergoa, uraren hornidura eta hondakin uraren saneamendu zerbitzuen eta azpiegituren beharrak aurrera eramateko helburuarekin.
- ♣ URKOME, Urola Kostako Mendi Nekazaritza Elkarte
- ♣ EUDEL, Euskal Udalerrien Elkarte.

Oriok udalaz gaindiko ondoko erakundeetan parte hartzen du:

- ♣ UEMA, Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea, euskararen erabilpena sustatzearren sortua
- ♣ UDALBILTZA
- ♣ Euskal Fondoa

3.3. Tokiko Erakundeen organigrama funtzionala.

Tokiko Agenda 21 prozesuak Udaletxe bakoitzaren funtzionamenduan eta kudeaketan iraunkortasun irizpideak sartzearen beharra ekartzen du, hauek direlako herritarrekiko hurbilen dauden antolakuntzazko eta erabakigarritzko izaera duten erakundeak.

Iraunkortasuna udalaren eguneroko kudeaketako alderdi guztiekin lotutako aldagaia dela azpimarratu behar da: gizarte-gaiak (oinarrizko beharrianak asetzea eta bizi-

kalitatea), ekonomia (udalerrri-eskualdearen ekonomi jardueraren banaketa eta horrek ingurumenean izan dezakeen eragina, langabezi tasak, e.a.) edo hirigintzako gaiak (lurzoruaren okupazioa, urbanizatu ezin den lurzoruaren eta inguruneko natur balioen kudeaketa e.a.) hain zuzen ere.

Tokiko Administrazioaren gaur egungo funtzionamendua konpartimendu independenteetan oinarritzen da, departamenduen arteko erlazioa eta komunikazioa eskasa izanik. Honek zenbait proiektuen ikuspegia zaildu egiten du, adibidez Tokiko Agenda 21-arena.

Tamaina handiagoa duten udalerriek Batzorde ezberdinduak dituzte eta hauetan era batera edo bestera ingurumena barneratzen da (Tokiko Agenda 21-aren antzeko ezaugarriak dituzten proiektuak erlazionatzen diren diziplina).

Orioko Udaletxearen Organigrama Funtzionala modu honetan banaturik dago:

UDALAREN OSOKO BILKURAREN OSAKETA:

Alkatesa

MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE (EAJ/PNV-EA)

Alkateordeak

ENEKO OLARIAGA ARRUTI (EAJ/PNV-EA)
M^a ELENALEGARRA ALFARO (EAJ/PNV-EA)
RAMON ETXEBERRIA ALDAZ (EAJ/PNV-EA)

Zinegotziak

EUGENIO COTADO ITURAIN (C. EAJ/PNV-EA)
NOEMI OSTOLAZA ARKAUZ (C. EAJ/PNV-EA)
ANDONI SARASUA OLIDEN (C. EAJ/PNV-EA)
M^a JOSE SAN SEBASTIAN ARANBURU (C. EAJ/PNV-EA)
MARTXIEL GENOVA SOLABERRIETA (C. EAJ/PNV-EA)
AURORA AZKUE MUJICA (C. EAJ/PNV-EA)
JESUS JOSE JUAN RODRIGUEZ POUSA (PSE-EE (PSOE))

Tokiko Gobernu Batzordea

MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE
ENEKO OLARIAGA ARRUTI
M^a ELENALEGARRA ALFARO
RAMON ETXEBERRIA ALDAZ

Informazio Batzordearen arduraduna

GIZARTE ONGIZATEA, LANA, EKONOMIA SUSTAPENA, TURISMOA ETA
MERKATARITZA: M^a Elena Legarra Alfaro
HIRIGINTZA, ZERBITZUAK ETA INGURUMENA: Eneko Olariaga Arruti
KIROLA, GAZTEDIA ETA JAIK: Eugenio Cotado Iturain
KULTURA, FORMAKUNTZA ETA EUSKARA: Noemi Ostolaza Arkauz
OBRAK, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA: Ramon Etxeberria Aldaz
OGASUNA ETA PERTSONALA: Andoni Sarasua Oliden

Idazkaria:

Juan Carrera Jauregui

Kontu-Hartzailea:

Juan Carrera Jauregui

4. EKONOMIA ETA GIZARTE ARLOA

4.1. Biztanleria:

Udalerri bateko biztanleek osatzen dute Tokiko Agenda 21en oinarri eragilea, eta hortaz, biztanleok dira garapen politika eta etorkizuneko estrategiei zentzua ematen dieten eragileak. Honela bada, eskualde bateko errealitatea analizatzeko biztanleria karakterizatzea abiapuntu egokitzat jotzen da, izan ere gainerako arloetan -jarduera ekonomikoak, eskualdeko eta udalerriko ingurumen egoera, zerbitzu publikoen eskaintza, etab.etan- modu zuzenean eragingo baitu.

4.1.1. Biztanleriaren bilakaera

Ondoko taulan ikus daitekeenez, Orioko biztanleriak gorakada arina jasan du 1998 eta 2003 urteen bitartean. Orokorrean gizonezkoak emakumezkoak baino ugariagoak dira herrian.

ORIO	1.998	1.999	2.000	2.001	2.002	2.003
Guztira	4.294	4.307	4.388	4.395	4.505	4.605
Gizonezkoak	2.169	2.177	2.221	2.212	2.265	2.322
Emakumezkoak	2.125	2.130	2.167	2.183	2.240	2.283

Iturria: EIN, Biztanleria 1998az geroztik

Orokorrean, Orioko jaiotze tasak igoera arina jasan du 1998 eta 2002 urteen bitartean, %10,01etik %14,33ra pasatuaz.

Ugalkortasun tasari dagokionean, 2001ean %32,2koa zen, EINeko datuen arabera. Urte berean Gipuzkoako ugalkortasun tasa %34,7koa zen.

Hilkortasun tasa, berriz, 1998an %8,9koa zen bitartean 2002an %10,6koa zen.

Zahartze tasa, hau da, 65 urtetik gorakoen portzentaia biztanleria totalarekiko, igo egin da 1998 eta 2001 urteen bitartean 0,077tik 0,142ra.

4.1.2. Migrazioa

EUSTATEk eskaintako datuak kontutan izanik (berrienak 2001ekoak), Orioko migrazio mugimenduak 94 pertsonako saldo positiboa ageri du: 183koa inmigrazioari dagokionean eta 89koa emigrazioari dagokionean.

Ondoko taulan etorkinen jatorria jasotzen da, Orioko 2004ko Udal erroldako datuen arabera:

Mexiko:2	Lituania: 3	Maroko: 22
Ekuador: 22	Frantzia: 4	Argelia: 2
Kolonbia: 4	Alemania: 3	Tunis: 2
Brasil: 10	Rumania: 5	Senegal: 16
Kuba: 4	Belgika: 2	
Txile: 8	Italia: 1	
Argentina: 2	Hungaria: 1	
Estatu Batuak: 2	Ukraina: 4	
Benezuela: 1	Polonia: 1	
Guaoko Dominikar Errepublika: 1	Errusia: 1	

Iturria: Orioko Udal errolda

4.1.3. Biztanleriaren egitura

EUSTATEko datuen arabera 2001ean Oriok 4.421 biztanle zituen, %49,98 gizonezkoak eta %50,02 emakumezkoak. Sexuen arteko erlazioa (gizonezkoak zati emakumezkoak) 1ekoa da, Urola Kostako Udalerri gehienetan bezala. Banaketa hau sexuen arteko orekaranzko joeraren adierazle da.

Biztanleria piramideari dagokionean, 2001ean Orion 19 urtez gorakoak 0-19 urte bitartekoak baino ugariagoak ziren. Erlazio hau Udalerriak azken 20 urteetan jasan duen zahartzearen adierazle da.

Veyret-Verner zahar eta gazteak erlazionatzen dituen zahardade erakuslearen arabera, Orioko biztanleriak zahartze biologikoaren ezaugarriak ageri ditu, zahar eta gazteen arteko zatidura %0,4 baino handiagoa baita.

4.1.4. Biztanleriaren dentsitatea.

Biztanleriaren dentsitateak (Km2ko biztanle kopurua), besteak beste, lurralde baten giza okupazio maila adierazten du.

EUSTATetik lortutako datuen arabera, 2001ean Orioko biztanleriaren batez besteko dentsitatea 451,1 biztanle/Km2koa zen, Gipuzkoako biztanle dentsitatea baino altuagoa (urte berean 340 biztanle/Km2koa zen). Ondoko taulan Orioko datuez gain eskualdeko gainontzeko herrietakoak, Gipuzkoakoak eta Euskadikoak jasotzen dira:

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Biztanle dentsitatea
Euskadi	2.082.578	1.017.883	1.064.704	287'9
Gipuzkoa	673.653	330.454	343.109	340'1
Aia	1.610	892	718	29'2
Aizarnazabal	531	289	242	81'7
Getaria	2.406	1.198	1.208	227
Orio	4.421	2.210	2.211	451'1
Zarautz	21.078	10.400	10.678	1.474'00
Zestoa	3.100	1.573	1.527	70'9
Zumaia	8.527	4.276	4.251	754'6

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitza errolda. 2001

4.1.5. Familia egitura eta tamaina

EUSTATEk 2001ean kaleratutako biztanleria eta etxebizitza erroldan jasotakoaren arabera, urte honetan Orion 1.508 familia zeuden, 2,8 pertsonako batez besteko tamainarekin (Gipuzkoako batez besteko familia tamaina, 2,72koa, gaindituz). Familia guztietatik 302 pertsona bakarrekoak ziren eta 62 konposatuak. Familiako kideen adinari dagokionean: %18,7 0-19 urte bitartekoak, %66,1 20-64 urte bitartekoak eta %15,2 65 urtetik gorakoak.

4.2. Jarduera ekonomikoa eta lana


Garapen Iraunkorraren printzipioek, tokian eta eskualde mailan, ekonomia sendoa, dibertsifikatua eta hazkunde kuantitatiboranzko joeraduna baino garapen kualitatiboranzko joeraduna defendatzen dute.

4.2.1. Lana

Biztanleria aktiboa eta biztanleria okupatua

Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) eta Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) erabilitako definizioaren arabera, Orioko biztanleak, 4.421 2001ean, jarraian adierazten den bezala banatzen dira euren jarduera ekonomikoaren arabera (2001):

- **Biztanleria ekonomikoki aktiboa**¹: 2.158 pertsona
- **Biztanleria ekonomikoki ez aktiboa**²: 2.263 pertsona



Iturria: bertan eginikoa EUSTATEKO datuetan oinarrituta (2001)


Biztanleria aktiboa, aurreko irudian ikus daitekeenaren arabera, biztanle okupatu eta langabetuez osatzen da. 2001eko datuen arabera:

- Biztanleria okupatuak, biztanleria aktiboaren %93a osatzen du. Langabezia tasa, berriz, %7 ingurukoa da.

Adinaren arabera, langabetu gehienak 25-34 urte bitartekoak dira. Langabetu kopuruak 2003ko bigarren hiruhilekoa eta 2004ko bigarren hiruhilekoa bitartean gora egin du.

¹ Biztanleria aktiboa: Ondasun eta zerbitzuak sortzeko lana egiten duten pertsona guztiak, nahiz langabezian egon arren lan bila dabiltzanak eta lan egiteko libre daudenak. Hortaz, biztanleria aktiboa pertsona okupatu eta langabetuez osatzen dute.

² Biztanleria ez-aktiboa: Aktiboak ez diren pertsonak; talde honen baitan etxeko lanak burutzen dituzten pertsonak, ikasleak, pentsiodunak, errentadunak eta ezinduek sartzen dira.




Iturria: bertan eginikoa EUSTATEko datuetan oinarrituta

Ondoko taulan Enpleguko Institutu Nazionaleko 2004ko abenduaren 31ko datuen arabera Orion enplegu bila dabilen pertsona kopurua jasotzen da:

	25-29	30-34	35-39	> 39 urte
Enplegu eskatzaileak	15	20	15	8

Iturria: INE

Langabetuen maila akademikoa kontutan hartuta, langabezia tasa altuenak eskola graduatua soilik duten pertsonen artean gertatzen dira. 2004ko bigarren hiruhilekoan eskola graduatua, lanbide heziketa eta goi mailako ikasketak dituzten langabetu kopurua jaitsi eta lehen mailako ikasketak, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergo bateratu balioanizduna eta erdi mailako ikasketak burutu dituztenena igo egin dira.



Iturria: bertan eginikoa EUSTATEko datuetan oinarrituta

Jarduera sektorearen arabera, ondoko taulan adierazten denez, zerbitzu eta industria sektorea dira langabetu gehien dituzten sektoreak, beti ere 2004ko abuzturako EINren (Enpleguko Institutu Nazionala) datuen arabera:

Guztira	SEKTOREAK				
	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Aurrez lanik egin gabeak
90	1	29	14	38	8

Iturria: EIN (Enplegurako Institutu Nazionala) :

Ondoko taulan langabetuen banaketa jasotzen da sexuaren arabera; 2004ko abenduko datuak dira:

2004-XII	Langabetuak	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
		Guztira	%	Guztira	%
Gipuzkoa	20.248	8.265	40,82	11.983	59,18
Urola Kosta	1.823	740	40,59	1.083	59,41
Orio	122	58	47,54	64	52,46

Iturria: EIN.

Taula honetan ikus daitekeenez, Orion langabezia dauden emakumeak gizonezkoak baino gehiago dira, eskualde zein probintzia mailan bezala.

Lan mundua Oriotik kanpo dago, oriotarrek lanera kanpora joan behar dutelarik.

Eratutako lanaren egonkortasuna edo ezegonkortasuna

Langabezia tasa aztertzeaz gain, garrantzitsua da eratatutako lanpostuen kalitatearen azterketan sakontzea.

4.2.2. Egitura ekonomikoa

Eskualdeko BPGaren eboluzioa eta EAErekiko alderaketa.

EUSTATEk eskaintako datuen arabera, 2000. urtean Orioko biztanleko BPG indizea (Barne Produktu Gordina) EAEkoa baino 50 puntu baxuagoa zen, Gipuzkoakoa baino 52 puntu baxuagoa eta eskualdekoa baino 55 puntu baxuagoa.

Jarraian 2000rako biztanleko BPGaren konparaketa egiten duen taula:

	Biztanleko BPG	Indizea
EAE	19.316	100
Gipuzkoa	19.691	102
Urola Kosta	20.243	105
Aia	26.401	137
Aizarnazabal	50.682	262
Getaria	24.611	127
Orio	9.619	50
Zarautz	15.331	79
Zestoa	18.1336	94
Zumaia	24.123	125

Iturria: EUSTAT.

EUSTATEko datuen arabera, 1997an Orioko Familia Errenta Gordina biztanleko indizea EAEko batez bestekoa baino 11 puntu baxuagoa zen, Gipuzkoakoa baino 13 puntu baxuagoa eta eskualdekoa baino 7 puntu baxuagoa.


	FEG biztanleko	Indizea
EAE	8.258	100
Gipuzkoa	8.399	102
Urola Kosta	7.913	96
Aia	7.053	85
Aizarnazabal	7.558	92
Getaria	7.073	86
Orio	7.374	89
Zarautz	8.141	99
Zestoa	7.613	92
Zumaia	7.946	96

Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familia-errentaren estatistika

Jarduera ekonomikoak

Lehen sektorea

Ondoko irudian baso aprobetxamenduen banaketa globala (Ha.) islatzen da:




Iturria: bertan eginikoa EUSTATEko datuetan oinarrituta

Zuhaitz espezieak analizatuz portzentaia altuena koniferoek osatzen dutela ikusten da, *Pinus radiata* landaketek hain zuzen.

Jarraian 1997 eta 2003 urteen artean Orion burututako baso pribatuetako mozketetan ateratako egur bolumenak eta ustiatutako azalerak adierazten dira.

	1997		1998		1999		2000		2003	
	Ha	m ³	Ha	m ³	Ha	m ³	Ha	m ³	Ha	m ³
Koniferoak	6	2.006	3	280	1,57	429	0,64	191,77	2	676,17
Hostozabalak	0	0	0	0	0	0	0,86	26,07	0	0
Guztira	6	2.006	3	280	1,57	429	1,50	217,84	2	676,17

Iturria: Bertan eginikoa GFAko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak emandako informazioan oinarrituta.



Datuok aztertuz epe honetan burututako baso mozketak batez ere koniferoen landaketetan egin direla ikus daiteke. 2000 urtean soilik moztu ziren 0,86 Ha. hostozabal (26,06 m³ egur).

Jarraian 1998 eta 2002 urteen artean burututako baso-berritzeen datuak ageri dira (Ha.), baso pribatuetan beti ere:

Basoberritutako Ha.	1998	1999	2000	2002
Koniferoak	3,4	1,25	0,54	1,86
Hostozabalak	0	0	0	0
Guztira	3,4	1,25	0,54	1,86

Iturria: Bertan eginikoa GFAko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak emandako informazioan oinarrituta.

Taula honetan ikus daitekeenez aipaturiko epean koniferoen baso-berritzeak egin dira soilik (baso pribatuak).

Eusko Jaurlaritzak 1999an burututako Nekazal Erroldan adierazten denez, Orion nekazaritza/abeltzaintza jardueretara bideratutako azalera totala 523 Ha.koa da; 68

ustiategi dira guztira, hauetako 39 abelazkuntza jardueradunak eta gainerakoak abelazkuntza jarduerarik gabeak. Esplotazio hauen gehiengoak jarduera partzialak dira, horietatik 6 bakarrik direlarik jarduera bakarrekoak.

Orioko abelburuak 1999an:

- | | |
|----------------------|--|
| - Behi azienda: 459 | - Hegaztiak (ostrukak izan ezik): 80.000 |
| - Ardi azienda: 752. | - Ostrukak: 0 |
| - Ahuntz azienda: 22 | - Untxi amak: 126 |
| - Zerri azienda: 2 | - Erlauntzak: 0 |
| - Zaldi azienda: 20 | |

Orio itsasoari lotutako herria izan arren gaur egun orain hamar urte baino bapore gutxiago dago herrian. Arrantza sektoreak nabarmen egin du behera.

Orioko itsasontziek antxoa, txitxarroa, berdela... harrapatzen dute otsaila eta ekaina bitartean. Uztaila eta abendua bitartean, berriz, hegialburra harrapatzen dute. Ibai-ahoan txipiroia, suge-arraina... arrantzatzen duten ontzi txiki ugari ere bada Orion. Neguan angulatan ibiltzen den ontzirik ere bada.

Bigarren sektorea

Urola Kostako Udaltaldea osatzen duten herrietan industria da ekonomiaren motore nagusia. Oriko enpresak, langile kopuru eta fakturazioaren arabera, ondokoak dira:

Izen soziala	Izen komertziala	Plantilla	Fakturazioa
Arin y Embil, S.R.C:		17	1.001-2.500
Arocena Mericaechevarria, Ramon M.	Nueva Cerámica Arocena	12	
Bodegas Errasti, S.L.		13	1.001-2.500
Construcciones Metálicas Arregui, S.A.	Arregui	120	1.001-2.500
Dhemen Desing, S.L.	Dhemen Desing	7	501-1.000
Talleres Arostegui, S.L.		10	<= 500
Talleres Protegidos Gureak, S.A.	Gureak	1.222	10.001-25.000
Ustaritz, S.L.		2	1.001-2.500

Iturria: Euskal Herriko enpresen Industria Katalogoa. Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.

Bestalde, aipatu beharrekoak dira udalerriko beste zenbait enpresa ere: Botaleku aroztegia, Orio Kontserbak SL, Muebles Leunda SL, Vinos Atxega eta abar.

Zerbitzu sektorea.

2003an jarduera adarraren arabera erregistratuta zeuden establezimenduak:

	Gipuzkoa	Udaltaldea	Orio
Kopurua	61.870	3.535	326
Enpleguak	271.258	13.551	744
Industria eta Energia	5.985	458	23
Eraikuntza	9.264	1.521	75
Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	25.705	1.496	139
Bankuak, Aseguruak eta Enpresa Zerbitzuak	11.261	540	38
Beste jarduera batzuk	9.652	520	50

Iturria: EUSTAT

Taula honetan ikus daitekeenez establezimendu gehienak merkataritza, ostalaritza eta garraio adarrekoak dira; jarraian eraikuntza sektorekoak.

Orioko merkataritza jarduerak 1998 eta 2002 urteen artean behera egin zuen arren 2002 eta 2004 urteen artean gora egin du MTBPBa (Merkataritza eta Turismoa Berrindartzeko Plan Berezia) erredaktatzearekin batera.

Orioko 2003ko Merkataritza eta Turismoa Berrindartzeko Plan Berezian adierazten denez, herrian azken hiru hamarkadetan eman den hirugarren sektorearen pixkanakako geratualdi eta beheraldia, besteak beste, ondoko arrazoiei zor zaie:

- ♣ A-8 Autobidearekiko lotura zuzenik ez izatea; hau dela eta herriguneak ez du lotura zuzenik komunikabide ardatz nagusiarekin.
- ♣ Herrigunea eta hondartzaren arteko distantzia esanguratsua; aipatu beharrekoa gaur egun bi guneok hurbiltze prozesuan direla Hondartza Proiektua dela medio. Turismo eta merkataritza eremuen arteko distantzia honek jarduerok kaltetzen ditu.

Orioko biztanleek euren merkataritzako gastuen %30a herritik kanpo burutzen dute (batez ere Urbil merkataritza gunea, Donostia eta Zarautzen). Ihes honen aurrean gastuen atzipen bat produzitzen da, galeren zati bat konpentsatuz. Orion egindako merkataritza-gastuaren jatorri nagusia Aiari dagokio.

Orion itsasotik gertu kokatzen den kanpaleku bat dago, lehen kategoriakoa, 700 pertsonentzako. Urtarrila, otsaila, azaroa eta abenduan itxita egoten da, martxoaren 1etik azaroaren 2ra irekita dagoelarik. Eskaintzen diren bisita gidatuen artean Orio ibaian zehar kanoa bidez buru daitezkeen jarduerak eta Aginaga sagardotegiko dastaketa azpimarra daitezke.

Orion, ondoko ostatu motak bereiz daitezke:

- Ostatuak
- Nekazal-turismoa
- San Martin Erromes Aterpetxea/Arteta Etxea (Santiago Bidea egiten ari diren erromesentzako bakarrik).

Gainera talasoterapia eskainiko duen hotel bat eraikitzen ari dira.

Berriki, Orioko turismo bulegoa Itourbask-en baitan sartu da. Itourbask Eusko Jaurlaritzako Turismo Departamentuak sustatutako Euskal Turismo Bulegoen Sarea da. Sare honen helburua turistentzako baliagarria izango den kalitatezko zerbitzu publiko bat lortzea da.


4.3. Oinarrizko zerbitzuak eta bizi kalitatea

4.3.1. Etxebizitza

Garapen iraunkorraren helburuetako bat, tokiko eremura aplikatzen denean, bertako biztanle guztientzat baldintza egokietan dagoen etxebizitza bat bermatzea da. Hala ere, asmo legitimo hau iraunkortasunarekin errespetuzkoak diren etxebizitza politiketan oinarritu behar da. Honen harira, jadanik eraikita dauden etxebizitzaren birgaitzea eta berrerabilpena sustatuko dituzten politikak gailendu behar dira, lurzoru birjinaren okupazioa medio hiri hazkundera bakarrik lortu nahi dutenen orde.

Ondoko grafikoan, EUSTATEko 1996ko datuen arabera, Udalerriko etxebizitza kopuru totala (1.617 guztira) eta etxebizitza motak jasotzen dira. Datuotatik etxebizitzaren gehiengoa okupatuta dagoela ondoriozta daiteke (lehen etxebizitza), etxebizitza hutsak 333 diren bitartean.

Orioko etxebizitza motak 1996



Udaletxeko datuen arabera m2ko prezioaren eboluzioa ondokoa izan da Orion:

Urtea	Prezioa/m ² (€)
1.992	1.322'23
1.999	1.502'53
2.001	1.803'04-2.103'54
2.004	3.606'07

Epe berean 535 etxebizitza eraiki dira (babes ofizialeko 72), biztanleriaren igoera 400 pertsonakoa izan delarik. Eskariaren gehiengoa 20-35 urte bitarteko gazteetan zentratzen da. Tarte horretan 1100 oriotar kokatzen dira gaur egun.

1993 eta 2003 bitartean amaitutako etxebizitza babestuen eboluzioa ondoko taulan jasotzen da:

		Orio	Urola Kosta
1.999	Guztira		52
	Babes Ofiziala		52
	Etxebizitza sozialak		-
2.000	Guztira	32	96
	Babes Ofiziala		32
	Etxebizitza sozialak	32	64
2.001	Guztira		-
	Babes Ofiziala		-
	Etxebizitza sozialak		-
2.002	Guztira		32
	Babes Ofiziala		32
	Etxebizitza sozialak		-
2.003	Guztira		30
	Babes Ofiziala		30
	Etxebizitza sozialak		-

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Babes ofizialeko etxebizitzaren Datu Basea.

Instalakuntza eta zerbitzu minimodun lehen etxebizitzaren portzentaia Gipuzkoako Lurralde Historikoko batez besteko portzentajeren antzekoa da. EUSTATEko 1996ko datuen arabera, lehen etxebizitzaren %100ak ur beroa du eta etxebizitzaren %16ak berokuntza sistema zentrala du. Udalerriko etxebizitzaren erosotasun indizea %60koa da, Gipuzkoako batez bestekoa %66,7koa den bitartean.

EUSTATEN arabera, etxebizitza batek konfort indize baxua duela kontsideratzen da berau 50 puntutaraino iristen ez denean, konfort indize ertaina, berriz, 50 eta 75 puntu bitartean kokatzen da, eta altua 75 puntutik gora. Balorazio hau kontutan izanik, eskualdeko Udalerrietako etxebizitzaren erosotasun indizea erdi mailakoa dela ondorioztatzen da.

4.3.2. Hezkuntza

Zenbait zerbitzu “unibertsalen” hornidura publikoa, hezkuntza barne delarik, ongizate estatuaren, eta ondorioz, iraunkortasunerantz bideratutako komunitatearen zutabeetako bat kontsideratzen da. Gainera, hezkuntza komunitate baten

aurrerapenaren oinarrietako bat da, ezagutzaren kapitala beronen ezaugarri nagusienetakoa izanik.

Jarraian Orioko ikastetxeak jasotzen dira:

- Orioko Ikastola: Gurasoek zuzendutako sozietate kooperatiboa. Irakasle talde egonkorra du. Haur Hezkuntzan 158 ikasle daude, Lehen Hezkuntzan 176 eta Derrigorrezko Hezkuntzan 138.
- Juan Zaragüeta Eskola Publikoa: Klaseak D ereduan ematen dituen eskola publikoa. Haur Hezkuntzan 42 ikasle eta Lehen Hezkuntzan 67 ikasle daude.
- Orioko Musika Eskola Publikoa: 262 ikasle ditu.

Udalerriko bi ikastetxeetako ikasleei jarraipena emateko Zarautzen bi ikastetxe daude:

- Oteiza Lizeoa (Ikastolako ikasleak batez ere)
- Lizardi Institutua (Zaragüetako ikasleak batez ere)

EUSTATEko datuen arabera, 2001ean Orion 10 urtez gorako 4.023 biztanle zeuden. Biztanleotatik 8 alfabetatu gabe zeuden eta 54k ez zuen ikasketarik. 2001ean 10 urtez gorakoen %46'68k Lehen Mailako Ikasketak eginda zituen, %15,64k Lanbide Heziketako Ikasketak, %21,15ek Bigarren Mailako Ikasketak, %6,07k Erdi Mailako Ikasketak, eta %8,92k Goi Mailako Ikasketak.

Hezkuntzan antzemandako eskasien artean Haur Eskola baten eza azpimarra daiteke. Dena den aurreikusita dago.

4.3.3. Osasuna

Garapen iraunkorraren ikuspuntutik osasuna garrantzitsua da, izan ere garapen iraunkorrek biztanleria osasuntsu batean oinarritu behar baitu. Agenda 21en harira, eskakizun honek, tokiko eta eskualde mailako osasun arreta egokia bermatzeko beharra inplikatzeko du. Hala ere, osasunaren erantzukizuna ez dago tradizionalki osasun publikoa zaindu izan duten profesionalen esku soilik; proiektugile, irakasle, enpresa zuzendari eta ingurune fisiko eta sozialean eragiten duten pertsona eta entitateek ere badute erantzukizunik.

Orioko Udaletxetik eskuratutako datuen arabera, Udalerrian estomatologo bat, odontologo bat eta podologo batek eskaintzen dute euren zerbitzua. Gau egun, bi fisioterapia zentro jarduera lizentzia lortu nahian ari dira.

Orion bi farmazia eta parafarmazia bat daude.

Bestalde, herrian eguneko zentro bat dago eta talasoterapia zerbitzua eskaintzen duen hotel batean lanak egiten ari dira.

4.3.4. Gizarte zerbitzuak

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zerbitzuak aldarrikatzen duenez:

“Gizarte moderno, justu eta demokratiko baten helburu nagusienetako bat hazkunde ekonomikoaren produktuak biztanle guztientzako aurrerapena eta bizi kalitatea berma dezala da”.

Udaletxeak eskainitako datuen arabera, Gizarte Ongizateko Udal Aurrekontua 267.080 €koa da, pertsonal gastuak barnean direlarik.

Jarraian, Orion ageri diren Gizarte Ongizateko arazoak aipatzen dira:

- Minusbaliotasuna: Minusbalia aitortudun 224 pertsona.
- Etorkinak: Orion, duela 20 urte etorritako etorkin familiak (batez ere marokoarrak) daude, guztiz integratuta ageri direlarik, sozialki nahiz lanari dagokionean. Gizarte Zerbitzuek familiokin modu puntualean lan egin izan dute. Bestalde, duela urte bat edo bi hasita, herrialde ezberdinetako etorkinak iritsi dira herrira, baina ezin da fenomeno honen balorazio errealik egin. Gizarte Zerbitzuen gaiak nolabaiteko kezka sortzen duela esan liteke. Fenomeno honen magnitudea udal zentsuan islatzea litekeena da.
- Droga menpekotasuna: Zaila da Udalerriko droga menpekotasun eta alkoholismo maila zenbatekotzea, arazook batzutan ez direlako aitortzen eta beste batzutan Gizarte Zerbitzuetatik zuzenean ez direlako tratatzen.
- Emakumeak: banaketa dela eta informazio eskaerak izan direneko zenbait kasu badira. Laguntza ekonomikoa behar duten familia-kargadun emakumeak GGD (Gizarteratzeko Gutxieneko Diru sarrera) edo GLLn (Gizarte Larrialdietarako Laguntzak) sartuta daude.

- Pasadizokoak: pasadizoko pertsona kopurua nahikoa handia da (800 pertsona urteko gutxi gorabehera), behar bada Donostiarekiko gertutasuna dela eta Orikoa delako gertuen dagoen tren geltokietako bat.
- GGD (Gizarteratzeko Gutxieneko Diru sarrera) jasotzen duten familiak: 14 2003an.
- GLL (Gizarte Larrialdietarako Laguntzak) jasotzen duten familiak: 17 2003an.

Adingabekoei eta gizarteratze arazoak dituztenei ere zerbitzuak eskaintzen zaizkie. Menpekotasun eta eskusio arazoak dira gehienak.

Bestalde, ikas zentroetan familia desegituratu kopuruaren hazkuntza igarri da.

Orioko Gizarte Zerbitzuek ondoko zerbitzuak eskaintzen dituzte:

- Eguneko Zentroa: 1'68 plaza 65 urtez gorako 100 biztanleko.
- Tutoretzako apartamentuak: 4 apartamentu eraikitzen ari dira, 8 plaza egongo direlarik. Honen arabera 1,12 plaza izango ira 65 urtez gaindiko 100 biztanleko.
- Egoitzak: Udalerrian ez dago egoitzarik baino probintziako egoitza ezberdinetan herriko 12 pertsona daude.
- Etxez-etxeko arreta: 3'79
- Tele-alarma: 1'40
- Familia harrera: Gaur egun horrelakorik ez den arren, lehenago kasu gutxi batzuk izan dira.

Gaur egun etxez etzeko laguntza zerbitzurako ez dago itxaronzerrendarik eta bi pertsona daude Eguneko Zentrorako zain.

Zerbitzuon erabiltzaile kopurua ondoko taulan laburbiltzen da:

Eguneko Zentroa	11 erabiltzaile (eta Aiar bat)
Tutoretzako Apartamentuak	Proiektatuta, 8 plaza
Egoitzak	12 erabiltzaile
Tele-alarma	10 erabiltzaile

Eguneko Zentroa 25 pertsona atosteko helburuarekin eraiki zen, eskaerak gora egingo duela aurreikusten baita.

Tutoretzako Zentroa 4 apartamentuz osatuko da, 8 plaza guztira. Zentroan bertan erretiratu eta pentsiodunentzat eskulanak egiteko leku bat egokituko da.

Haur eta gazteengana zuzendutako zerbitzuei dagokienean Orion hautzaindegi pribatu bat dago. Herrian gazteentzako abegi etxerik ez den arren udan Oriora 2 gazte saharauiar etortzen dira aldi baterako familia harrera zerbitzu baten eskutik (Oporrak Bakean Programa). Amaitzeko etxez-etxeko hezitzaile baten zerbitzua jasotzen duten 2 familia daude Orion.

Orion GOF (Gizarte-ongizateko Fondoa) pentsioa jasotzen duten 4 pertsona daude. Kotizazio Gabeko Pentsioa jasotzen dutenak 11 dira, eurentariko 6 erretiratuak eta 5 elbarriak. Etxez-etxeko laguntzari dagokionean, 2003an 22 kasu izan ziren (27 pertsona guztira).

Txirotasun laguntza jasotzen duen pertsona kopurua.

Orioko Udalak jasotako datuen arabera, txirotasun laguntza jasotzen duten 10 pertsona daude Orion. 10 pertsonatik 4 gizonezkoak dira eta gainerako 6ak emakumezkoak.

Ondoko taulan datuok sexu eta adinaren arabera jasotzen dira:

Sexua	Adinak
Gizonak	41, 58, 74, 81
Emakumeak	29, 33, 42, 48, 64, 73

4.3.5. Kultura

Orioko kultur ekipamenduak ondokoak dira:

- Kzgunea: Bertan 18 urtez gorakoengana zuzendutako dohaineko zerbitzu ezberdinak eskaintzeko (nabigazioa nahiz formakuntza) 14 ordenagailu daude. Bi motatako ikastaroak eskaintzen dira bertan: 20 orduko ikastaro bat (2 ordu eguneko) batetik, eta 55 urtez gorakoengana zuzendutako 10 orduko beste ikastaro bat bestetik.

- Udal Musika Eskola: Musika irakaskuntzaz gain emanaldi publikoak antolatzen ditu eta amateur mailako musika jardueretan parte hartzen du.
- Kultur Etxea: Haur eta helduentzako irakurketa gela bana ditu, liburutegi zerbitzua eta internet zerbitzua eskaintzeaz gain. Bertan udal euskaltegiko ikasgelak eta beste zenbait ikastaro (informatika, tailerrak...) emateko ikasgelak ere badira. Karkarak bere erredakziorako gune propio bat dauka kultur etxean. Amaitzeko, ekitaldi aretoan erakusketak, dantza ikastaroak, kontzertuak, konferentziak, filmen proiektzioak eta abar burutzen dira.

Gaur egun Kultur Etxea eta liburutegia txiki geratu dira.

Aipatutakoez gain, Orioko Udalak, udalerriko hainbat elkartek erabiltzen dituzten beste zenbait lokal ditu.

Aipaturiko ekipamenduez gain Udalerrian ez dago museo, zinema areto edota tamaina ertaineko beste aretorik.

Jarraian Orion ospatzen diren festak eta antolatzen diren jarduerak aipatzen dira:

- San Pedro, ekainak 29
- San Nikolas, abenduak 6
- San Martin Auzoko festak, azaroak 11. Tradizio handia duten baserritarren festak.
- Bisigu eguna: ekaineko 3. igandea. Parrilla lehiaketa bat egiten da. Paraleloki, plazan euskal produktuen feria bat antolatzen da.
- Bordeleko Ardo Feria: maiatzaren amaiera.
- Gabonetan haurrentzako jarduera kulturalak antolatzen dira.
- Udan bertoko biztanle nahiz bisitariengana zuzendutako jarduera kulturalak antolatzen dira. Antolatutako jardueren artean azpimarragarrienak (urtero ospatzen dira):
 - o Artisautza Feria, abuztuko lehen igandean.
 - o "Ostiralean Jai" Programa, Udalerriko zenbait tabernatan.
 - o Txotxongilo emanaldiak.

4.3.6. Kirola:

Jarraian Orioko kirol instalakuntzak aipatzen dira:

- Karela kiroldegia: erabilera anitzeko aretoak 600 pertsonako adukiera du, ikuskizunetarako beste 1.200 pertsonako edukiera bat gehituz. Guztira, beraz, 1.800 pertsonako edukiera du.
- Frontoia: kirola praktikatzeko 100 pertsonako edukiera du eta ikuskizunetarako edukiera beste 300 pertsonakoa da. Guztira, beraz, 400 pertsonako edukiera du.
- Orioko arraunketa elkarte: 200 pertsonentzako edukiera.
- Futbol zelaia
- Softball zelaia
- Saskibaloiko kanpoko zelaiak, ping-pong mahaia...
- Surf elkartearen instalakuntzak
- Eskoletako kirol instalazioak

Frontoia eta Arraun Klubaren instalazioen egoera oso ona ez dela aipatu beharra dago ere..

Ondoko instalazioak, berriz, aurreikusita daude:

- Hondartzako kirol eremua
- Kiroldegiaren handitzea
- Kirol portua
- Futbol eta softball zelai berriak.

Kiroldegia, frontoia eta "arraunketa elkarte"ko erabiltzaile kopurua ondoko taulan zehazten da:

	Kiroldegia	Frontoia	Arraunketa Elkarte
Bazkideak	1.700	100	100
Erabilera dentsitate altueneko ordutegiko erabiltzaile kopurua	120	30	150
Egun osoko sarreraren puntako balioa	400	50	200
Ikuskizunetako sarreraren puntako balioa	1.000	350	-
Saturazio maila	ertaina	baxua	ertaina

4.3.7. Euskara

Urola Kosta EAE mailan euskararen osasun egoera onenetakoa ageri duen eskualdeetako bat da, ezagupen maila, nahiz erabilpen mailari dagokionean. Hortaz, eskualde honetan euskarak kontserbatu eta indartu beharreko ondare eta kultura balioa osatzen du.

2001ean Urola Kostako biztanleetatik %79,47 euskaldunak ziren (Gipuzkoako batez bestekoa %51,45), %11,27 ia euskaldunak (Gipuzkoako batez bestekoa %19,68) eta %9,27 erdaldunak (Gipuzkoako batez bestekoa %28,87).

Oriori dagokionez urte berean, biztanleen %79,95 euskalduna zen, %12,47 ia euskalduna eta %7,58 erdalduna.

Orioko Udaletxetik eskuratutako informazioaren arabera, kualitatiboki, Udalerriko euskararen ezagupen maila ondokoa da:

- 10 biztanletik 8k euskaraz egokiro hitz egiten du.
- 10 biztanletik 1ek euskara ezagutzen du baino erabiltzeko zenbait arazo ditu.
- 10 biztanletik 1ek ez du ezagutzen (portzentaia hau etengabeki jaisten ari da).
- Bi urtetik behin egiten diren neurketen emaitzen arabera, euskararen kaleko erabilera %70ekoa da, haurrak eta gazteak izanik euskaraz gehien mintzatzen direnak.

“Hitano”aren erabilera ordea, geroz eta okerragoa da.

Orion haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako eskaintza D ereduan egiten da.

Jarraian Udalerrian euskara bultzatzeko ekintza eta laguntzak laburbiltzen dira:

- Orioko Udaletxeak laguntza ekonomikoak eskaintzen dizkie euren errotuluak euskararaz jarri nahi dituzten merkataritza establezimenduei. Bestalde, laguntza ekonomikoak ematen dizkie euskaltegian euskara ikasi edo barnetegietan ikastaroak egin nahi dituzten oriotarrei.
- 1993az geroztik Euskara Zerbitzuak Euskaraz Gazte literatur lehiaketa antolatzen du. Saritutako lanak Karkara aldizkarian eta Orioko web orrian argitaratzen dira.

- 2004ko otsailean lan munduan euskara sustatzeko plan bat jarri zen martxan; 2009 urteraino jardungo du plan honek.
- Orioko Txurruka kanpamentuan “Hire esku” Programa eskaintzen da.
- “Euskara Biziberritzeko Plana” 2003-2006: Gurasoengana zuzendutako Eusko Jaurlaritzaren ekimena.
- “Kirola Euskaraz” Urola Kosta eskualdeko Programa. 1998an jarri zen martxan kirol arloan euskararen erabilera sustatzeko asmoz. Mankomunitateko kirol eta euskara lan mahaiak kudeatzen du; mahai honetan Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiaiko Udaletako eta Mankomunitateko euskara eta kirol teknikariak daude integratuta. Ondoko jarduketak barneratzen ditu:
 - o Eskola kiroleko monitoreengana zuzendutako formakuntza ikastaroak.
 - o Saltoka: euskarazko aerobik maratoia. Lehen edizioa Getarian burutu zen, bigarrena Zumaian eta hirugarrena Orion burutu da (spinning espezialitatea).
 - o Euskarazko ikasmateriala landu eta argitaratu (surfa eta arraunketaren inguruko fitxa didaktikoak).
 - o Kirol ariketa sustatzeko jarduketak.
 - o Euskara Sasoian Programa: Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiaiko kirol elkarteetan euskara sustatzeko programa.
- Euskararen egoera eskualdeko kirol elkarteetan: Planiker Hizkuntza Zerbitzuak enpresak 2001ean euskararen egoera eta erabileraren diagnosia burutu zuen eskualdeko 40 kirol elkarteetan gainean. Arestian aipatutako Euskara Sasoian Programaren oinarriak finkatu zituen diagnosi honek.
- On line Euskaltegia: Urola Kostako Mankomunitateak eta Zarauzko Udal Euskaltegiak 2004-2005 ikasturtean euskara internet bidez ikasteko zerbitzu bat jarri dute martxan. “Ikas euskara on-line” zerbitzuak euskara etxetik nahiz Zarautz, Getaria, Orio eta Zumaiaiko autoikaskuntzako zerbitzu gelatik ikasteko aukera eskaintzen du.

4.3.8. Aisia:

Udalak eskainitako informazioaren arabera, Orion ez dago Gazteleku edo ludotekarik. 5 haur parke daude, ez denak oso egoera egokian, eta Udal kiroldegia ekipamendu ugari eskaintzen ditu.

Haur, gazte eta helduengana zuzendutako aisialdiko jarduerak:

- Koloniak
- Txumurruski taldeak antolatutako haurrentzako irteerak.
- Musika eta euskara uztartzen dituen gazteentzako “Ostiralean Jai” Programa.
- Saint Ciers sur Gironde herri senidetura irteerak.
- Talai Mendi Elkartek ia aste bukaera guztietan antolatzen ditu txangoak.

4.3.9. Kontsumoa

Orioko Udalak eskainitako informazioaren arabera Udalerrian ez dago kontsumitzaileen defentsarako zerbitzurik; kontsultak Donostiako kontsumitzaileen defentsarako egoitza nagusian egin daitezke.

4.3.10.Hiri birsorkuntza:

Jarraian Orioko hiri birsorkuntzako planak aipatzen dira:

- Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plana
- Izartu 2. Errehabilitazio Sozioekonomikoa eta Orioko Lurralde Birsorkuntzako Proiektu Integrala
- PERCO. Hirigune Historikoan Merkataritza Berpizteko Plan Berezia
- MTBPB. Merkataritza eta Turismoa Berrindartzeko Plan Berezia
- Agenda 21

Aipaturiko planak 8 urtetarako baliagarriak dira.



2004ko abenduaren 1ean burututako Herritarren Partehartze Foroan jasotako sozioekonomia arloko kezka nagusiak ondokoak izan ziren:

- ♣ Arrantzaleak, jatetxeak... joan/itxi egin dira eta ez da ezer egin hau ekiditearren.
- ♣ Gaur egun Oriok "lotarako bakarrik balio du". Industri poligono berriak lanpostu berriak sortuko lituzke.
- ♣ Gazteak herrian gelditu ahal izateko Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzeaz gain, etxebizitza libreen prezioek behera egin beharko lukete.
- ♣ Euskal Autonomi Erkidegoa da Estatu mailan merkataritza-zentroen dentsitate altuena ageri duen lurraldea. Honek tamaina txiki eta ertaineko saltokiengan eragina du.
- ♣ Babes Ofizialeko Etxebizitza eskariaren inguruko azterketa bat egin beharko litzateke.
- ♣ Kartelak, seinaleak... euskaraz egin behar lirateke.

5. INGURUNE FISIKOA

5.1. Udalerriak

Aztergai diren Urola Kosta Udaltaldeko zazpi udalerriak honako hauek dira:

- ♣ Aia, Getaria, Orio, Zarautz, eta Zumaia Urola Kosta eskualdean.
- ♣ Aizarnazabal eta Zestoa Urola Erdia eskualdean.

Gipuzkoako ipar-mendebaldean daude kokatuta, itsasoa eta Donostialdeak mugatuta ipar eta ekialdetik, Deba Behea eta Deba Garaiak mendebaldetik eta Tolosaldeak hegoaldeetik.

Udalerriek, 156'2 Km2 hedaduraz, Zarautz-Azpeitiako Eskualde Egiturako %47'4a suposatzen dute.

5.2. Arroak

Mugatutako esparrua Urola eta Oria Ibaien erdi eta behe ur-ibilguez zeharkatzen dute.

Oriako Arro hidrografikoari dagokionez, ibaiadar garrantzitsu bezala Santiago eta Altzerri ibaiak nabarmentzen dira. Arro hidrografiko honi dagozkion udalerriak Aia eta Orio dira.

Altzolarra, Larraondo eta Sastarrain Urola ibaiaren ibaiadar nagusienak dira. Getaria, Zumaia, Zestoa eta Aizarnazabal udalerriak Urolaren arro hidrografikoaren baitan daude.

5.3. Geomorfologia eta edafologia

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako Gipuzkoako Geomorfologia eta Edafologia liburuaren arabera, aztergai den eremua bi ingurune morfodinamikotan bereizten da: kosta eta prelitoraleko erliebeak.

Kostako ingurunean bost unitate fisiografiko bereiz daitezke. Lehenengo ingurunea Saturraraneke hondartza eta Zumaia bitartean, Meagako gaina barne, hedatzen da-

Erlikea muino eta hegi txikiz osatuta dago, itsasoak itsaslabar malkartsuaz ebakitzen duelarik. **Urola** eta **Deba** ibaien behe-ibilguez zeharkatzen dute.

Zumaia eta Meaga gainetik ekialdera, erabat aldatzen da kostaren morfologia. “Flisch” tertziarioko material hareatsuek, itsas bazterrekiko paralelo doan mendikate txiki edo “Kostako-lerrokadura” osatzen dute. Lerrokadura honek bi sektore hartzen ditu barnean:

- **Getariakoa**, mendebaldean aurkitzen dena, Zumaia eta Zarautz tartean.
- Zarautzik Pasaiko portuko sarreraraino (faroraino) hedatzen dena, Beastegi eta **Mendizorrotz** barne dituelarik besteak beste.

Kretazikoko material margokalkareoen eta triasikoko igeltsu-buztinen gainean ildo deprimitu edo “kanpo-korridorea” dago, bi unitate barne hartzen dituelarik:

- **Zarauzko depresioa**, unitate fisiografiko independentea itxuratzeko nahiko entitate duelarik, bai bere ezaugarri geologikoengatik, bai ezaugarri morfologikoengatik.
- Erdiko sektorea, Oriotik Lasarterainokoa, Oria ibaiaren **itsasadar edo estuarioa** bertatik igarotzen da.

Aztergai den eremuko Prelitoraleko Erlikea malkartsuetan, lau unitate fisiografiko bereizten dira, Urola ibaiaren eta Prelitoraleko Haranen artean kokatuak, Gipuzkoako *Geomorfologia* eta *Edafologia liburuaren* arabera.

Hauetako hirutan, Erxina/Aizarna, Pagoeta eta Gazume/Hernion, substratu kaltzikoa nabarmentzen da eta laugarren unitatean, Zarate- Andatzan, substratu detritikoa.

Erlikea hauen egitura geologikoa biziki konplexua da. Egitura hauen artean azpimarratzekoak dira Pagoeta eta Ernio eta Uzturreko mendiguneak.

Bestetik, aztergai den eremuan dauden ezaugarri edafologikoei dagokienez, ondorengo lurzoruak bereizten dira osagarri nagusiaren arabera, **Soil Taxonomy-ren Sailkapena** (USDA 1975) kontatuta hartuta:

- Kostako gunean **Inzeptisolak** nabarmentzen dira, harri amaren alterazioaren ondorioz oso azkar sortzen diren horizonteak dituelarik.

- Barnealdean **Alfisolak** dira nagusi, eskualde hezeetan bereizten direnak.

Gipuzkoako Lurzoru Mapan, **FAO –UNESCO Sailkapena -ri** dagokionean, ondorengo lurzoru motak bereizten dira:

- **Rankerra:** kostaldeko itsaslabarretan nagusi den lurzoru mota, A horizonte unbrikoaz soilik osatua, kolore ilunekoa eta harritsuak. Balio paisajistiko altua dauka, baino ekoizpen baxua.
- **Akrisol gleikoa:** Orio eta Urola ibaien behe-ibilguen artean hedatzen da. Agronomikoki, lurzoru azidoak dira, eta iragazkortasun kaskarra dute ezaugarri, sustrai-garapena baldintzatzen duelarik. Lurzoruaren ur- gain-saturazioa dela eta, labaintze- fenomenoak faboratzen dira.
- **Gleisol eutrikoa:** amaierako ibai-tramuetan mareek eragindako lautada alubialei dagokie. Nekazal balio altuko lurzoruak dira.
- **Flubisol eutrikoa:** geruza freatikoaaren ondorioz, lautada alubialen formazio edafikoa da. Nekazal balio altuko lurzoruak dira.

Nabarmendu beharra dago, Antillako hondartzatik Mendizorrotz bitarteko itsaslabarra interes geologikoko gunea dela.

5.4. Klimatologia

Isurialde atlantikoan kokatutako eta kostaldeko eta prelitoraleko erliebeetako ingurune morfodinamikoek barneratzen dituzten Urola-Kostako udalerriek klima mesotermikoa dute, atlantiar eragineko klima leuna eta batez besteko tenperatura eta plubiometria altuaz.

Batez besteko urteko tenperatura 12 eta 14 °C bitartean dabil, gehieneko batez besteko tenperatura 16-19 °C bitartean eta gutxienekoak 9ªC inguruan. Euri erregimenari dagokionez, batez besteko urteko prezipitazioa 1.500-1.600 mm bitartean dago. Gehieneko plubiometrikoa neguko hilabeteetan ematen da, batez ere azaroan.


Klimaren onberatasuna landaredi hazkunde-garai luzeak islatzen du, ia urteko 12 hilabeteak hartzen dituelarik, gutxienezkoak direlarik udako lehorteen edo neguko hotzen mugatzeak.

Jarraian sare automatikoan erregistratutako batez besteko hileroko tenperaturak azaltzen dira (Zumaia-Faroko estazio automatikoa):

Hilabeteak	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	Bataz bes. T ^a
Urtarrila	-	10.2	8.7	7.8	10.3	8.5	8.9	12.8	9.8	10.8	10.6	7.4	11.2	9.7
Otsaila	10.6	14.2	8.1	9.6	8.0	10.0	10.5	8.4	11.8	11.5	8.3	10.6	10.0	10.1
Martxoa	12.3	12.6	12.3	-	9.8	11.1	-	11.6	11.5	11.8	11.4	9.8	14.6	11.7
Apirila	11.2	11.4	10.2	10.9	11.6	10.1	11.8	12.5	12.0	12.2	13.2	12.6	12.0	11.7
Maiatza	16.4	-	-	15.9	14.9	14.1	16.4	14.7	16.3	15.0	16.6	15.8	15.0	15.5
Ekaina	18.0	17.4	16.5	15.1	16.6	16.2	17.2	18.5	17.7	17.6	17.4	18.6	17.3	17.2
Uztaila	20.9	19.9	19.3	19.2	17.6	19.7	20.8	19.7	18.5	19.4	20.3	19.2	-	19.5
Abuztua	20.5	21.0	21.1	20.3	19.1	20.1	21.0	19.4	21.3	20.5	21.2	20.0	-	20.5
Iraila	-	19.3	20.4	17.4	-	16.4	17.2	16.3	19.2	19.2	20.6	19.2	-	18.5
Urria	17.8	16.8	13.9	12.9	13.9	15.3	19.1	15.0	18.4	14.8	16.6	15.2	-	15.8
Azaroa	15.0	11.4	12.5	13.6	10.4	13.4	13.6	11.7	13.8	10.7	10.6	12.4	-	12.4
Abendua	14.3	7.2	9.8	10.0	10.7	10.9	11.4	10.1	10.6	9.4	9.8	13.6	-	10.6

Iturria: Zarautz Ingurune Diagnostikoa 2001.

Zarauzko (1955-1986 denboraldiko prezipitazioak) eta Zumaiko (1898-2001 denboraldiko) Estazio Meteorologikoetako datuak kontutan hartuta, ondorengo diagrama onbrotermikoa lortzen da;



Iturria: bertan landutakoa

Indize Termoplubiometrikoa kontutan hartuz, gune "heze" bezala sailkatuko litzateke klimaren ezaugarritzea, ondorengo formulatik abiatuz:

$$Itp = 100 \times \frac{t}{R}$$

non, t = batez besteko urteko tenperatura Cº-tan

R = batez besteko urteko prezipitazioa mm-tan

Gune Mota	Itp- arentzako balore tartekak
Hezea	0.2
Erdiaridoa	2.3
Aridoa	3.6
Azpi basamortuarra	> 6


6. INGURUNE NATURALA

6.1. Landare komunitateak eta fauna:

6.1.1. Estai bioklimatikoak.

Urola eskualdea (Urola- Kosta eta Urola- Erdia) eskualde Eurosiberiarraren (Europa gehiengan hedatzen dena) sektore kantabriar-euskaldunean kokatzen da

Probintzia Kantabriar- Atlantikoko Sektoreak



Iturria: www.unex.es/botanica

Eskualde Eurosiberiarra, azterlan den eskualdean behinik behin, estai bioklimatiko muinotarra eta menditarra soilik agertzen direlako bereizten da. (Juan Martinez, Euskal Herriko Landaretza. 1998)

Eskualde Eurosiberiarreko Estai Bioklimatikoak



Iturria: www.unex.es/botanica

Sektore Kantabriar-Euskalduneko estai muinotarra (400-600 metroko altueran) ondorengo landaretza potentzial seriea du bereizle: *Quercus robur*-dun kandudun

haritzia, *Fraxinus excelsior*-dun lizardia, eta *Quercus ilex*-dun artadia eta, *Quercus rotundifolia*-dun artadia.

Sektore Kantabriar-Euskalduneko estai menditarrean (500-800 metroko altueran), ondorengo landaretza potentzial seriea du bereizle: *Fagus sylvatica*-dun pagadia (barnealdeko mendi garaitean), *Quercus robur*-dun kandudun haritzia, eta *Quercus pyrenaica*-dun ameztia.

6.1.2. Landaredia Potentziala

Urola Eskualdeko landaretza potentziala ondorengo unitateek osatzen dute:

Itsas labarretako landaredia: Bada itsas labarretan aurkitzen den eta kontrako balditzetara egokitzen den landare belarkara multzo bat. Landaretza mota hau Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia-ko itsas labarretan kokatuko litzateke.

Kostaldeko hareatzetako landaredia: Landaredi-zerrenda (belarkarak eta zuhaixka-formakoak) bereiz daitezke, lur barrura barneratzen garen heinean konposizioa aldatzen doazenak. Landaretza mota hau Zumaia, Zarautz, Aia eta Orion kokatuko litzateke batez ere.

Paduretako landaredia: Landaretza mota hau (belarkara batez ere) Oria (Aia eta Orio) eta Urolaren (Zumaia) ibai-ahoa kokatuko litzateke gehienbat.

Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa: Haritz kanduduna (*Quercus robur*) da espezie nagusia, Eskualdeko landaretza potentzial nagusia osatzen duelarik.

Amezti: ametza (*Quercus pyrenaica*) da espezie nagusia. Atxikipen hidriko urriko hareazko substratu gainean ezartzen dira. Landaretza mota hau Aia, Getaria, Orio eta Zarauzko udalerrietan kokatuko litzateke batik bat.

Artelatz-basoak: (*Quercus suber*): Eredu zehatz batean kokatuko litzateke, Getaria eta Zarauzko udalerrietako kostaldeko muinoetan).

Artadi kantaurrearra: Artea (*Quercus ilex*) nagusi den basoak dira, kostaldeko inguruetara loturikoak. Landaretza potentzial mota hau Getaria, Zarautz, Zestoa eta Zumaia-ko udalerrietan kokatuko litzateke.

Haltzadi kantaurrearra: Ur-bazterretako landaredia osatzen duten ur-ibilgu ertzetako galeria baso hauetan haltza da espezie nagusia (*Alnus glutinosa*).

Pagadia: Plubiositate altuko lekuetan hedatzen den baso honetan, pagoa (*Fagus sylvatica*) da nagusi. Pagadiak Aia, Aizarnazabal eta Zestoako udalerrietako kota garaietara mugatzen dira bereziki.

Kareharrietako komunitate-konplexua: Zestoa udalerriko leku zehatz baten kokatuko litzateke. Landaretza batez ere belarkara eta zuhaixka formakoa aurkitzen da.

Erkamezti-harizti kaltzikoloa (*Quercus pubescens*-duna): Zestoa udalerriko leku zehatz batean kokatuko litzateke, haritz hibrido, astigar, ametz eta elorri zuria etab. agertzen direlarik.

6.1.3. Gaur egungo landaredia. Landare estalkiaren bilakaera azken hamarkadetan.

Hala ere, gizakiaren jarduera dela eta, gaur egungo landaredia aurrerago aipatutakoarekiko oso desberdina da. Ondorengo taulak eskualdeko gaur egungo egoera laburtzen du (1996), lurraldearen banaketari dagokionez:

Taula: Erabilpen banaketa (Ha.) Urolako eskualdea. 1996

ESKUALDEAREN AZALERA		32.573
Erabilpena	Azalera	Azalera guztiarekiko %
Baso zuhaizti itxia	16.296	50,0
Zelaiak	10.242	31,4
Sasiak	2.027	6,2
Gainontzekoa	1.252	3,8
Baso zuhaizti urria	1.086	3,3
Larreak	1.074	3,3
Harkaitz eta padurak	395	1,2
Laborantza intentsiboak	201	0,6

Iturria: Bertan landutakoa, Euskal Herriko Baso Inbentarioa oinarri hartuta 1996.

Basoak lurralde osoaren %53 baizik ez du hartzen.

Urola Eskualdeko baso zuhaiztien azalerari dagokionez aldiz, espezieen banaketa honako hau litzateke:

Taula. Zuhaiztien banaketa (Ha). Urola Eskualdea. 1996.

Espezia	Guztira	
	Ha.	%
<i>Pinus insignis</i>	9.642	55,5
Larix	1.010	5,8
Beste konifero batzuk	693	4,0
Koniferoak guztira	11.345	65,3
<i>Quercus robur</i>	1.699	9,8
<i>Fagus sylvatica</i>	1.501	8,6
Baso atlantikoa	1.680	9,7
Beste hostozabal batzuk	1.157	6,7
Hostozabalak guztira	6.037	34,7
GUZTIRA	17.382	%100,0

Iturria: Bertan landutakoa, Euskal Herriko Baso Inbentarioa oinarri hartuta 1996.

Taula honetatik ondoriozta daiteke baso zuhaitzien azaleraren %65 koniferoek okupatzen dutela, gainontzeko %34'5 hostozabalei dagokien heinean.

Espezie nagusi bezala *Pinus insignis* (Koniferoa) bereizten da, baso zuhaitzien azaleraren % 55a betetzen baitu. Hostozabalen artean ondokoak bereizten dira: *Quercus robur* (%9,8), baso atlantikoa (%9,7), eta *Fagus sylvatica* (%8,6).

Azken hamarkadetako landare estalkiaren bilakaera aztertzeko helburuarekin, ondorengo taulan 1986ko zuhaitzi azaleraren banaketa laburtzen da:

Taula. Zuhaitzi azaleraren banaketa (Ha). Urola Eskualdea. 1986

	Ebaketak	Baso berriketa	Haga-basoa	Tantai-basoa	Gainontzekoa	Guztira
Koniferoak	1.229	714	1.708	8.962	891	13.504
Hostozabalak	21	5	308	4.124	313	4.771
Baso mistoa	7	4	15	97	6	129
GUZTIRA	1.257	723	2.031	13.183	1.210	18.404

Iturria: Bertan landutakoa, Euskal Herriko Baso Inbentarioa oinarri hartuta .1986


Konifero eta hostozabalen banaketa aldatu egin da 1986 eta 1996 bitartean jarraian jasotzen den moduan:

Taula: Zuhaitzi azaleraren banaketa (Ha). Urola Eskualdea

	1986	1996
--	------	------

	1986		1996	
Koniferoak	13.504	74	11.345	65
Hostozabalak	4.771	26	6.037	35
GUZTIRA	18.275	%100	17.382	%100

Iturria: Bertan landutakoa, Euskal Herriko Baso Inbentarioa oinarri hartuta



Hautematen den bezala, aipatutako aldian eskualdeko zuhazti azalera gutxiagotu den arren (%5eko jaitsiera), hostozabalek okupatutako azalera handitu egin da koniferoen kalterako. Honela, 1986an hostozabalek zuhazti azalera osoaren %26 betetzen bazuten ere, 1996ean portzentaia hau %34,7raino handitu zen (%8,6ko emendioa)

Oriori dagokionez, ondorengo taulan gaur egungo (1996) egoera azaltzen da, lurraldearen erabilpenari dagokionez:

Taula: Erabilpen banaketa (Ha.). Orio. 1996

UDALERRIAREN AZALERA		982
Erabilera	Azalera	%
Zelaiak	254	25,9
Baso zuhazti itxia	246	25,1
Larreak	161	16,4
Gainontzekoa (hiri lurra	112	11,4

eta ura)		
Sasiak	104	10,6
Harkaitz eta padurak	47	4,8
Laborantza intentsiboak	47	4,8
Baso zuhaitzi urria	11	1,1

Iturria: Bertan landutakoa, Euskal Herriko Baso Inbentarioan oinarrituta .1996


Taula honetatik ondorioztatzen Orioko lurraldearen %26,2a zuhaitzien azalerari dagokiola, %25,9a zelaiek betetzen duten bitartean.

Jarraian, Orio udalerriaren, Urola Eskualderaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren arteko konparazioa adierazten da, lurraldearen erabilpenari dagokionez:

Taula: Erabilpen banaketaren konparazioa (Ha.). 1996

ORIOKO AZALERA				982		
UROLA ESKUALDEKO AZALERA				32.573		
GIPUZKOAKO AZALERA				198.029		
	ORIO		UROLA		GIPUZKOA	
Erabilpena	Azalera	%	Azalera	%	Azalera	%
Harkaitz eta padurak	47	4,8	395	1,2	1.563	0,8
Zelaiak	254	25,9	10.242	31,4	45.683	23,1
Larreak	161	16,4	1.074	3,3	6.994	3,5
Sasiak	104	10,6	2.027	6,2	13.933	7,0
Baso zuhaitzi itxia	246	25,1	16.296	50,0	110.971	56,0
Baso zuhaitzi urria	11	1,1	1.086	3,3	7.280	3,7
Laborantza intentsiboak	47	4,8	201	0,6	1.114	0,6
Gainontzekoa (hiri lurra eta ura)	112	11,4	1.252	3,8	10.491	5,3

Iturria: Bertan landutakoa, Euskal Herriko Baso Inbentarioa oinarri hartuta .1996



Konparazio honek erabilpen banaketa berdintsua erakusten du hiru eremuetan, nahiz eta desberdintasunak egon zelai eta baso zuhaitzien azalerari dagokienez. Larreei dagokienez, Oriok Lurralde Historikoan eta Urola-Kostan baino askoz ere portzentaia altuagoa dauka (%16,4a). Baso zuhaitzien azalera berriz (%25,1), Lurralde Historikoan (%56a) eta Urola Eskualdean (%50a) azaltzen dena baino urriagoa da.

Orio udalerriko (1996) baso zuhaitzien azalera ondorengo taulan adierazten diren espezieek osatzen dute:

Taula. Zuhaitzien banaketa (Ha). Orio. 1996

Espezia	Guztira	
	Ha.	%
<i>Pinus insignis</i>	91	35,4
<i>Pinus pinaster</i>	57	22,2
Beste konifero batzuk	7	2,7
Koniferoak guztira	155	60,3
Landatutako hostozabalak	19	7,4
<i>Quercus suber</i>	17	6,6
<i>Quercus robur</i>	14	5,4
Baso atlantikoa	11	4,3
<i>Quercus ilex</i>	10	3,9
<i>Betula</i>	8	3,1
Beste hostozabal batzuk	23	8,9
Hostozabalak guztira	102	39,7
GUZTIRA	257	%100

Iturria: Bertan landutakoa, Euskal Herriko Baso Inbentarioa oinarri hartuta .1996


Orio, Urola Eskualdea eta Gipuzkoako Lurralde Historikoarekin konparatuz gero, baso zuhaitzien azalerari dagokionez, ondorengo taula lortzen da:

Taula: Baso zuhaitzien azaleraren konparazioa (Ha).

Espeziea	ORIO		UROLA		GIPUZKOA	
	Azalera	%	Azalera	%	Azalera	%
<i>Pinus insignis</i>	91	35,4	9.642	55,5	54.795	46,3
<i>Pinus pinaster</i>	57	22,2	103	0,6	1.002	0,8
Beste konifero batzuk	7	2,7	1.600	9,2	16.720	14,1
Koniferoak guztira	155	60,3	11.345	65,3	72.517	61,3
Landatutako hostozabalak	19	7,4	304	1,7	1.232	1,0
<i>Quercus suber</i>	17	6,6	17	0,1	17	0,0
<i>Quercus robur</i>	14	5,4	1.699	9,8	7.595	6,4
Baso atlantikoa	11	4,3	1.680	9,7	12.223	10,3
<i>Quercus ilex</i>	10	3,9	163	0,9	2.164	1,8
<i>Betula</i>	8	3,1	47	0,3	247	0,2
Beste hostozabal batzuk	23	8,9	2.127	12,2	22.256	18,8
Hostozabalak guztira	102	39,7	6.037	34,7	45.734	38,7
GUZTIRA	257	%100,0	17.382	100,0	118.251	%100,0

Iturria: Bertan landutakoa, Euskal Herriko Baso Inbentarioa oinarri hartuta .1996

Taula honetatik ondorioztatzen da Orion, Urola Eskualdearekin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoarekin konparatuz gero, baso zuhaitzien azaleraren gehiengoa koniferoei (%60,3) dagokiela, hostozabalak portzentaia txikiagoan azaltzen diren bitartean (39,7%).



Oriok Eskualdean edo Lurralde Historikoan ematen dena baino portzentaia nabarmenki txikoagoa dauka Pinus insignis espezieari dagokionez. Pinus pinaster koniferoak ordea azalera aski handiagoa hartzen du.

Orioko baso zuhaitzien azaleraren bilakaerari dagokionenean, 1986 eta 1996 bitartean:

Taula: Baso azaleraren bilakaera: (Ha). Orio

	1986	1996	Aldaketa
Baso azalera	243	257	%+5,8

Iturria: Bertan landutakoa, Euskal Herriko Baso Inbentarioa oinarri hartuta .1986 eta 1996

Ikus daitekeen bezala, udalerriko baso azalera osoa %5,8 emendatu da aipatutako aldian.

6.1.4. Mehatxupearan dagoen Fauna

Diagnostikoan dauden udalerrietan ondorengo fauna espezieak bereizten dira, Galzorian dauden Fauna eta Flora, Espezie Basati eta Itsastarren Katalogoa arautzen duen uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuaren arabera dagokien babes kategoriatan sailkatuta:

Izen zientifikoa	Euskarazko izena	Babes Kategoria
<i>Hyla meridionalis</i>	Hegoaldeko Zuhaitz-Igela	DESAGERTZEKO ARRISKUAN
<i>Elaphe longissima</i>	Eskulapioren Sugea	INTERES BEREZIKOA
<i>Neophron percnopterus</i>	Sai zuria	KALTEBERA
<i>Falco peregrinus</i>	Belatz handia	ARRAROA
<i>Charadrius dubius</i>	Txirritxo txikia	KALTEBERA
<i>Phalacrocorax aristotelis</i>	Ubarroi mottoduna	ARRAROA
<i>Accipiter gentilis</i>	Aztorea	ARRAROA
<i>Gyps fulvus</i>	Sai arrea	INTERES BEREZIKOA
<i>Mustela lutreola</i>	Bisoi europarra	KALTEBERA

Iturria: Bertan landutakoa

Aurrez aipaturiko espezieez gain, Urola-Kosta eskualdean mantendu edo berreskuratzeko interesa duten espezieak agertzen dira:

Izen zientifikoa	Euskarazko izena
<i>Salmo salar</i>	Izokina
<i>Capreolus capreolus</i>	Orkatza
<i>Lepus europaeus</i>	Erbia

Iturria: Bertan landutakoa

Jarraian, lehen taulan aipaturiko faunaren beste babes erregimen batzuk espezifikatzen diren taula gehitu da:

	E.D. 439/90 ³	HEGAZTIEN Zuzentaraua ⁴	HABITAT Zuzentaraua ⁵	BERNA-ko Hitzarmena ⁶	BONN-eko Hitzarmena ⁷	CITES-eko Arautegia ⁸
<i>Hyla meridionalis</i>	II		IV	II		
<i>Elaphe longissima</i>	II		IV	II		
<i>Neophron percnopterus</i>	II	I		II	II	C1
<i>Falco peregrinus</i>	II	I		II	II	C1
<i>Charadrius dubius</i>	II			II	II	
<i>Phalacrocorax aristotelis</i>	II			II		
<i>Accipiter gentilis</i>	II			II	II	C1
<i>Gyps fulvus</i>	II	I		II	II	C1
<i>Mustela lutreola</i>	II		II. IV	II		

Iturria: Bertan landutakoa, www.nekanet.net web orrialdean oinarritua.

3 Galzorian dauden Espezieen Katalogo Nazionala arautzen duen 439/1990 Errege Dekretua, (I: Desagertzeko Arriskuan / II: Interes Berezikoa).

4 Hegazti Basatien Kontserbazioari dagokion 79/409/CE Zuzentaraua eta 91/294/CE Zuzentaraua (I: I Eranskina: beren habitata kontserbatzeko neurriak behar dituzten taxoiak / II: II Eranskina: Ehiza daitezkeen espezieak).

5 Habitat naturalen eta fauna eta flora basatiari kontserbazioari dagokion 92/43/CE Zuzentaraua (II: II Eranskina: Habitata kontserbatzeko neurri bereziak behar dituzten taxoiak / IV: IV Eranskina: Hertsiki babestuak).

6 Europako Basa-Bizitza eta Ingurune Naturalaren kontserbazioari buruzko Bernako Hitzarmena (1979ko irailaren 19koa).(II: II Eranskina: Hertsiki babestuak).

7 Espezie Migratzaile eta Animalia Basatien Kontserbazioari buruzko Bonn-eko Hitzarmena.(II: II Apendizea: euren kudeaketarako Estatuaren artean kudeatuz akordioak egin daitezkeen espezieak).

8 Galzorian dauden Fauna eta Flora Basatiaren Komertzioa arautzen duen Cites Arautegia (3626/82/CE). C1 espezieen komertziorako baimen-kontzesioetan gehieneko zorroztasuna aplikatzen da, I, C2 eta II espezieentzako zorroztasunak progesiboki jeitsiz.

Urola-Kostan galzorian dagoen faunaren egoera ondokoa da:

- **Arrainak:**

Izokina. (*Salmo salar*). Oria ibaian (Orio-Aia) sartzen da modu naturalean eta eskualdean bertan erruten ez badu ere, berau beste eskualdetarako beharrezko igarobide da.

- **Anfibioak:**

Hegoaldeko zuhaitz igela. (*Hyla meridionalis*). Donostian baino ez zegoen arren, bere Kudeaketa Planak Igeldo-Mendizorrotz guztian berreskuratzea aurreikusten da eta, beraz, Orioraino sartu nahian dabilta.

- **Narrastiak:**

Eskulapioren Sugea (*Elaphe longissima*). garai batean oso ugaria, egun, gizakiaren eragin zuzenagatik urria da.

- **Hegaztiak:** Askok dira babestuta daudenak eta eskualdean azaltzen direnak. Dena den, esan behar da gehienak migratzaileak izanik oso garai zehatzetan ikus daitezkeela hemen. Horietako batzuk negutarrak izan litezke migrazioaz gain negu guztia pasatzen badute eta garrantzitsuenak, egoiliarak eta habiagileak (udan, umatze garaian hemen daudenak) dira. Azken hauek dira kudeaketa aldetik interesgarrienak.

Mehatxaturiko Espezieen Katalogoan dauden hegaztietatik gehienak ikus litezke eskualde honetan urte sasoren batean, normalean udazkeneko migrazioan. Zumaiaiko Beduan eta, neurri txikiagoan bada ere, Zarauzko Iñurritzan urtarrak direnetako asko ikusten dira sasoi honetan. Gainontzean, eta modu egonkorrean bertan finkaturik daudenen artean baditugu oso esanguratsuak diren espezie batzuk, horietariko batzuk jarraipen eta zainketa berezia jasotzen dituztenak:

Sai zuria. (*Neophron percnopterus*). Bikote bakar batek egiten du habia Urola-Kosta eskualdean.

Belatz Handia. (*Falco peregrinus*). Dozena erdi bikote dauzkagu gure eskualdean habia egiten. Azken urteetan bere populazioak nabarmen egin du gora, batez ere kostan.

Txirritxo txikia (*Charadrius dubius*). Kostaldean kopuru txiki eta aldakorrean bada ere habia egiten du.

Ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax aristotelis*). Azken urtetan, kume gazteak ikusi zirelako eskualde honetan agian habiarik egiten zuela uste

bazen ere, aurtengo uda arte ezin izan da datu hori egiaztatu. Hiru edo lau bikoteko kolonia kumatzailea aurkitu da.

Aztorea (*Accipiter gentilis*). Azken hamarkada honetan eskualdeko bi lekutan kumatu duela dakigu. Oso zaila da espezie honen jarraipena egitea.

Sai arrea (*Gyps fulvus*). Gure eskualdean hegazti hau ikustea nahiko arrunta bihurtu bada ere, ez da habiagilerik aurkitu oraindik, honen susmorik badagoen arren.

Aipatutako hauek babesturiko hegaztien zerrendatik gure eskualdean kumatzen dutenen arteko esanguratsuenak izan litezke eta, modu batean edo bestean jarraipenik egin izan zaie. Espezie hauentzat, gehientzat bezala, mehatxu faktorerik eraginkorrena habitataren desagertzea edo eraldaketa batetik eta kumatze garaiko jazarpenak dira bestetik. Habien kokapena jakiteak inoiz baliagarria izan da mehatxu horiek ekiditeko. Bestalde, babestutako natur guneetan (Pagoeta, Iñurritza) egin dira lan zehatzak kokapen horiek babesteko.

Ugaztunak: Hauen kasuan ere habitataren aldaketak dira, kasu gehienetan, mehatxurik handiena. Oro har, habitat horien babesa da espezieak zaintzeko neurriarik egokiena. Jarraipenen bat izan duena:

Bisoi europarra. (*Mustela lutreola*). Gipuzkoan dugun ugaztunik mehatxatuena. Eskualde honetan ez du kumatzen baino inguruko populazioetako zenbait ale hemendik igarotzen dira.

Orioren kasuan ibaian zehar ubarroi, koartza eta beste zenbait espezieren proliferazioaren ondorioz, baliteke aingira, platuxa eta beste hainbat espezieren desagertzea gertatzen aritea.

6.2. Naturgune eta elementu natural babestuak

6.2.1. Eskualdean babestutako naturgune eta elementuen zerrenda.

Naturgune eta elementu naturalak	Natura 2000 Sarea. Garrantzi Komunitarioko Lekuak	GEN Katalogo Irekia
Garate – Santa Bárbara	Interes komunitarioko 5 habitat	
Orioko itsasadarra	Interes komunitarioko 10 habitat (2 lehentasunezkoak)	
Iñurritza	Interes komunitarioko 13 habitat (2 lehentasunezkoak)	Biotopo Babestua
Pagoeta	Interes komunitarioko 6 habitat (3 lehentasunezkoak)	Parke Naturala
Ernio - Gatzume	Interes komunitarioko 10 habitat (4 lehentasunezkoak)	
Urolako Itsasadarra	Interes komunitarioko 16 habitat (2 lehentasunezkoak)	
Getariako artelatza (<i>Quercus suber</i>)		Zuhaitz Berezia
Pagoetako hagina (<i>Taxus baccata</i>)		Zuhaitz Berezia
Aizarnazabalgo artea (<i>Quercus ilex ilex</i>)		Zuhaitz Berezia

6.2.2. Kontserbaziorako arrazoiak

GARATE- SANTA BARBARA: baso, unada eta artelatz (*Quercus suber*) ale bakarrak, beste hainbat zuhaiztiren artean tartekaturik agertzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko banaketa-nukleo garrantzitsuena osatzen duelarik. Natura 2000 sarean espezie hau sartzeak bi helburu ditu: batetik orain dauden masen hedadurari eustea, eta bestetik, espazioan biltzen diren interes sozial eta ekonomikoak ahalbidetzen duten neurrian, gaur egun berau ez dagoen eremuak berreskuratzea.

Nahiz eta hau izan espazioa katalogatzeko helburu nagusia, baditu beste balio nabarmen batzuk, besteak beste, aipatzekoak dira mendilerrotik ikus daitezkeen kostaldeko panoramika ikusgarriak edo honek Zarautz herriarentzako aisiarako eremu gisa betetzen duen funtzioa.

Interes komunitarioko 5 habitat ditu, bat bera ere lehentasunezkoa izan gabe, espazioaren %60 betetzen dute.

Ondorengo habitatak azaltzen dira:

- ♣ 6510: Altitude baxuko sega-belardi txiroak
- ♣ 4030: Europar txilardi lehorrak
- ♣ 9330: *Quercus suber*-dun artelatz-basoak
- ♣ 4090: Elorri-triskadun txilardi oromediterraneo endemikoak
- ♣ 9340: *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia*-dun artadiak

Garrantzizko elementuen artean Euskal Autonomia Erkidegoko artelatz-baso bakarrak direla azpimarra daiteke.

ORIAKO ITSASADARRA: zingira leku eta padurako paisaiaren hondakinak (Santiago bereziki) alde batetik eta berriztapen ekologikoaren potentzialitatea bestetik nabarmentzen dira. Gizakiaren esku-hartzea sakonki pairatu duen arren eta eraldaketa handiak jasan arren, ingurune estuariakoaren laginak mantentzen dira.

Interes komunitarioko 10 habitat ditu, hauetako 2 lehentasunezkoak, eremuaren %91 betetzen dutelarik.

Ondorengo habitatak azaltzen dira:

- ♣ 1130: Estuarioak
- ♣ 6510: Altitude baxuko sega-belardi txiroak
- ♣ 91E0: *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-dun alubioi-basoak
- ♣ 1310: Salicornia duen urteroko landaredi aitzindaria eta eremu lohitsu edo hareatsuetako beste batzuk
- ♣ 1320: Larre gazi atlantikoak

Lehentasunezko habitat moduan ondorengoak nabarmentzen dira, %9ko presentzia izanik:

- ♣ 91E0: *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-dun alubioi-basoak
- ♣ 6210: Larre lehor erdi-naturalak eta sasitza faziesak kare-substratuaren gainekoak

Garrantzizko elementuak ondorengoak lirateke: padurako eta zingirako landaretzaren eta haltza beltzen alubioi-basoaren ordezkartza handia eta noizean behingo izokin atlantikoaren agertzea.

Gaur egun ez dago ia informaziorik oriotarrei zuzendua, naturgune eta babestutako elementuen ingurukoa.

INURRITZA: dunak eta padura zati txikien presentzia bereizgarri dituen kostako gunea. Natur balio handikoa da mota honetako guneekin loturiko flora berezia, kostaldeko hareatzetako flora batez ere, dela eta.

Interes komunitarioko 13 habitat nabarmentzen dira bertan, hauetako 2 lehentasunezkoak, espazioaren %78 betez.

Ondorengo habitatak azaltzen dira:

- ♣ 4030: Europar txilardi lehorrak
- ♣ 1230: Kostalde atlantikoko eta baltikoko landaredia duten labarrak.
- ♣ 2133: Landaredia belarkara duten kostaldeko duna finkoak (duna grisak): *Crucianellion maritima*
- ♣ 2137: Landaredia belarkara duten kostaldeko duna finkoak (duna grisak): *Thero-Airion*, *Botrychio-Polygaletum*, *Tuberarion guttatae*
- ♣ 6510: Altitude baxuko sega-belardi txiroak

Lehentasunezko habitatak, %11ko presentzia izanik:

- ♣ 2133: Landaredia belarkara duten kostaldeko duna finkoak (duna grisak): *Crucianellion maritima*
- ♣ 2137: Landaredia belarkara duten kostaldeko duna finkoak (duna grisak): *Thero-Airion*, *Botrychio-Polygaletum*, *Tuberarion guttatae*

Garrantzizko elementu bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko kostaldeko duna-eremu zabalena eta hobekien kontserbatutakoa dela aipa daiteke.

PAGOETA: kostatik hurbil dagoen esparrua, habitat aniztasun garrantzitsua, basoak, landa-nukleo txikiak eta baso naturalak aurkitzen direlarik bertan. Gizakiaren eskusartzea sakonki pairatu duen arren, balio handia dauka naturaren aldetik..

Interes komunitarioko 6 habitat ditu, hauetako 3 lehentasunezkoak, eta espazioaren %47 betetzen dute.

Ondorengo habitatak azaltzen dira:

- ♣ 6510: Altitude baxuko sega-belardi txiroak
- ♣ 6210: Larre lehor erdi-naturalak eta sasitza faziesak kare-substratuaren gainekoak
- ♣ 9120: Pagadi azidofilo atlantikoak, oihanpea batzutan *Ilex*-duna eta besteetan *Taxus*-duna.
- ♣ 4030: Europar txilardi lehorrak

Ondorengoak nabarmentzen dira lehentasunezkoak bezala, %13ko presentzia dutelarik:

- ♣ 6210: Larre lehor erdi-naturalak eta sasitza faziesak kare-substratuaren gainekoak
- ♣ 6230: Nardus-belardiak, espezie ugari dituztenak. Eskualde menditsuetako substratu silizioen gainean agertzen da
- ♣ 91E0: *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-dun alubioi-basoak

Garrantzizko elementuen artean bertako mustelido ugariak aipatzen dira, esate baterako, lepazuria, katajineta, erbinudea edo ipurtatsa. Beste ugaztun batzuk ere badira, hala nola, basakatua, muxar grisa eta ekialdeko ur-arratoia. Hegazti harrapariak ez dituzte Parke Naturaleko mugak ezagutzen, eta patxadan egiten dute hegan, Pagoeta eta ondoko Ernio mendigunearen artean: miru beltza, zapelatz liztorjalea, sai zuria, belatz handia, edo arrano sugezale europarra.

ERNIO-GATZUME: Gipuzkoako elementu orografiko nagusienetarikoa bat osatzen duen eremua, pagadiak eta hariztiak nabarmentzen diren baso natural gisa dituen.

Interes komunitarioko 10 habitat ditu ezaugarritzat, hauetako 4 lehentasunezkoak, espazioaren %62 betetzen dutelarik.

Ondorengo habitatak azaltzen dira:

- ♣ 9120: Pagadi azidofilo atlantikoak, oihanpea batzutan *Ilex*-duna eta besteetan *Taxus*-duna.
- ♣ 4030: Europar txilardi lehorrak
- ♣ 6120: Larre lehor erdi-naturalak eta sasitza faziesak kare-substratuaren gainekoak

- ♣ 6230: Nardus-belardiak, espezie ugari dituztenak, Eskualde menditsuetako substratu silizioen gainean agertzen da
- ♣ 8210: Malda arrokatu kaltzikoloak landaredia kasmofitikoa dutenak

Ondorengoak nabarmentzen dira lehentasunezko bezala, %25eko presentzia dutelarik:

- ♣ 6210: : Larre lehor erdi-naturalak eta sasitza faziesak kare-substratuaren gainekoak
- ♣ 6230: Nardus-belardiak, espezie ugari dituztenak, eskualde menditsuetako substratu silizioen gainekoak
- ♣ 6220: Gramineoak eta urterokoak dituzten azpiestepako eremuak (*Thero-Brachypodietea*)
- ♣ 91E0: *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-dun alubioi-basoak

Garrantzizko elementutzat fauna interesgarria (lepahoria, erbinudea, muxar grisa, eta ekialdeko ur-arratoia) hartzen duten baso ezberdinak, pagadiak bereziki, jotzen dira. Goialdeetan ordea, mendi txirriskila, mendi-txirta, belatz handia eta sai arrea bizi dira., azken biek hazkunde orokorra izan dutelarik Erkidego osoan azken urteetan. Gainera, mirotz urdinak habia egiteko aukera duten toki urrietako bat da.

UROLAKO ITSASADARRA: Santiago aurreko hondartzaren eta ibai-ahoren artean kokatua, euskal kostaldean gordetzen den dunetako landarediaren erakusgarri urrietako bat da eta landaretzari dagokionez Euskal Herriko hondartza aberatsenetarikoa. Hareatzetako landaredi zabala dago eta euskal itsasaldean gordetzen den lekukotasun bakanetarikoa da.

Interes komunitarioko 16 habitat aurkitzen dira, hauetako 3 lehentasunezkoak, espazioaren %64 betetzen dutelarik.

Ondorengo habitatak azaltzen dira:

- ♣ 1130: Estuarioak
- ♣ 9340: *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia*-dun basoak
- ♣ 6510: Altitude baxuko sega-belardi txiroak
- ♣ 2137: Landaredia belarkara duten kostaldeko duna finkoak (duna grisak): *Thero-Airion*, *Botrychio-Polygaletum*, *Tuberarion guttatae*
- ♣ 91E0: *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-dun alubioi-basoak

- ♣ 1310: Salicornia duen urteroko landaredi aitzindaria eta eremu lohitsu edo hareatsuetako beste batzuk
- ♣ 4090: Otabera duten txilardi oromediterraneo endemikoak eta elorri triska.

Lehentasunezko habitatak, %14ko presentzia izanik:

- ♣ 2137: Landaredia belarkara duten kostaldeko duna finkoak (duna grisak): *Thero-Airion*, *Botrychio-Polygaletum*, *Tuberarion guttatae*
- ♣ 91E0: *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-dun alubioi-basoak

Getariako artelatza (*Quercus suber*): Euskal Herriko artelatze-baso handienaren, Meagakoa hain zuzen ere (Garate mendian), atal bat da.

Pagoetako hagina (*Taxus baccata*): berezitasunaren arrazoiak bere singularitasun eta edertasunean datza.

Aizarnazabalgo artea (*Quercus ilex ilex*): berezitasunaren arrazoiak bere neurri, itxura eta edertasunean datza.

6.2.3. Babestutako eremuen babes figura eta berorien garapen maila

- ♣ **Garate-Santa Barbara:** Garrantzi Komunitarioko Leku bezala proposatua (ES2120007)
- ♣ **Orioko itsasadarra:** Garrantzi Komunitarioko Leku bezala proposatua (ES2120010)
- ♣ **Iñurritza:** Garrantzi Komunitarioko Leku bezala proposatua (ES2120009) eta Biotopo Babestu gisa deklaratu otsailaren 25eko, 40/97 Dekretuaren bitartez, 1997ko martxoaren 11an argitara emana Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialeko 48 zk.an.
- ♣ **Pagoeta:** Garrantzi Komunitarioko Leku bezala proposatua (ES2120006) eta Parke Natural gisa deklaratu irailaren 29ko 254/98 Dekretuaren bitartez, 1998ko urriaren 28an argitara emana Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialeko 208 zk.an.

Baliabideen Antolamendu Planaren Onespena irailaren 29ko 253/98 Dekreturen bidez gauzatu zen, 1998ko urriaren 28an argitara emana Euskal Autonomia

Erkidegoko Aldizkari Ofizialeko 205 zk.an. Gaur egun, Erabilera eta Kudeaketa Plan Zuzentzailea lantze prozesuan aurkitzen da.

- ♣ **Ernio-Gatzume:** Garrantzi Komunitarioko Leku bezala proposatua (ES2120008)
- ♣ **Urolako itsasadarra:** Garrantzi Komunitarioko Leku bezala proposatua (ES2120004)
- ♣ **Getariako artelatza (*Quercus suber*):** Zuhaitz Berezi bezala deklaratu maiatzaren 16ko 265/1995 Dekretuaren bitartez.
- ♣ **Pagoetako hagina (*Taxus baccata*):** Zuhaitz Berezi bezala deklaratu otsailaren 11ko 23/1997 Dekretuaren bitartez.
- ♣ **Aizarnazabalgo artea (*Quercus ilex ilex*):** Zuhaitz Berezi bezala deklaratu maiatzaren 15eko 265/1995 Dekretuaren bitartez.

6.3. Ondare Naturala eta Paisaia Kontserbatzeko Intereseko Eremuak

6.3.1. Natura Intereseko Guneak LAA- ren arabera

- **Mendizorrotzeko errekak:** Arkumetegi eta Egiluze errekak eta hauen inguruetan dauden lurak barne hartzen dituen eremua. Area honek, baso erabilera duela har daitekeena, sarritan suteak jasaten ditu eta gaur egun ia guztiz soilduta dago.
- **Aginagako urtegia:** 1ha baino txikiagoa den urtegia, Oriaren arroan kokatua. Urtegiaren sarreran haltzadi handia mantentzen da oraindik, eta bere perimetroan sahats eta haltzadi zuhaitzi errenkada ikus daiteke.
- **Getariako San Anton:** hegai malkartsu eta itsaslabar ugari duen haitza, “Getariako Sagua” izenez ezagutua, muinoak perfilez ikusirik duen itxuragatik
- **Aitzuri-Zumaia Punta:** 7 Km inguruko luzera duen itsaslabarra, eta oinarrian itsasbeheran bistan geratzen diren urradura plataformak ditu ezaugarritzat. Paisaia ederrak eskaintzen ditu eta nazioarte mailan garrantzi geologiko aipagarria dauka harri sedimentarioen azaleramenduaren kalitatea dela eta. Txoko ekologikoen aniztasunak baldintza ezin hobeak eskaintzen ditu itsas fauna eta landarediak ordezkatzua egon dadin. Kostaldeko gune iristerrazenetan

atseden-erabilera sakabanaturik ageri da, paisaia eraso puntualak eraginez zaborren isurketa, egoera txarrean dauden pista, txabola, etab.-en erruz.

6.3.2. Garrantzi Geologikoa duten puntu eta areak

Laurgaingo pipping-prozesua: pipping bidezko higadura, lursailean hondoratze txikiak sortzen dituen. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: tokikoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: altua

Orioko trenbidearen zehar-ebakia: Tertziariko Flysh-ari dagozkion itsas sakoneko haizemaileak gainjartzen zaizkion Daninienseko bretxa kanalizatuak dituen ebakidura estratigrafikoa. Funtzionamendu luzeko garrantzizko itsaspeko kanoiaren existentzia iradokitzen du. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: eskualdekoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: baxua

Getariako Sagua: itsasoaren higadurak eta haizeak trinkotasun desberdinetako materialetan eragiten duen egiturari erantzuten dio. Saguaren itxura ondoz-ondoko eta mailakatutako bi lautzeri dagozkie, gorputza eta buruaren irudia itxuratzen dutelarik hurrenez hurren.

Almizarro erreka dike naturalak: Zarauzko lautadan Almizarro erreka eraikitako dike naturalak. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: tokikoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: altua

Mugarazko azalerak: Aiako udalerrian kokatzen diren Pliokuaternario-Kuaternarioko ondo antolatu eta mantendutako higadura azalaren multzoa. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: eskualdekoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: baxua

Ibarrola erreka dolinak: Daninienseko kareharrien gainean garatutako eta kuaternarioko Altxerriko multzo karstikoa osatzen duten Ibarrola haraneko dolinak, Aiako udalerrian kokatuak. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: eskualdekoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: altua

Altxerriko kobazuloa: Aiako udalerrian kokatutako Daninienseko kareharrietan garatutako barrunbe karstikoa, ia 2 Km-tan zehar garatuta. Goi-Magdalenienenseko grabatu eta pinturak dauzka. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: nazioartekoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: altua

Arratzubiterra etxeko terrazak: Bero Erreka haranean kokatutako kuaternarioko terraza eta metaketa mailak. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: tokikoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: altua

Ziortzako azalera: Aiako udalerrian 380 m-ko kotan kokatutako eta egoeran oso onean mantentzen den higadura-azalera. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: tokikoa
- Irisgarritasuna: txarra
- Urrakortasuna: baxua

Orioko itsas labarra, Agitiko hondartza: egitura geologikoak zuzentzen duen itsaslabarra, material turbiditiko distal eta harea-multzo lodi tartekatuez osatua, itsasora zuzentzen den monoklinalez eratutako abaniko sakonei dagokiena. Paisaiaren kalitate altua nabarmentzen da. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: nazionala
- Irisgarritasuna: erregularra
- Urrakortasuna: baxua

Oria ibaiko estuarioa: Oria ibaiari lotutako itsasertzeko metaketa-multzoak. Bertan ibai-mareen metaketak bereizten dira. Gaur egun padura eremuak lehortuta daude eta hondartza-duna multzoa nahiko hondatuta dago. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: tokikoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: altua

Benta auzoko azalera eta Nick point-a: gaur egungo hegalaren higadura dela eta Nick-point maldako haustura gunean andeatuta dagoen 50 m altuerako azalera. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: tokikoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: baxua

Berastegiko tolesak: Traza axial azpihorizontala duten tolesdurak, Indamendi-Cestona-Pagoeta unitatea Arrona-Getaria-Urdaneta unitatean gainjarritz iparraldera eginiko traslazioak eragindakoak. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: tokikoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: baxua

Zuazo Etxeko higadura-azalerak: Ondo mantendutako eta 100,120,150, eta 190 metroko kotetan agertzen diren gainazal-partzial lautze erako higadura-azalerak. Ibai edo/eta lautze jatorria dute. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: tokikoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: baxua

Zarauzko sakonunea: klima hezeetan ohizkoa den azpi-higaduraz sortutako tanga, Keuper-eko diapiro baten sabaiaren higadurak eragina eta 30 metroko kuaternarioko materialez estalia, hondartza-duna-padura sistema batean. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: eskualdekoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: baxua

Aranburuko higadura-metaketako prozesuak: sulifluxio bidezko higadura, hegala-labainketa eta hegaleko kolubioi eraketa. Honako ezaugarriak ditu:

- Garrantzi maila: tokikoa
- Irisgarritasuna: ona
- Urrakortasuna: altua

Iribarrengo harrieta zementatua: kaltzio karbonatoz zementatutako harkoskoz eratutako kolubioi erdi-konikoa,. Bere garrantzia zientifiko-didaktikoa ertain-altua da .

Kostaldeko Itsas labarren zerrenda: Deba eta Getaria arteko kostako lerroa. Higadura prozesu eraginkorra dela eta atzera egin du lerro honek. Paisaia kalitatea altua nabarmentzen da eta garrantzi estratigrafiko, geomorfologiko, prozesuzko, zientifiko eta didaktikoa ditu ezaugarritzat. Urrakortasun altuko eremua da eta Getariako Sagua inguratzen du.

Askizu-Getariako itsas zabalgunek: Ibai-sare hasiberri batek arinki ukitutako azalera zabala eta apur bat uhindua, Ipar ertza mozten duen itsaslabarrean kokatua, hegaldetik mendi-hegal leunen fronte batek mugatzen duena. Garrantzi geomorfologiko, zientifiko eta didaktikoa dauka. Urrakortasun ertaineko eremua da.

Altzoko Harria: Kosta lerroan geruza batzuen gainazala eta korrante aztarnak antzeman daitezke. Bere interesa estratigrafikoa, zientifikoa eta didaktikoa da. Hauskortasun handiko gune kontsideratuta dago..

Aizarna-Zestoako Poljea

Iraetako meandroa

Autobideko tolesturak

Etzadiko tolesturak

Urola ibai ahoa

6.3.3. Beste interes gune batzuk

Indarrean dauden Orioko AASS-en arabera, Lur Hiritarrezinean sistema orokorren baitan dauden eta beren helburutzat gehienbat lurraren ustiapena duten eremu guztiak “Nekazal lurra” izendatzen dira.

Aipaturiko arauetan hainbat kategoria ezartzen dira morfologia, ekoizpen eta okupazio baldintzen arabera eta baita beren baitako balioen babes motaren arabera ere; honen ondorioz erabilpen eta eraikuntzarako araudi ezberdinak sortzen direlarik.

Ondoko guneak ezberdintzen dira:

- **Baso guneak:** Kukuarri mendiaren itsasaldeko isurialdea, labar eremuarekiko hegale nahikoa paraleloa. Era berean, Kukuarri eta Txoriatzeko Hegoaldeko hegale lerroak eta Txarako haitza. Paisaia berreskuratzeko eta bertako basoa babesteko eremuekin osatzen da, egungo baso autoktonozko irle jarraipena ematearren.
- **Nekazaritza/abeltzaintzako eremua eta landazabala:** Manotako nekazaritza/abeltzaintza intentsiboko guneak nekazal balio altua du.
- **Babes bereziko eremua:** ondoko eremuak ezberdintzen dira:
 - o Arkeologia babesteko eremua: Tontortxiki eta Arkumetegiko Haitza.
 - o Natura babesteko eremua: Saikolako urtegiko eremua eta Lezkadi Urbede erreka toaren bailara.
 - o Paisaia babesteko eremua: Mendizorrotzeko labarrak eta kanpin ingurua. Era berean Kukuarri eta Tontortxikiren jarraipen lerroak osatzen duten gailur eremua aipatzen dira.
 - o Bertako basoen eremua: Kukuarrin, Txabolako Erreka eremuan, Txanaka Errekan eta Saikolako Erreka inguruan irlak osatzen ditu baso autoktonoak.
 - o Hondartza eremua: Antilla eta Oribazargo hondartzak.
 - o Hirigunea babesteko eremua: Bikamiota eta Hondartza inguruko herri ertza eta Aizperroko eremu industrialaren inguruak; Luzarboko landa parkea ere jasotzen da, berau handitzeko aukera aipatuaz.
 - o Akuiferoak: akuiferoak babesteko eremua aipatzen da (zaugarritasun maila maximoa “ertaina” da). Kosta eta lurrazaleko urak babesteko lerroa.

- Ingurumen hobekuntzako eremuak:
 - o Paisaia babesteko eremuak: baso eremuez gain, lur mugimendu nabaria jasan duen Aganderuko hegala aipatzen dira
 - o Basoa berreskuratzeko eremua.
 - o Motondo: Natur intereseko eremua Santiago erreka aldera mugatzen den arren, erribera eremu honetarako Plan berezi bat egin beharko dela baiesten da eremu honetan egin litekeena zehaztuz.

6.4 . Ingurune naturala biziberritzeko proiektuak

Hegoaldeko Zuhaitz-Igelaren Kudeaketa Plana (*Hyla meridionalis*)

Gipuzkoako Foru Aldundia, hegoaldeko zuhaitz-igela banatzen den gunetan urmael batzuk eraikitzen ari da, bere ugalketarako gune egokiak erdiesteko asmoz.

Ugalketarako behin-betiko barrutiak eraikita daudenean, urmael berriak legalki babestuak geratuko dira.

Hegoaldeko zuhaitz-igelaren populazioak berreskuratzeko planaren exekuzioak Mendizorrotz mendigune guztian zehar urmael berriak eraikitzea dakar, eta birsartze programa batekiko paraleloki garatzen da, populazio egonkortuetako indibiduo helduak, gazteak eta larba egoeran daudenak urmael berrietara lekualdatuz.

Zentzu honetan, Orioko hondartzatik gertu, Hondartza eremuko urbanizazio eremu berrian, urmael bat eraikitzea aurreikusita dago, Diputazioko Programa osatzeko eta 80ko hamarkada inguruan jada ezaguna zen barrutian habitat bat berreskuratzeko.

Galzorian dagoen Eskualdeko Faunarekin erlazionaturiko Planak

Urola Kostan galzorian dauden espezieen kudeaketarako eginiko Planak jarraian aipatzen dira:

- Izokina (*Salmo salar*): Berreskurapen Plana egin da eta jada martxan dago.
- Hegoaldeko Zuhaitz-Igela (*Hyla meridionalis*): bere Kudeaketa Planak Igeldo-Mendizorrotz mendikate guztian berreskuratzea aurreikusten du, eta beraz Orioraino sartzen saiatzen ari dira.
- Eskulapioaren sugea (*Elaphe longissima*): ez da ekintza berezirik egin.

- Hegaztiak: faunaren atalean aipaturiko espezieak hegazti babestuen zerrendatik gure eskualdean kumatzen dutenen arteko esanguratsuenak izan litezke eta, beraiekin modu batean edo bestean jarraipena egin izan zaie. Espezie hauentzat, gehienentzat bezala, mehatxu faktorerik eraginkorrena habitataren desagerpen edo eraldaketa batetik eta kumatze garaiko asaldatzeak dira bestetik. Habien kokapena jakiteak inoiz baliagarria izan da mehatxu horiek ekiditeko. Bestalde, babestutako natur guneetan (Pagoeta, Iñurritza) kokapen horiek babesteko lan zehatzak egin dira.

- Bisoi europarra (*Mustela lutreola*): Jarraipen estua egiten zaio batik bat eskualdean ditugulako espeziearen areriorik handienarekin (bisoi amerikarra-*Mustela vison*) lan egiten duen haztegi bat. Bisoiak tranpeatu egiten dira, bertakoak askatu eta datuak jaso eta amerikarrak, aldiz, sakrifikatu.

7. LURRALDE PLANEAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA

7.1. Lurralde eremua

7.1.1. Udalerrriaren kokapena eta garrantzia Gipuzkoan

Urola-Kostako Eskualde-Egitura Gipuzkoako Lurralde Historikoko gainerako Eskualde-Egiturekin muga egiten duen bakarra da, eta horrek zalantzan jarri ezin den zentraltasuneko baldintzak gaineratzen dizkio Eskualde-Egitura honi. Toloserriko Eskualde-Egiturarekin batera, Gipuzkoako espaziorik dinamikoenarekin –Donostialdea eta Bidasoa Beherearekin– zuzenean muga egiten duen Eskualde-Egitura bakarra da. Gainera, Baiona eta Donostia artean sendotuz joan nahi duen mugaz gaindiko metropoli berriaren mendebaldean zuzenean kokatuta dago.

Donostia-Beterriko Eskualde-Egitura kanpo utzita, Urola-Kostakoa dugu Gipuzkoan 8.000 biztanletik gorako hirigune gehien dituen, lurralde-oreka onaren lekuko. 2000ko abenduaren 31ko erroldaren arabera, 66.500 biztanle inguru dago lurralde horretan. Hortaz, lurraldearen batez besteko dentsitatea 2 bizt./ha-koa da, Gipuzkoako batez bestekoa baino askoz txikiago (%60 inguru txikiagoa).

Eskualde-Egiturak ehun ekonomiko garrantzitsua du, batez ere industrian oinarritua, biztanle bakoitzeko industria-lurzoruko 50 m² gordineko ratioak erakusten duen legez. Industriaz gain, beste jarduera batzuk ere garatzen dira. Hortaz, Eskualde-Egitura honetako ekonomia askotarikoa da.

Eskualdean langabezia tasa Euskal Autonomia Erkidegoko osotasuneko batez bestekoaren oso azpitik dago, egoera honek okupazioari dagokionez dinamika berriak, aktiboen proportzioa neurri handian gehitzea esate baterako aurreikusteko aukera ematen duelarik.

7.1.2. Udalerrriaren kokapena eta garrantzia eskualdean

Oriok herri txiki arrantzalearen izaera izan du, baina gaur egun aldatzen ari da. Kantauriar itsasoaren ertzean kokatua, itsasoarekin lotuta egon da beti. Gaur egun Orion duela 10 urte baino itsasontzi gutxiago dago. Arrantzaren presentzia nabarmenki jaitsi da.

Orio jatorrian, Donostiako jurisdikzioaren mendeko populazio eskaseko portuko herrixka bat izan zen. 1379an *Villarreal de San Nicolás de Orio* izenez herri bat fundatzeko Hiri-gutuna eta Donostiako Foroa egiletsi zitzaien bertako biztanleei. Herria, San Nikolas de Bari eliza nagusitzen den alde zaharraren inguruan hazten joan da geroztik.

Orioko lurraldean itsasoa, ibaia eta mendia batzen dira, ezaugarri nagusi honek edertasun eta barietate naturalaz hornitzen duelarik. Mendeetan zehar herria Santiagoko Bideari lotuta egon da, Hendaiatik zetozen eta Santiago de Compostelara zihoazen erromesak herritik igarotzen baitziren.

Traineruak herri txiki honetako kirol nagusia dira. Orioko Traineru baten partehartzearen lehen erreferentzi idatzi ofiziala 1879ko Donostiako Kontxako Estropaden lehen ediziokoa da. 1965an Arraun Elkartea sortu zen “Club de Remo Olímpico de Orio” izendatua. Gaur egungo elkartearen izen ofiziala “Club de Remo Olímpico ORIO Arraunketa Elkartea” da.

7.1.3. Herriguneak eta hauen arteko distantziak.

Orioko hirigune nagusiaz gain, badira ondoko beste gunek: Benta 6,4 km-tara eta Ortzaika, 1,5 km-tara. Hauen administrazioa Orioko Udalaren esku dago.

7.2. Udalerrian Eragina Duen Antolamendu Orokorra

7.2.1. Lurralde Antolamenduaren Jarraibideak

Aztergai diren udalerriak Urola-Kosta eskualdeko Azpeitia-Zarautz Eskualde-Egituran sartzen dira. Zarautz eta Azpeitia aipaturiko Eskualde-Egituraren buru dira. Lehenengoa Orio, Aia, Getaria eta Zumaia udalerrien gain gailentzen da, eta bigarrena Aizarnazabal eta Zestoaren gain.

Ingurune Fisikoaren Antolamenduak Interes Naturalistikoa duten eremuen zerrenda proposatzen du, ondokoak jasotzen dituelarik:

- | | |
|---------------------------|--------------------------------|
| - Pagoeta | - Inurritzako Dunak eta Erreka |
| - Getariako San Anton | - Garate–Santa Barbara |
| - Mendizorrotzeko errekak | - Aginagako urtegia |
| - Punta Aitzuri–Zumaia | - Oriako itsasadarreko Padurak |

- Urola itsasadarra
- Ernio-Gatzume

Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio eta Aia udalerriak oinarri endogenoko bigarren egoitza moduan proposatzen dira.

Aia lurralderako sarbide nukleoa izanik, aisiarako eremu sistema moduan ondokoak proposatzen dira:

- Pagoeta-Ernio-Andatza
- Itxurungo hondartza
- Santiagoko hondartza
- Orruagako hondartza
- Gaztetapeko hondartza
- Malkorbeko hondartza
- Zarauzko hondartza
- Antillako hondartza

Jarraibide partikularren barruan ondoko proposamenak definitzen dira:

- A-8 bidez Bilbo Donostiarekin lotzea.
- Zarautz eta Azpeitia-Azkoitia arteko oinarritzko konexioa.
- Zumaia, Getaria eta Zarautz lotzen dituen N-634 tramua egokitzea.
- Kalitate handiko aldiriko trenen zerbitzua, Zumaia, Zarautz eta Orion, beste batzuen artean, Donostialderakoak bermatuz.

Zumaia, Orio eta Getariako hirigune historikoen dinamizazioa proposatzen da.

Azkenik, Zumaia, Aizarnazabal eta Zestoa “5 Industriazko Paisaia Multzoa”-ren parte dira, industria paisaiaren hobekuntza-ekimenen garapenerako esparru moduan proposatzen delarik.

7.2.2. Lurralde Zatikako Plana

Diagnostikaturiko udalerriak Azpeitia-Zarautz Eskualde-Egitura dagokion Lurralde Zatikako Planaren barruan aurkitzen dira.

Aipatu Planean lau Lurralde Eremu (L.E.) bereizten dira:

- Mendebaldeko Kostako L.E.: Urola eta Narrondoko ibaien bokalea, Iraetaraino.
- Erdialdeko Kostako L.E.: Getaria eta Zarauzko kostaldea, Orruagatik Inurritzaraino, barrualderantz Pagoeta eta Aia arte zabalduz.
- Ekialdeko Kostako L.E.: Oria ibaiaren bokalea eta Santio erreka, San Pedroraino hegoaldean.

- Iraurgiko L.E.: Iraurgiko harana eta mendebaldean, hegoaldean eta ekialdean besarkatzen duen zirku menditsua-Izarraitz, Irukurutzeta, Oleta, Murumendi, Ernio eta Gatzume, Zestoa eta Aizarnako hiriguneetarako iparraldean.

Eskualde-Egiturako egonlekuak garatzeko prozesua bideratzeko eta oreka egokia lor dadin saiatzeko ondoko jarduketak jo dira lehentasunezko ekintza gisa: Urola eta Narrondo ibaien bokalean hirigune bat finka dadin sustatzea, Zumaia Arroarantz hedatuz; gutxienez 100 biztanletik beherako hiriguneen tamaina murrizteko prozesua eten dadin saiatzea (Aiako eta Errezilgo hiriguneak eta beste gune batzuk); eta berrorekatzeko proposamen horien esparruan, Zarautzen hazkunde eta dinamismo kontrolatuagoa bultzatzea.

Ildo horretan, Oria ibaiaren bokalean hirigune bat finkatzea proposatu da bigarren lehentasunezko ekintza gisa.

Bestalde, lehentasunezko maila batean, kostarekiko paraleloa den barrualdeko ardatzean eta Urola haranaren ardatzean, bide-azpiegiturak eta trenbide-azpiegiturak hobetzeko premia nabarmentzen da, bai eta Zumaiako eta Zarauzko zeharbideak egitea ere, Getariarako irispidea errazteko.

Errepide sareari dagokionez, jasotako **aurreikuspenak** ondorengoak dira:

- A-8 autobidea indartzea, Orion, Txankan hain zuzen ere, beste lotune berri bat burutzea aurreikusten delarik.
- Eskualde-Egiturako hiri arteko komunikazioa egituratuko duen ardatz gisa Zarautz/ Azkoitia-Azpeitia/ Zumarraga bide-ardatza hobetzeko beharra. Ildo horretan, bide-sarea berritzea proposatzen da. Iparraldean gauzatzen den ekialde-mendebalde norabideko ardatza Zarautz eta Arroa artean bitan banatuko da. Batek kostaldeko trazadurari jarraituko dio Getarian zehar, eta besteak barrualdetik joko du Meagas eta Oikian barrena. Bestalde, mendebaldean iparraldetik hegoalderako ardatza ere proposatzen da, Arroa eta Zumarraga lotuko dituen.
- **Tokiko sarbide-sarean** Oikia eta Iraeta artean GI-2633 errepidea hobetzea planteatzen da. Egin beharreko esku-hartzeen artean Meagatik Txikierrako errepidearekin eta GI-631 errepidearekin dituen lotuneetan beharrezko jarduketak azpimarratzen dira, Urolan zubi berri bat egiteko aurreikuspena ere kontuan hartzen delarik.

- Tokiko **sarbide-sare sekundarioan** zera proposatzen da:
 - o GI-2631 errepidea Orioko gaina eta Andazarrate artean. Errepide honen bide-zorua hobetu eta Aiarako sarbideak antolatzeko esku hartu.
 - o Orioko hondartzarako sarbidea Txankatik.
 - o GI-3710 errepidea Orio eta Aia artean, San Pedrotik barrena. Errepidea orokorrean hobetu eta bere bi muturren lotuneak birmoldatu. Gainera, Santioko hirigunearen saihesbidea ebatzi behar da.
 - o GI-3391 errepidea Meagas eta Getaria (San Prudentzio) artean. Iparraldeko ardatz egituratzailea bitan banatzen da eta bi trazadura horien eta Getariarako sarbidearen arteko lotura erraztuko duen beste bide bat burutzea proposatzen da.
- **Trenbide sarean** hartutako neurriak:
 - o Ipar ardatza finkatzeko (Eskualde-Egitura Aginagatik Arroaz harantzago, Debarako norabidean, zeharkatzen du) ezinbestekoak dira ondoko jarduketak: sarea bitan banatzea, Aia-Orioko trenbide-pasagunea ezabatzea eta Orioko geltokia birmoldatzea, Zarauzko herrigunean hiri-integrazioa hobetzea, Zumaiaiko geltokia birmoldatzea, Basusta hegoaldean eta Narrondon beste geltoki batzuk egitea eta azkenik Arroako geltokia hobetzea (Zestoa).
 - o Zumaia eta Zumarraga lotzen dituen Ekialdeko ardatza berreskuratzeko beharrezkoa da bertan behera utzitako antzinako trazadurari trenbide-erabilera itzultzea, trazadura eten egiten duten guneeetan beste trazadura batzuk aurreikustea.

Urola bailaran proposatzen den bidegorri-ardatz horren trazadura zehazteko, behar-beharrezkotzat jo da ekimen hori koordinaturik burutzea GI-631 errepiderako planteatu diren egokitzapen, zuzenketa eta hobekuntza obrekin, eta errepide horrek uzten dituen espazioak leheneratzea eta finkatzen diren espazioak eranstea.

Era berean, Planean oinezkoentzako ibilbide bat antolatzea hartzen da aintzat. Ibilbide horrek kostaldeko muinoak zeharkatuko ditu Kukuarri eta Igeldotik, ekialdean, Endata lur-muturra eta Debaraino, mendebaldean. Orioko hirigunea zeharkatuko du eta Oriaren beste aldean dagoen Txurruka aterpetik Inurritzaraino joko du. Zarauzko itsas pasealekua zeharkatu ondoren, Vista Alegre eta Santa Barbarara joko du

Getariara heltzeko. Ondoren, Askizutik barrena Zumaia iritsiko da Itziarrerantz jotzeko. Ibilbide hori lehentasunez kostaldeko Santiago-bideari egokituko zaio.

Iparraldeko oinezkoentzako ardatz horrez gain, Gipuzkoa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen mendiko ibilbide historiko bati Eskualde-Egituran dagokion tartea finkatzea aurreikusten da. Mendiko ibilbide hori Donostiatik Arantzazu eta Arabara jotzen du eta esparrua Iturriotzetik Murumendiraino zeharkatzen du.

Bestalde, dimentsio txikiagoko baino aurreikus daitekeenez fluxu handiagoa izango duten oinezkoentzako beste ibilbide batzuk ezartzea edo egokitzea proiektatzen da. Azkoitia-Azpeitia ibilbidea Loiolatik barrena; Oria ibaiaren itsasadarraren eskuinaldeko ur-bazterreko ibilbidea; Zarautz eta Getaria arteko ibilbidea kostaldetik; eta Narrondo ibaiaren itsasadarraren ur-bazterreko ibilbidea Arroa Bekotik Zumaia itsasargiraino.

Sare orokor batetaz baliatzen ez diren Aia, Aizarna eta beste herrigune, auzo eta landagunetarako behar bezalako ur-hornidura taxutzea aurreikusten da.

Saneamenduaren arloan, batetik Mendebaldeko Kostaren saneamendu-sarea egiten da, eta dagokion araztegia Basustan kokatzen da. Sarea Urola eta Narrondo itsasadarretatik uretan gora zabaltzea proiektatzen da.

Bestetik Erdialdeko eta Ekialdeko Kostako lurralde esparruetako isurketak biltzen dituen sarea, dagokion araztegia Inurritzan izango duelarik eta azkenik, Getariako hiriguneari zerbitzu egingo dion beste sare bat, eta bere araztegia Getariako portuan bertan kokatzea aurreikusten da.

Ekipamendu eta espazio libreei dagokienez ondoko jardura egituratzaile zehatzak aurreikusi dira:

Eskualde-Egituraren kulturagune nagusia Zarautzen finkatzea eta Santa Klaran ezartzea proposatu da.

Elkanoren irudiaren inguruan zentro tematiko bat sortzea Getariako portuaren ingurunean.

Gaur egungo historiaurreko aztarnategien inguruan Zestoako Ekain eta Irikaizko parke tematikoak garatzea eta integratzea.

Zestoako Hiri Termalaren proiektua garatzea.

Gaur egungo museoak finkatzea (Balenciaga Getarian, Zuloaga eta Beobide Zumaian, eta abar) eta museo berrietarako proposamenak (arraunari buruzkoa Orion, ontziolei buruzkoa Zumaian, eta abar).

Orio, Zarautz eta Zumaian kirol instalazioak finkatzea.

Pagoetako atsedeen-eremuaren ezarpena eta ekimen berriak sustatuko dira, hala nola Astiko erreka-ondoan parke lineal bat sortzea Zarautzen eta azalera handiko parke bat eraikitzea Ezkabason (Zumaia eta Zestoa).

Orio eta Santiagoko (Zumaia) atsedenerako hondartzak finkatzea.

Zumaia, Getaria eta Orion Kirol-portuen zuzkidura garatzea.

Zarautzen suhiltzaile-parkea finkatzea.

Aia, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Zestoa eta Aizarnako hirigune historikoen birgaitze prozesuei jarraipena ematea.

Zarauzko Zalbide zahar eta Zelaiondo bizitegi-auzoak birgaitzea proposatzen da eta Salberdin eta Egoalden (Zarautzen), Indaux-en (Getarian), Txikierdi eta Narrondon (Zumaian), Rezolan Arroa-behekoan (Zestoa) hiri-eraberritzea.

7.2.3. Lurraldearen Arloko Planak (LAP)

Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAP. Isurialde Kantauriarra

Ibaiertzak eta erreka-ertzak ondoren adierazi bezala banatzen dira zonatan edo/eta ibaitartetan:

- Ertzak zonatan banatzea ingurugiro-osagaiaren arabera
- Ibaibideak ibaitarteetan banatzea beren arro hidraulikoen arabera.
- Ertzak zonatan banatzea beren hirigintza osagaiaren arabera

Banaketa honen arabera Oria, Urola, Inurritza eta Narrondo arroe i erreferentzi egiten dioten arloak ondokoak dira:

Oria ibaiaren arroan:

Beren ertzak berreskuratzeko premia duten ibaitarte gisa Motondo inguruko padura proposatu da beste batzuen artean.

Hirigintza-alderdi adierazgarri gisa, Oriako eskuineko ibaiertzean kokaturiko Orioko hirigune historikoa adierazten da, Monumentu-Multzo deklaraturia.

Bestalde, ibaiertz batean kokatutako interes kulturalako elementu gisa Agorregi Burdinola adierazi da, Manterola eta Iturriko erreken elkargunean, Aiako Artxodi ibai arroaren goi-ibarrean dagoena.

Urola ibaiaren arroan:

Zumaian Oikiako industria-poligonotik aurrera degradatutako ibaiertzak ikus daitezke gehienbat eta azkeneko ibaitartean, Bedua ibaian behera, paduraren hondar batzuk ikus daitezke, hauek eta Artadi izenez ezaguna den artadiak interes naturalistiko eta paisajistiko nabaria ematen diote zona honi.

Urola ibaiaren eskuinaldeko ertzean (PK 16,4) berreskuratzeko esku-hartzeak egiteko proposatzen da.

Urola ibaiaren arroan kultur interesa duten honako zubi hauek daudela adierazten da:

- Iraeta zubi Urola ibaiaren gainekoa. 15,1 Km. (Zestoa).B.8. Iraeta.
- Zubiaurre zubi Urola ibaiaren gainekoa 17,4 Km. (Zestoa).B.19. Zubiaurre

Inurritza ibaiaren arroan:

Inurritza ibaiaren bokalearen inguruko espazioa babestutako biotopo deklaraturia dago eta Pagoeta Parke Naturalaren zati bat arro honetan dago.

Inurritza edo San Pelaio ibaiarekin hainbat erreka txikik egiten dute bat Zarauzko ibarraren beheko aldean. Horietako batek, Irain errekek, urpean geratzeko arrisku larria sortzen du Zarauzko herrigunean. Hori dela eta, Santa Barbara mendiaren azpiko tunel baten bidez zuzenean itsasora irteteko proiektua egin da.

Narrondo ibaiaren arroan:

Epe luzera arroaren ubide nagusietan dauden estaldurak pixkanaka kentzeko politika proposatu da Zumaian:

- Narrondo. 1,5 Km. (Galvanizados Olaizola) (20 Km²)
- Narrondo. 2,0 Km. (Cementos Rezola) (18 Km²)

Horrezaz gain erreka txikietan beste estaldura batzuk izatearen ondorioz sortutako arazo hidraulikoak berrikustea ere proposatzen da.

EAEko Trenbide Sarearen LAP

Euskal Herriko Trenbide Sare berria ez da Urola Kostako Eskualde-Egituratik igarotzen. Hala ere, Trenbide sare propioari dagokionez, berau osatzeko aukera proposatzen da.

Hezeguneen LAP

II Multzoaren barruan, Itsasaldeko hezegune naturalen artean, ondoko ibai/padura sistemak (barreradun estuarioak) adierazten dira:

- Urolaren itsasadarra:

Zumaia eta Zestoa udalerrietan eragiten du eta antolamendu esparruan ondoko mailak bereizten dira:

Babes Berezia	Ingurumen Hobekuntza		Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala
	Ekosistemen hobekuntzarako inguruneak	Berreskuratu beharreko gunen degradatuak	
Santiagoko Padura eta Dunak	Santiagoko Hondartza	Narrondoko Ibarra	Santiago Baserriko Landazabala
Erdiko tarteko Uhartetxoak	Bedua Auzoa	Torrontegi Ibarra	Ibarraldeko Ibarra
Erdiko tarteko Lokatzak eta Padurak			

- **Iñurritzaren itsasadarra:** (40/1997ko Dekretuak Biotopo Babestu bezala adierazi gabeko esparrua, eta bere ingurune babeslean/babeserako periferi gunean ere sartu gabea).

Zarautz udalerrian eragiten du eta antolamendu esparruan ondoko mailak bereizten dira:

Ingurumen Hobekuntza	
Ekosistemen hobekuntzarako inguruneak	Berreskuratu beharreko gune degradatuak
Bidezubiaren iparraldea	Azkenportuko Landazabala
Hondartza	Asti

- **Oriaren itsasadarra:**

Orio eta Aia udalerrietan eragiten du eta antolamendu esparruan ondoko mailak bereizten dira:

Babes Berezia	Ingurumen Hobekuntza		Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala
	Ekosistemen hobekuntzarako inguruneak	Berreskuratu beharreko gune degradatuak	
Santiagoko Padura	Antillako hondartzak eta hareatzak	Altxerriko Ibarra	Erriberako Ibarra
Donparnasako Padura	Itsasaldi arteko Lokatzak. Kanpoaldea	Anibarko Portua	Sariako Ibarra
Olaberrietako Padura	Itsasaldi arteko Lokatzak. Erdialdea		Izoztegiko Urbazterrak
Altxerriko Ibarrek eta Padurak	Itsasaldi arteko Lokatzak. Aurrealdea		
Santiagoko Ibarrek eta Padurak	Cerrado de Motondoko Hondartzak eta Hareatzak		

III Multzoaren barruan ondokoak bereizten dira:

- Bisusbideko Putzua Zestoan: kare-harrietako barrualdeko hezegune naturala.
- Orio-Aginagako (Sarikola) urtegia: hezegune artifiziaia.

Itsasertza Antolatze eta Babesteko LAP

LAParen antolamendu esparru bezala definitzen da Kosten Legeari definitutako Eraginpeko Eremua: “500 metro itsasertzeko barruko mugatik neurtutako zabalera minimoko zerrenda”. Era berean, zona hau hedagarriagoa egiten da ibaiertzetik marearen eragina sentikorragoa bihurtzen den tokiraino. Euskal Herriko kasuan itsasmailatik 5m-ko kota izanik.

Ondoko antolamendu mailak definitzen dira: *Babes Berezia, Babes Zorrotz Berezia, Babes Berezi Bateragarria, Babestu Beharreko Ingurune Degradatua, Baso Zaintzekoa, Basogintza Intentsiboa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Gunea eta Landazabala eta Erabilera Berezi inguruak.*

Maila murrizgarrien barruan ondoko guneak agertzen dira:

Babes Berezia	Babes Zorrotz Berezia
Punta Aitzuri itsasertzeko eremua- Zumaia	60º-tik gorako malda duten kostaldeko labarrak
Santiagoko hondartzaurreko hareatza eta padura (Zumaia)	
Urolaren bokalea	Urradura-Plataformak
Getariako San Anton	Dunak
Garate – Santa Bárbara	Lurralde barneko itsasoko uharteak
Iñurritzako dunak eta itsasadarra	Hondartza naturalak: Itsaspe, Molarri, Ubiri, Orrua eta Aitzgorri
Oriaren itsasadarreko padura barrendegiak	
Mendizorrotzeko errekek	Ingurumen-balio handiko inguru bereziak

Ekonomia-Jarduketarako lurzoru publikoa eta merkataritza-ekipamenduak sortzeko LAP:

Urola Kostako Eskualde-Egitura (EE) bi azpigunetan oinarrituz egituratzen da: Zarautz, kostako eremuko nukleo nagusi gisa konfiguratzeko dena (Orio, Aia, Zarautz, Getaria) eta Azpeitia-Azkoitia gunea, Urola Erdiko zentro tradizionala. Bi azpigune hauen artean, tarteko posizioan, Zumaia, Zestoa eta Aizarnazabal aurkitzen dira.

Eskualde-Egiturak jarduketa ekonomikoetarako kalifikatutako 463 Ha lurzoru ditu guztira, hauetatik 318 Ha lurzoru okupatuari dagozkio eta 145 Ha lurzoru ez okupatuari.

Lurzoru erreserba nagusien analisia udalerriz udalerriz eginez gero, Orio, Aia eta Getarian lurzoru erreserba taxuzkorik ez dagoela ikus daiteke.

Proposatutako lurzoru erreserba nagusia Azpeitia, Azkoitia, Zumaia eta Zarauzko udalerrietan, eta, batez ere, Zestoako Arroabekoa poligono publiko berrian kontzentratzen da.

1990-2002 aldian Urola Kostako Eskualde-Egituran gertaturiko industria-lur okupazioaren gehikuntza 70 Ha ingurukoa izan dela kalkula daiteke, honek urteko 6 Ha inguruko batez besteko hazkuntza erritmoa adierazten duelarik.

Etorkizunean jarduera ekonomikoentzako lurzoru eskaera hipotetikoa betetzeko, 16 urteren ikusmugan, komenigarria izango da hazkuntza erritmoa asetzeko gai izango den lurzoru eskaintza aurreikustea Urola Kostako Eskualde-Egituran.

2002an jarduera ekonomikoentzako kalifikatutako lurzorua udalerriz udalerriz:

Udalerria	Lurzoru Okupatua	Lurzoru Librea	Lurzorua Guztira
Aia	21,63	12,70	34,33
Aizarnazabal	14,20	3,30	17,50
Getaria	9,62	-	9,62
Orio	1,67	-	1,67
Zarautz	40,76	17,99	58,75
Zestoa	20,71	41,16	61,87
Zumaia	63,53	20,30	83,82
Urola-Kostako EE GUZTIRA	318,29	145,30	463,59

Jarduera ekonomikoen garapenerako Lehenetasun Esparruen maparen arabera, bi udalerriz mota bereizten dira:

- ♣ Jarduera ekonomikoei dagokien lurzoru “hazkuntza orekatuko” udalerriz: Aia, Aizarnazabal, Getaria eta Orio.
- ♣ Jarduera ekonomikoei dagokien lurzoruaren antolamendua eta promozioa “lehenetasunezko interesa” duten udalerriz: Zarautz, Zestoa eta Zumaia.

7.3. Lurzoruaren Erabilera Eta Egungo Hirigintza Egitura

Indarrean dauden Orioko planeamenduko AASSen arabera, lurzoruen erabilera urbanistikoaren oinarrizko sistematizazioa ondokoa da:

- ♣ Bizitegitarako erabilerak
- ♣ Industri erabilerak
- ♣ Erabilera tertziarioak
- ♣ Landa erabilerak
- ♣ Komunikabideetarako erabilerak
- ♣ Espazio libreetarako erabilerak
- ♣ Komunitate-ekipamenduen erabilerak
- ♣ Zerbitzuetako azpiegituren erabilerak

7.3.1. Berdegune eta aisialdirako guneen azalera totala.

Antilla eta Orizabarko hondartzak, eta euren ingurune hurbilak, Udalerriko hiri-parke modura hartzen dira.

Egun, landa-lurrean titulartasun publikoa duen parke bat dago, Igeldoko errepidearen ertzean, *Luzarbe Parkea* bezala ezagutua. Atsedeen erabilera intentsiboko parke bat da, aldameneko lurretan zabalkuntzak baimenduz finkatzen delarik.

Haur parke gutxi daudela hautematen da. Gainera, daudenak ere ez daude egoera onean.

7.3.2. Azalera urbanizagarria eta urbanizaezina azalera totalarekiko

Udalerrian indarrean dauden AASSen arabera, erabilera desberdinetarako katalogaturiko azalerak ondorengoak dira:

- ♣ **Bizitegi Erabilera:**
 - Hiri Lurrean: 158.700 m²
 - Lurzoru Urbanizagarrian: 189.600 m²/
- ♣ **Industria Erabilera:**
 - Hiri Lurrean: 27.200 m²
 - Lurzoru Urbanizaezinean: 5.700 m²

Kopuru hauek kontutan hartuta, **bizitegi eta industria erabilerako** lurzoru azalera ondokoa da:

Bizitegi eta industria erabilerako lurzorua	AZALERA m²
Hiri Lurra	185.900
Lurzoru Urbanizagarria	189.600
Lurzoru Urbanizaezina	5.700
Guztira	381.200
Udalerriko Azalera Totala	9.800.000

Udalerrian kuantifikaturiko azalera totala 980 Ha izanik, **bizitegi eta industria erabilerako** azalera ratioak jarraian adierazten direnak dira:

- Hiri lurra / Lurzoru Osoa= 0,018 (1,89%)
- Lurzoru Urbanizagarria / Lurzoru Osoa = 0,019 (1,93%)
- Lurzoru Urbanizaezina / Lurzoru Osoa = 0,0006 (0,06%)

Garatutako guneak oso dentsitate altua agertzen dute -batez ere Pelotar, Iturbide eta Antziola- egun erabiltzen diren zona libreei dagozkien standarrak kontutan hartu ez direlako. Oinarrizko ekipamenduak ere falta dira, aparkalekuak adibidez. Gaur egun Orioko AASSak berrikuspen prozesuan dira, gabezioi neurri batean konponbidea aurkitzea planteatzen delarik.

7.4. Arau Subsidiarioen Analisia

Orioko udalerrian une hauetan indarrean dagoen udal dokumentu urbanistikoa 1990eko apirilaren 30ean onarturiko Arau Subsidiarioei dagokie.

2002ko martxoan udalerriko egoera urbanistikoaren diagnosia egin zen AASS berrien erredakzio lanen hasieran oinarri izateko.

Diagnosiaren ondorioetatik “lehen aurrerapen dokumentua” erredaktatu zen eta ondoren aurrerapen honen bigarren dokumentua, garatuagoa eta definituagoa aurkeztu zen.

Udalbatza eta batzorde desberdinetako ekarpenekin “AASSen Aurrerapena” osatu zen. Hauek bi hilabete eta erditan jendaurrean ipini ziren.

Jasotako iradokizunekin Aurrerapena osatu ondoren erredaktaturiko AASSen dokumentua hasierako onespena emateko erakusketa publikoan aurkitzen da egun.

7.4.1. Irizpide eta helburu orokorrak

Ikuspuntu generikotik, antolamendurako jasotako helburu eta irizpide orokorrak ondokoak dira:

- ♣ Hiri antolamendua egoera berrira egokitzea, udaletik kanpo egingo diren proiektuak direla eta (Orioko itsasadarreko Portuko Plan Berezia, A-8 Autobidearekin egingo den lotura eta Orioko Saihesbidea).
- ♣ Finkaturiko hiri-egituraren birsorkuntza fisikoa eta funtzionala, “Mutiozabal” ezkerreko marjinaren, “Cerámica Arocena” eta “Ensanche” inguruan batutako industria instalazioen erabileretan aldaketak eginez. Hirigune Historikoaren Birgaitze Plana. “Dike” zonako jarduketa proposamenaren berrikuspena. Gudari eta Iturbide kaleen artean kokatutako “uharte-patio”-en birsorkuntza.
- ♣ Lurzoruaren proposamen berriak “Azkue” eta “Hondartza” eremuen antolamendura egokitzea.
- ♣ Errekaren eskuinaldean, polikiroldegia jarraipen gisa, kirol eremu zabala sortzea, kokapen pribilegiatua duen espazioan.
- ♣ “Azkue” eta “Erribera” eremuen artean eta “Azkue”, “Bikamiota” eta “Hondartze” berri artean geratzen den espazio librea erabat betetzea.
- ♣ Itsasadarraren ertzean, kirol-porturaino, ekipamendu eta gune berdeen zerrenda bat sortzea.
- ♣ “Kofradiaren” parean zubi berri bat eraikitzea, CN-634 “Ensanche”ko zona berriarekin batuko duena, Hirigune Historikoaren peatonalizazio aurrerakorra baimenduz eta egungo zubiaren gallurrak suposatzen duen oztopoa gaindituz. Era berean, biribilgune baten bitartez, Aiako industrigunetik eratorritako zirkulazioa berrantolatuko da.
- ♣ “Bikamiota” eta “Ensanche”ko ertzeko mendi-hegalean, hirigune historikoarekin lotzen deneraino, hiri-parke eta babes paisajistikorako parke bat sortzea .

- ♣ Aizperron, autobideko lotunetik gertu, industrigune berri bat sortzea, desplazaturiko industriak birkokatzeko eta dagoen eskaria beteko duen industrialde txiki bat eraikitzeko.
- ♣ Landa-lurraren balore produktibo, paisajistiko eta ekologikoa babestea, ingurune honetan erabilera eta eraikuntza desegokien ezarpena ekiditeko.
- ♣ Bizitegitarako eskaintza aukeraren antolaketa tipologikoa egitea.

7.4.2. Hazkunde aurreikuspenak

1990eko AASSetan bizitegitarako lurzorua, hiri lurra gehi lurzoru urbanizagarria bezala kontsideratuz, 348.100 m²-ko azalera kuantifikatu zen, gaur egun kopuru hau 20.813 m² handitu da, 368.913 m²-ko azalera erdietsiz.

AASSen Aurrerapenean bizitegitarako erabilera zuzenduriko lurzoruak 583. 850 m²-ko hedadura beteko duela aurreikusten da.

Industria lurzoruari dagokionez, hiri lurra gehi lurzoru urbanizagarria dela kontutan hartuz, 1990ean 27.200 m²-ko azalera kuantifikatu zen. Gaur egun azalera hau 51.922 m²-koa da, 24.722 m²-ko gehikuntza hautemanez.

AASSen Aurrerapenean lurzoru industrialaren azalera 69.686 m²-koa izango dela aurreikusten da.

AASSen Aurrerapenaren arabera, **giza-ekipamendu sistemara** zuzendutako lurzorian ondoko aurreikuspenak planteatzen dira:

- ♣ **Eskola-ekipamenduak:** Ikastetxe eremua handituz eta zentro berri bat eraikiz, dauden ikastetxeak sendotzea aurreikusten da. Gaur egun erabilera honetara zuzendutako lurzoruaren hedadura 8.327 m²-koa izanik, planteaturiko proposamenek azalera hau 13.827 m² handitzen dute.
- ♣ **Kirol-ekipamenduak:** lekualdaketek, eraikuntzek eta hainbat ekipamenduren finkapenek, erabilera honetara zuzendutako 7.065 m²-ko azalera aurreikuspena ondorioztatzen dute.
- ♣ **Osasun-laguntzako ekipamendua:** egungo instalazioak sendotzen dira, zabaltzeko aukera emanez eta lehen mailako laguntza emateko instalazio berri bat sortzen da.
- ♣ **Ekipamendu soziokulturalak eta administratiboak:** udaleko eraikina guztiz erreformatuta, egungo ekipamendu administratiboa sendotzen da.

Halaber, ekipamendu soziokulturala sendotzen da, berau gune eta sektore berrien inplementazioarekin zabalduz.

- ♣ **Ekipamendu erlijiosoak:** dauden instalazioak sendotzen dira, baino ez da hornidura berririk proposatu.
- ♣ **Hilerria:** egungo hilerria finkatzen da eta handitzeko aukera ematen da, guztira 4.803 m²-ko barrutia izango duelarik.
- ♣ **Oria itsasadarreko Portuaren Plan Berezia:** arrantza-portua ezkerraldera lekualdatzea (Oriaren ibai-ahotik gertu), errekaaren eskuinaldean kirol-portua egitea, ezkerraldean ltxasetxearen ondoan beteranoentzako ontziraleku bat egitea eta azkenik, ezkerraldean, Mutiozabalen kaiaren luzapena proposatzen dira.

Bestalde, Antilla eta Orizabar hondartzak eta inguruko eremuak alde batera utzita, 74.273 m²-ko azalera ematen duten ondoko **Hiri Parkeak** eratzen dira:

- ♣ 11 Gunea: Parke eta lorategiak (39.843 m²)
- ♣ 9 Gunea: Ibaiertzeko eremua (3.091 m²)
- ♣ 10 Sektorea: Ibaiertzeko eremua (9.534 m²)
- ♣ 17 Sektorea: Lautada ertzeko parkea (21.805 m²)

Sorkuntza edo birsorkuntza gune bakoitzean sartzen diren espazio libre eta berdeguneak, ondoko taulan azaltzen dira:

	Espaloi eta Plazak (m ²)	Parke eta Lorategiak (m ²)
1 Gunea: Hirigune Historikoa	11.692	898
2 Gunea: Mutiozabal	5.671	3.226
3 Gunea: Ensanche	15.857	558
4 Gunea: Aita Lertxundi	1.173	121
5 Gunea: Aramendi Toki Alai	6.396	0
6 Gunea: Erribera	9.484	2.401
7 Gunea: Bikamiota	6.032	50826
8 Gunea: Munto	9.483	4.423
9 Gunea: Azkue	5.469	3.091
10 Gunea: Palotas	25.169	9.534
11: Hondartza	18.640	39.843
13: Txurruka	0	6.399
14: Dike	7.255	3.840
15: Cerámica Arocena	2.337	1.228

	Espaloi eta Plazak (m ²)	Parke eta Lorategiak (m ²)
16: Anibarko Portua	8.067	12.454
17: Zelai	4.571	21.805
18: Ortzaka	1.065	1.113
19: Botaleku	0	3.492
GUZTIRA	142.987	133.397

7.4.3. Lurzoru urbanizaezinaren tratamendua

1990ean onarturiko AASSen arabera, lurzoru urbanizagarriak ondoko azalera betetzen du:

Bizitegitarako Lurzorua	Industria-Lurzorua
0 m ²	5.690 m ²

Lurzoru Urbanizaezina ondoko zonatan sailkatzen da:

- ♣ Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiak:
 - Nekazaritzako jarduerak
 - Basogintzako jarduerak
 - Abeltzaintzako jarduerak
 - Piszifaktoria eta itsas haztegietako jarduerak
- ♣ Nekazaritza erabilera ez profesionalizatuak:
 - Nekazaritza eta abeltzaintzako lurren aprobetxamendua, lur hauen ustiapena nahikoa ez izanik ustiatzailearen mantenu eskusiborako.
 - Txabolak, bordak edo mendiko aterpeak
- ♣ Basogintzako erabilerak
- ♣ Obra publikoei loturiko erabilerak
- ♣ Lurraldearen ustiapenarekin loturirik ez duten bizitegitarako erabilera autonomoak
- ♣ Erabilera tertziarioak:
 - Ostalaritza erabilerak
 - Nekazal-turismoa
 - Kanpaleku instalazioak

Eraikigarritasunari dagokionez, kalifikatutako zona bakoitzean definituriko erabilerei doitzen zaizkien eraikinak bakarrik onartzen dira. Dauden eraikinak finkatzen dira,

katalogaturiko erabilerei dagokienez zona desegokian kokatzen direnak edo exijituriko araudi partikularra hausten dutenak salbu.

Jarraian, eraikuntza eta urbanizaziorako **baldintza partikularrak** azaltzen dira:

- ♣ *Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan* etxebizitza familiabakar, bifamiliar edo kolektiboen erabilerak debekatzen dira, eraikuntzak indarrean dauden AASSen araudi orokorrak exijituriko baldintza orokorrak beteko dituzte eta zabaltze, hobekuntza, konpontze edo sendotzeak AASSetan exijituriko baldintzak beteko dituzte. Gainera, aurre zorian dauden etxebizitzak berreraikuntza exijituriko baldintza orokorretara doituko da eta etxebizitzak ordezkapena etxebizitza berrietarako finkatutako zehaztapenetara doituko da.
- ♣ *Nekazaritza erabilera ez profesionalizatuak*: nekazal-tresneria gordetzeko biltegi-erabilera izango du, eta inoiz ezingo da etxebizitza iraunkor edo tenporal bezala erabili, espresuki elektrizitate eta saneamendu instalazioak debekatzen direlarik. Horrez gain, dimentsio, azpizatiketa, altura maximoa, estaldura baldintzak eta dauden partzela-muga, bide eta ur-ibilgurekiko gutxieneko distantzia bete beharko dute.
- ♣ *Basogintza erabilerak*: ezaugarri jakinak dituzten tresna eta produktuak biltegitratzeko eta kontserbatzeko behin-behineko eraikinak eraiki ahal izango dira. Inoiz ezingo da etxebizitza iraunkor edo tenporal bezala erabili, espresuki elektrizitate eta saneamendu instalazioak debekatzen direlarik. Lizentzia prekarioan egingo da beti urtebeteko gehienezko epean.
- ♣ *Obra Publikoei lotutako erabilerak*: Udalak, bere kasuan, eraikuntzako beharrezkoak kontsideratzen dituen betekizun espezifikoak xedatuko ditu ebazpen arrazoituaren bidez. Dena den, AASSetan ezarritako izaera orokorreko arauak bete beharko dira.
- ♣ *Bizitegi autonomoetarako erabilerak*, lurraldearen ustiapenarekin ez lotuak: lehendik dauden eraikuntzetan eta bizitegi erabilera eskusiboa dutenetan soilik ezarriko dira, AASSen araudiaren onespeneraren aurrekotasunez, "ordenazioz kanpo" ez deklaratuak eta nekazaritza eta abeltzaintzako eremu orokorretan kokatuak.
- ♣ *Erabilera tertziarioak*: lehendik dauden eraikuntzetan instalazio berriak egiteko, aipaturiko erabileren inplementazioa baimenduko da udal lizentziarekin eraikitako eraikuntzetan eta "ordenazioz kanpo ez

deklaratuetan, baldintza partikular batzuk bete beharko dituzte. Eraikuntza berrietan aldiz, araudi propiora doituko dira. Kategoría honen barruan, kanpin instalazio berriak aurreikusitako baldintzen arabera baimendutako eremuetan kokatuko dira.

Lurzoru Ez Urbanizagarrian eraikuntza eta jardueren ezarketa ahalmenaren eginkizunean, indarrean dagoen hirigintza legeria zein planeamenduko AASSetan xedatutakora egokituko da.

7.4.4. Beste elementu esanguratsu batzuk

Nagusiki, Antillako hondartza eta hirigunea lotzen dituzten bidegorri tramu desberdinak proposatu dira, oinezkoentzako pasealeku nagusien zati handi batekin bat datozen trazadurekin batera. Honen harira, bi ibilbide trazatu dira, bat ibaiertzetik igarotzen dena eta beste bat zuzenagoa Arrantzale kaletik.

Orioko hiriguneko peatonalizazio aurrerakorrak, oinezkoentzako ibilbide eta bidegorri sistemak bateragarriak egingo ditu.

7.5. Ondare Historiko-Arkitetktoniko eta Arkeologikoa

Azterlanean dagoen eremuak aberastasun aipagarria dauka ondare historiko eta arkeologikori dagokionez.

7.5.1. Ondare Historiko-Arkitetktonikoa

Uztailaren 17ko 265/1984 Dekretuaren arabera, nazio-mailako Kondaira-Artezkó Monumentutzat aldarrikatzen dira honako hauek:

- Getariako San Salvador eliza
- Zumaiaiko San Pedro eliza
- Zarauzko Dorre Luzea
- Zarauzko Narros Jauregia
- Zestoako Lili Jauregia
- Aiako Altxerri Kobak

Sailkatutako Kultura Ondasunen Erroldan katalogatutako ondasun kulturak, Monumentu Multzo Izendapenari erantzunez :

- Getariako Herrigune Historikoa
- Orioko Herrigune Historikoa
- Zarauzko Hiribildua
- Donejakue bidea
- Aiako Iturriotz baserria (Monumentua)

7.5.2. Ondare Arkeologikoa

Kultura Ondare gisa Sailkatutako Kultura Ondasunen Erroldan inskribatutako Esparru Arkeologikoak ondorengo hauek lirateke:

- Andatzako Estazio Megalitikoa (Aia)
 - o Loatzu I eko trikuharria
 - o Loatzu II ko trikuharria
- Ernioko Estazio Megalitikoa (Aia)
 - o Otagaingo trikuharria
- Igeldoko Estazio Megalitikoa (Orio)
 - o Tontortxiki I eko tumulua
 - o Tontortxiki II ko tumulua
 - o Tontortxiki III ko tumulua
 - o Tontortxiki IV ko tumulua
- Izarraizko Estazio Megalitikoa (Zestoa)
 - o Arluzeko menhirra
- Meagako Estazio Megalitikoa, Getarian
 - o Arriaundi I eko tumulua
- Pagoetako Estazio Megalitikoa, Aian
 - o Arretako tumulua
 - o Murgil I eko tumulua
 - o Murgil II ko tumulua
 - o Olartetako trikuharria
 - o Saberriko Haitzetako tumulua
 - o Urruztume I eko tumulua
 - o Urruztume II ko tumulua
 - o Urruztume III ko tumulua
 - o Urruztume IV ko tumulua
- Altxerriko Koba, Aian
- Irikaitz deritzon Esparru Arkeologikoa, Zestoa

Monumentu Multzo izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean inskribatutako Esparru Arkeologikoak honako hauek dira:

- Getariako Hirigune Historikoa
- Zumaiaiko Hirigune Historikoa
- Zestoako Hirigune Historikoa
- Orioko Hirigune Historikoa
- Zarauzko Hirigune Historikoa

Balizko Arkeologia Gune bezala aitortzen dira ondorengoak:

- Aiako Balizko Arkeologia Gunea (91)
- Aizarnazabalgo Balizko Arkeologia Gunea (7)
- Getariako Balizko Arkeologia Gunea (13)
- Orioko Balizko Arkeologia Gunea (23)
- Zarauzko Balizko Arkeologia Gunea (24)
- Zestoako Balizko Arkeologia Gunea (112)
- Zumaiaiko Balizko Arkeologia Gunea (26)



2004ko abenduaren 1ean burututako Herriarren Partaidetza Foroan jasotako kezka nagusiak jarraian adierazten dira:

- ♣ AASS berrietan merkataritza ekipamendu berriak aurreikusten dira AROZENA fabrikatik gertu. Neurri honek batetik herritarrek bertan gera daitezen eragin dezake, baino bestetik eragin negatiboa izan dezake udalerriko lanpostu ugarirengan (janari dendak eta.).
- ♣ Proiektatzen den zubi berriak arrantzaleak kaltetuko ditu. Arrantzaleen iritziz zubi honek ez du ezer konponduko, Udaletxeko plaza inguruan bakarrik eragingo luke. Beste alternatibaren bat aztertu beharko litzateke.
- ♣ Arraunketa pista eraikitzekotan publikoa izan beharko luke.
- ♣ Industria poligono berriak lanpostu berriak sortuko ditu.

8. MUGIKORTASUNA, GARRAIOA ETA IRISGARRITASUNA

8.1. Errepide Sarea

8.1.1. Egungo Errepide Sarea

Orioko Udalerriko zirkulazioa ondoko errepide sarearen bidez egituratzen da gaur egun:

♣ A-8 Autobidea

Bizkaiko Golkoko Autobideak (Ekialdetik Mendebaldera) Orio, Aia, Zarautz, Getaria, Zumaia, eta Zestoan barna egiten du bere bidea, Zarautz eta Zestoa (Arroa Bekoako sarbidea) izan arren autobidera sarbide zuzena duten Udalerrri bakarrek.

Orioko herrigunetik A-8 Autobidera jarraian adierazten den bezala irits daiteke:

Taula: A-8 Autobiderako sarrera

Nondik	Erabili beharreko errepidea	Distantzia sarbidera (gutxi gorabehera)
Zarautz	N-634	5 Km.

Bertan eginikoa

A-8 Autobidea, Usurbilgo Aginaga auzoa zeharkatu ondoren, Orioko Ekialdetik sartzen da (Saikolako presatik gertu), eta Mendebalderantz jarraitzen du Kukuarri Iparraldean eta Txara, Txoriaitz, Txanka eta herrigunea Hegoaldean utzirik; Orio ibaia zeharkatuz Aian sartzen da.

♣ N-634 Errepide Nazionala

N-634 Donostia-A Coruña errepideak **Orio**, Aia, Zarautz, Getaria, Zumaia eta Zestoako Udalerrriak zeharkatzen ditu (Ekialdetik Mendebaldera), Orio, Zarautz, Getaria, eta Zumaia hertiguneetan barna bakarrik igarotzen delarik.

Usurbilgo Aginaga auzoa zeharkatu ondoren errepide hau Orion sartzen da Hegoekialdeko muturretik (Saikola) eta Oria ibaia eta erriberak inguratuz herrigunera iristen da. Sarrera bakar honek inbutu moduan lan egiten du, erretentzioak eraginez.

Oria ibaia zeharkatu ondoren Aian sartzen da.

♣ Beste errepide batzuk (Udalerriaren eskuduntzakoak)

Txankako errepidea, N-634 errepidetik abiatuta, Txanka Behekoan, Antillako hondartza eremura iristen dena herrigunea zeharkatu behar izan gabe.

8.1.2. Errepide Sarearen Dentsitatea

Orioko errepide sarearen luzera totala (Udal eskuduntzako errepideak kontutan izan gabe) 7 Km eta Udalerriaren azalera 9,8 Km² izanik, errepide sarearen dentsitatea 0,71 Km/Km² dela ondorioztatzen da, Udaltaldeko batez besteko dentsitateaz azpitik (1 Km/Km²).

8.1.3. Errepide Sareko Proiektuak

Urola Kostako Lurraldearen Zatikako Planean (2003-2018) jasotzen denaren arabera Eskualdea egituratzen duen errepide sarea ez da egokitzen barne mugikortasuneko beharretara, ez eta Eskualde mugakideekiko lotura beharrianetara.

Honela bada Lurralde Zatikako Planak (LZP) helburu gisa zenbait jarduketa markatzen ditu errepide sarea hobetearren. Jarraian jarduketa garrantzitsuenak (Eskualde mailan nahiz Eskualdez gaindik) laburtzen dira:

- a) A-8 Autobidea:** Orion (Txanka) beste lotune bat egitea aurreikusten da. Proiektu hau Orioko Arau Subsidiarietan (Hasierako onespen fasean) ere jasotzen da, bertan printzipioz erdi-lotune bat litzatekeela jasotzen da (lotura Donostiarekin soilik) ez delarik baztertzen etorkizunean lotune osoa egitea.
- b) Iparraldeko ardatza Ekialde-Mendebalde norabidean:** LZPak errepide sarea berritzea proposatzen du Ekialde-Mendebalde norabideko Ipar Ardatz bat formalizatuz Orioko (Txanka) A-8arekiko lotune berria eta Arroa artean (Zestoa); ardatza honek Ekialde eta Mendebalderantz N-634aren bidez jarraituko luke. Ardatz hau bitan banatuko litzateke, batetik kostaldeko

trazadura jarraituz Getarian zehar eta bestetik barrualdeko traza jarraituz Meaga (Getaria) eta Oikian (Zumaia) zehar. Ardatz hau burutu ahal izateko herri mailako zenbait jarduketa derrigorrezkoak izango dira, Oriori dagokionean ondokoak izango direlarik:

- ♣ **Orioko saihesbidea:** Oria itsasadarraren gainean beste zubi bat eraikitzea aurreikusten da (Anibarko Portutik Motondora) A-8 autobideko Txankako lotunetik abiatuta. Itsasadarraren hegoaldean proiektatzen da traza berria. Proiektu hau Orioko Arau Subsidiarioetan ere jasotzen da (Hasierako onespen fasean).
- c) **Mendebaldeko ardatza Ipar-Hego norabidean:** LZPak errepide sarea berritzea proposatzen du Ipar-Hego norabideko Mendebaldeko Ardatz bat formalizatuz Arroako A-8rako sarbidea eta Beasain eta Durango lotzeko proiektaturiko ardatzaren artean. Ardatz honek, Eskualdea egituratzeaz gain, N-634 eta Beasain-Durango korridorea lotzeko balioko luke.

Bestalde, Orioko errepide sareari dagokionean, LZP nahiz Arau Subsidiarioek Txanka eta Hondartza arteko errepidearen hobekuntza aurreikusten dute; Arau Subsidiarioek Hirigune Historikoko goialdea eta errepide honen arteko lotura exekutatzea proposatzen dute A-8 autobide gaineko pasabide baten bidez.

Arau Subsidiarioetan ondoko aurreikuspenak ere jasotzen dira:

- ♣ Zubi berria Oria ibarreko hiri-zabalgune berria eta N-634 artean, Aiako industriguneko zirkulazioa bideratuko duen errotonda bat burutuz. Zubi honek itsasontziei gaur egungo moilara pasatzen uztea posible da.
- ♣ “Sareta” itxurako bide sarea zirkulazioa eta hiri-zabalgunea antolatzeko.
- ♣ Hirigune Historikoa partzialki oinezkoentzat egokitu eta gaur egungo zubiaren erabilera bigarren maila batetara pasatzea.

8.2. Mugikortasunaren Ezaugarriak

8.2.1. Mugikortasunaren Arrazoiak

Ondoko taulan lana eta ikasketei lotutako mugikortasunaren inguruko datuak jasotzen dira. Urola Kostako Udaltaldea eta Gipuzkoako datuak ere jasotzen dira.

Taula: Lana eta Ikasketei Lotutako Mugikortasuna. 2001

	LANGILEAK						
	Guztira	Etxean	Udalerrian	Zenbait Udalerrian	Beste Udalerri batean		Atzerrian
					Euskadi	Beste probintziak	
Gipuzkoa	291.606	5.739	140.220	20.009	119.504	4.799	1.335
Udaltalde	18.485	644	8.473	1.355	7.814	131	68
Aia	753	174	137	126	310	5	1
Aizarn.	218	15	97	19	86	1	---
Getaria	1.087	61	515	64	437	4	6
Orio	2.005	41	610	234	1.102	15	3
Zarautz	9.290	198	4.611	627	3.749	72	33
Zestoa	1.300	98	407	80	705	5	5
Zumaia	3.832	57	2.096	205	1.425	29	20
	IKASLEAK ¹						
	Guztira	Etxean	Udalerrian	Zenbait Udalerrian	Beste Udalerri batean		Atzerrian
					Euskadi	Beste probintziak	
Gipuzkoa	53.418	601	22.819	253	26.550	2.673	522
Udaltalde	3.212	25	762	12	2.230	147	36
Aia	84	---	---	---	82	1	1
Aizarn.	36	---	2	---	34	---	---
Getaria	169	---	10	---	149	8	2
Orio	292	---	9	---	273	8	2
Zarautz	1.720	23	587	8	983	96	23
Zestoa	170	1	5	3	154	7	---
Zumaia	741	1	149	1	555	27	8

Iturria: Eustat

¹ Derrigorrezko hezkuntza izan ezik


Eta portzentajetan:

Taula: Lana eta Ikasketei Lotutako Mugikortasuna. %. 2001


%	LANGILEAK						
	Guztira	Etxean	Udalerrian	Zenbait Udalerrian	Beste Udalerri batean		Atzerrian
					Euskadi	Beste probintziak	
Gipuzkoa	100	2	48	7	41	1,5	0,5
Udaltalde	100	3,5	46	7,5	42	0,5	0,5
Aia	100	23	18	17	41	1	0
Aizarn.	100	7	44,5	8,5	39,5	0,5	0
Getaria	100	6	47	6	40	0,5	0,5
Orio	100	2	30,5	11,5	55	1	0
Zarautz	100	2	49,5	6,5	40,5	1	0,5
Zestoa	100	7,5	31,5	6	54	0,5	0,5
Zumaia	100	1,5	54,5	5,5	37	1	0,5
%	IKASLEAK ¹						
	Guztira	Etxean	Udalerrian	Zenbait Udalerrian	Beste Udalerri batean		Atzerrian
					Euskadi	Beste probintziak	
Gipuzkoa	100	1	42,5	0,5	50	5	1
Udaltalde	100	1	23,5	0,5	69,5	4,5	1
Aia	100	0	0	0	98	1	1
Aizarn.	100	0	5,5	0	94,5	0	0
Getaria	100	0	6	0	88	5	1
Orio	100	0	3	0	93,5	3	0,5
Zarautz	100	1,5	34	0,5	57	5,5	1,5
Zestoa	100	0,5	3	2	90,5	4	0
Zumaia	100	0	20	0	75	4	1

Iturria: Bertan egindakoa Eustateko datuetatik abiatuta

Lanarekin lotutako mugikortasuna. %. 2001



¹ Derrigorrezko hezkuntza izan ezik



Lanari lotutako mugikortasunari dagokionean, Urola Kostako Udaltaldean eta Gipuzkoan batez beste bi langiletik batek beste Udalerrri batera joan behar izaten badu arrazoi hau dela eta, Oriko 10 langiletik 7 dira mugitu behar dutenak.

Ikasketei lotutako mugikortasunari dagokionean (derrigorrezko hezkuntza izan ezik), 2001ean Oriko ikasleen ia %100ak beste Udalerrri batean burutzen zituen ikasketak.


Ondoko taulak azken urteetako lanari lotutako mugikortasunaren eboluzioa jasotzen du:

Lanari Lotutako Mugikortasunaren Eboluzioa.

	Pertsona kopurura			%		
	1991	1996	2001	1991	1996	2001
Udalerrian	1.155	693	651	%54,2	%42,6	%32,5
Beste Udalerrri batean	975	932	1.354	%45,8	%57,4	%67,5
Guztira	2.130	1.625	2.005	%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: Eustateko Udal Estatistika Serieak.

Lanarekin lotuako mugikortasunaren eboluzioa



Grafiko honetatik azken urteetan lana dela eta Aiatik beste Udalerri batetara mugitu behar duen langile kopurua ugaritu egin dela ondoriozta daiteke.

8.2.2. Parke Mugikorra

EUSTATetik eskuratutako informaziotik abiatuta ondoko taulan Orioko 2002ko parke mugikorraren berri ematen da; Urola Kostako Udaltaldea eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko datuak ere jasotzen dira.

Taula: Parke Mugikorra. 2002

	Autoak	Motorrak	Kamioiak	Autobusa	Industria traktoreak	Bestelakoak	Guztira
Gipuzkoa	276.854	25.149	56.789	764	3.423	9.085	372.064
Udaltalde	14.906	1.009	3.452	32	164	446	20.009
Aia	689	62	290	9	29	67	1.146
Aizarn.	265	14	67	---	2	9	357
Getaria	902	82	244	---	14	35	1.277
Orio	1.670	86	411	1	8	40	2.216
Zarautz	6.980	574	1.490	22	83	215	9.364
Zestoa	1.383	65	336	---	15	42	1.841
Zumaia	3.017	126	614	---	13	38	3.808

Iturria: Eustat


Datuotatik abiatuta ondoko taulan "ibilgailu kopurua/1.000 biztanle" ratioa kalkulatu da.

Taula: Ibilgailuak/1.000 biztanle Ratioa. 2002

	IBILGAILUAK	BIZTANLEAK*	IBILG./1.000 BIZT.
Gipuzkoa	372.064	685.461	543
Urola Kosta Udaltaldea*	20.009	42.712	468
Aia	1.146	1.647	696
Aizarnazabal	357	555	643
Getaria	1.277	2.496	512
Orio	2.216	4.610	481
Zarautz	9.364	21.663	432
Zestoa	1.841	3.079	598
Zumaia	3.808	8.662	440

* 2002/12/31ko datuak, gipuzkoa.net-etik eskuratuak.

Iturria: Bertan eginikoa Eustateko datuetatik abiatuta.

Ibilgailuak/1000 biztanle 2002

Orion, 1.000 biztanleko ibilgailu kopurua Urola Kostako Udaltaldeko batez besteko ratioaren antzekoa da: gutxi gorabehera bi pertsonako ibilgailu bat. Gipuzkoako Lurralde Historikoan ratio hau batez beste apur bat altuagoa da.

Datuotatik abiatuta ondoko taulan "ibilgailu kopurua / familia" ratioa kalkulatu da.


Taula: Ibilgailuak/Familia Ratioa. 2002

	IBILGAILUAK	FAMILIAK*	IBILGAILUAK/FAMILIA
Gipuzkoa	372.064	245.913	1,5
Urola Kosta Udaltaldea	20.009	15.342	1,3
Aia	1.146	468	2,4
Aizarnazabal	357	164	2,2
Getaria	1.277	861	1,5
Orio	2.216	1.580	1,4
Zarautz	9.364	8.271	1,1
Zestoa	1.841	1.162	1,6
Zumaia	3.808	2.836	1,3

* 2001eko datuak, Eustatekoak.

Iturria: Bertan eginikoa Eustateko datuetatik abiatuta.

Ibilgailuak/Familia. 2002



Orio, familiako ibilgailu kopurua (1,4) Urola Kostako Udaltaldeko (1,3) eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko (1,5) batez besteko ratioen antzekoa da.

Orioko Udaltzaingoak emandako datuen arabera gaur egun (2004) Orioko parke mugikorra ondokoa litzateke:

Taula: Parke Mugikorra. 2004.

	Motorrak	Kamioiak	Autobusak	Autoak	Guztira
Ibilgailuak	182	50	3	2.059	2.294
Ibilg./1.000 bizt.*	40	11	0,5	467	500

* 2003/12/31ko biztanleria.

Datuok 2002ko datuekin alderatuz Orioko parke mugikorra gutxi gorabehera %4ean hazi dela ondorioztatzen da (Udaltzaingoak emandako datuetan industri traktoreak eta beste ibilgailu batzuk kontutan ez direnez hartzen portzentaia hau altuagoa izango da.

Ondoko taulan parke mugikorraren eboluzioa (1996-2002) jasotzen da:

Taula: Parke Mugikorraren Eboluzioa. 1996-2002.

	1996	1997	2001	2002
Ibilgailu kopurua	1.674	1.723	2.133	2.216

Iturria: Bertan eginikoa EustatekoUdal Estatistika Serietatik abiatuta.

Taula honetatik zera ondoriozta liteke: Aldi honetan (1996-2002) ibilgailu kopurua %30,6ean ugaritu dela (%5,1 urteko).

8.2.3. Zirkulazioaren Intentsitatea**Taula. Errepide Sareko Zirkulazioaren Intentsitatea. 1995-2002.**

Errepidea	Neurketa estazioa	Bidegunea	Eguneko batez besteko intentsitatea								Astunak (%)	Urteko gehikuntza
			1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002		
	274	P.K. 48,8-54,6 Zestoa/Deba							20.974	21.698		+3,5%
A-8	275	P.K. 38,2-48,8. Zarautz/Zestoa							23.236	24.196		+4%
	276	P.K. 27,5-38,2. Donostia/Zarautz							28.670	29.705		+3,5%
N-634	37	P.K. 4-19,1 Usurbil/Zarautz	14.458	11.201	12.023	12.559	9.680	10.480	10.752	10.979		-3%
	122	P.K. 19,1-22,8 Zarautz/Getaria	12.499	9.419	9.217	7.905	9.602	8.969	8.247	9.469		-3%
	40	P.K. 22,8-27,7 Getaria/Zumaia		6.816	7.128	7.895	6.987	6.448	6.850	7.192	13,3% *	+1%
	123	P.K. 27,7-29,9 Zumaia	14.637	12.052	11.252	9.573	12.499	10.039	11.616	11.724		-1,5%
	55	P.K. 29,9-30,9 Zumaia/Zestoa	8.872	8.931	9.094	9.536	9.711	9.853	10.042	10.161	15,5%**	+2%
	105	P.K. 30,9-34,1 Zestoa/Deba	7.789	4.935	5.331	6.094	5.154	5.389	5.099	5.476		-3%
GI-2633	39	P.K. 0-12,9 Zarautz/Zestoa	3.925	3.485	3.131	3.582	2.609	3.458	4.076	4.188		+2,5%
GI-3391	223	P.K. 0-4,5 Getaria/Meaga					197	220	206	227		+5%

8 MUGIKORTASUNA, GARRAIOA ETA IRISGARRITASUNA

Errepidea	Neurketa estazioa	Bidegunea	Eguneko batez besteko intentsitatea								Astunak (%)	Urteko gehikuntza
			1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002		
GI-2631	110	P.K. 7,1-17,8 T.M. Asteasu/Aia	575	682	631	765	701	755	606	700		+4%
	38	P.K. 17,8-25,3 Aia/Alto de Orio	924	860	785	1.115	906	938	814	932		+2%
GI-3710	199	P.K. 0-9,7 Aia					956	1.429	1.120	1.004		+6%
GI-3162	222	P.K. 0-5,4 Zarautz/Aia					594	443	477	507		-4%
GI-3730	198	P.K. 0-4,4 Zestoa (Aizarna)					304	305	284	284		-2%
GI-631	9210	P.K. 0-3,8 Zestoa	3.176	5.512	5.368	6.781	7.147	7.033	8.261	7.433		+15,5%
	9157	P.K. 3,8-8,2 Zestoa/Azpeitia	2.755	8.125	7.500	7.429	10.135	10.212	10.590	10.525		+32,5%
GI-3294	230	P.K. 0-2,3 Zestoa/Deba					217	241	249	269		+7,55
GI-3760	57	P.K. 0-4,3 Zumaia	923	2.270	2.544	3.867	2.890	3.025	4.438	4.398		+33,5%

** 1996-2002 urtetako batez bestekoa

Iturria: Bertan eginikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren informaziotik abiatuta.

8.2.4. Aparkalekuak

Orioko Udaltzaingoak emandako informazioaren arabera gaur egun Udalerrian 1.966 aparkaleku plaza daude.

Kontutan izanik gaur egun 2.059 auto daudela zentsatuta Udalerrian, aparkaleku plaza bakoitzeko 1,05 auto daudela ondoriozta liteke (edo 0,95 aparkaleku auto bakoitzeko).

Aparkaleku berriak eraikitzeke aurreikuspenei dagokienean hauek hainbat Planetan aipatzen dira. Honela, Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezian (2003ko abendua) planteatzen den helburuetako bat lurpeko aparkaleku periferiko bat eraikitzea da (137 aparkaleku plaza) (helburu hau Arau Subsidiarioetan ere jasotzen da); ekimen pribatuko aparkalekuak ere planteatzen dira. Plan honetan adierazten denez, Hirigune Historikoan, nahiz inguruetan, aparkaleku arazoa larria da.

Bestalde, Merkataritza eta Turismoa Berrindartzeko Plan Berezian (2003) herritarrentzako aparkaleku berrien beharra, nahiz errotazioko aparkaleku plazen beharra aipatzen dira. Plan honetan adierazten denez hirigunean sasoiko turismoarekin lotutako aparkaleku arazoak izaten dira, udan batez ere.

Eraikuntza berriei lotutako aparkaleku eskakizunei dagokienean, Arau Subsidiarioek ondokoak markatzen dituzte:

- ♣ Sortu beharreko area eta sektoreak: Etxebizitza bakoitzeko 1,5 lurpeko aparkaleku plaza pribatu eraikitzeke beharra (1 edo 2 soto eraikitzeke aukera). Lurrazaleko aparkalekuei dagokienean gutxi gorabehera aparkaleku plaza bat etxebizitza bakoitzeko.
- ♣ Area industrialak: Aparkaleku plaza bat 100 m²-ko.
- ♣ Hirugarren sektoreko erabilerak: Aparkaleku plaza bat logela bakoitzeko.

Orion, guztira, 4.833 aparkaleku inguru eraikitzea aurreikusten da, 2769 lurrazalekoak eta 2.064 lurrazpikoak.

8.2.5. Garraiobideak

Garraiobide publikoa eskualde mailan

Urola eskualdeko (Urola Kosta + Urola Erdia) mugikortasun beharrei erantzuna emateko eskuragarri dauden garraiobideak (ibilgailu propioa/pribatuaz gain) ondorengoak dira:

A. Trena:

Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate publikoak, EuskoTrenek, Donostia/Bilbo linearen barruan **Kostaldeko aldiriko zerbitzua** eskaintzen du Donostia eta Eibar artean. Halaber, bi hiriburuen arteko zuzeneko ibilbide osoa egiten duten eguneroko bi zerbitzu daude (geldialdiak Donostia, Zarautz, Eibar, Durango, eta Bilbon egiten ditu).

Kostaldea zerbitzuaren ibilbide osoa ondorengo da: Donostia (Amara, Añorga, eta Errekalde), Usurbil, **Orio-Aia**, Zarautz (San Pelaio eta Zarautz), Zumaia (Zumaia eta Arroa), Deba, Mendaro, Elgoibar (Altzola, Toletxegain, eta Elgoibar), eta Eibar (Eibar eta Ardantza).

Neguan, lanegunetan Orio/Aia geltokiak guztira 56 zerbitzu eskaintzen ditu (28 Bilboko norabidean eta 28 Donostiako norabidean), larunbatetan, igandetan eta jaiegunetan aldiz zerbitzu kopurua 31ra murrizten da guztira (15 Donostiako norabidean eta 16 Bilboko norabidean).

Bestalde, udan, lanegunetan 56 zerbitzu eskaintzen jarraitzen da, asteburu eta jaiegunetako zerbitzua ugaritzen den bitartean, guztira 43 (21 Donostiako norabidean eta 22 Bilboko norabidean).

B. Autobus zerbitzuak:

Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos S.A. Sozietate publikoak, EuskoTrenek **Kostaldea** eta **Urola** zerbitzuak eskaintzen ditu.

Kostaldea zerbitzua ondoko hiru linea hauen bitartez egiten da:

- a) **Zumaia-Zarautz-Donostia.** Geldialdiak Zumaia, Getaria, Zarautz, **Orio**, Usurbil, Urbil merkatal zentroa, eta Donostian.

Linea honek Orion guztira eguneroko 50 zerbitzu eskaintzen ditu astelehenetik ostiralera bitarteko lanegunetan (25 norabide bakoitzean), larunbatetan, igandetan eta jaiegunetan aldiz zerbitzu kopurua 40ra murrizten da neguan (20 norabide bakoitzean) eta 44ra udan (22 norabide bakoitzean).

- b) **Lasarte Oria-Orio.** Geldialdiak Lasarte Oria, Usurbil eta **Orion**.

- c) **Orio-Aia:** Lanegunetan 4 zerbitzu eskaintzen dira Aiako norabidean eta beste 5 Orioko norabidean. Larunbat lanegunetan 2 zerbitzu eskaintzen dira Aiako norabidean eta 3 Orioko norabidean. Zerbitzu hauek Zumaia-Zarautz-Donostia linearekin lotzen dira.

Bestalde, **Urola** zerbitzua, hiru linea hauen bitartez egiten da:

- a) **Azkoitia-Tolosa.** Geldialdiak Azkoitia, Azpeitia, Errezil, Bidegoien, Albiztur eta Tolosan.
- b) **Azkoitia-Zarautz.** Geldialdiak Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Aizarnazabal eta Zarautzen.
- c) **Zumaia-Zumarraga-Ospitalea.** Geldialdiak Zumaia, Zestoa, Azpeitia, Azkoitia, Urretxu eta Zumarragan, azken herri honetako ospitaleraino iristen delarik.

Bestetik **La Guipuzcoana** enpresak **Donostia-Azkoitia** autobus zerbitzua eskaintzen du, Geldialdiak Donostia, Zestoa, Azpeitia, Loiola, eta Azkoitian egiten ditu.

Eskualdez kanpoko zenbait autobus zerbitzu ere badirela aipatu behar da:

- a) Alsa Turitrans Autobusak: Irun-Zarautz-Bilbo-Gijón Linea.
- b) La Burundesa Autobusak: Zarautz-Iruñea Linea (udan bakarrik).

Garraiobide Publikoen Gabeziak

Garraio publikoan detektaturiko gabeziak zerbitzu kantitateari baino kalitateari dagozkio, batez ere autobus eta tren geltokiak hirigunetik kanpo aurkitzen direla eta.

Herritarrek zerbitzu eskaintza zabalagoa eskatzen dute. DFG-ren arabera konponbidea garraibide publikoaren kalitatearen hobekuntzan oinarritzen da, eta ez kantitatean. Bestetik, Udalak geltokien kokagunea hobetzeko beharra ikusten du, bai autobusena bai trenena ere.

Bestalde, Oriotik pasatzen diren garraio publikoko zerbitzuak garestiak dira, ibilgailu pribatuan mugitzeak dakarren kostuaren antzekoa. Autobusaren kasuan gainera, bonoak erabiltzeko aukerarik ez dago.

Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Ikerketan jasotzen denez, Urola Erdia zein Urola Kosta eskualdeak dira bidaiarien garraio publikoaren egitura mailan (autobus zerbitzua) gabezia gutxien ageri dituztenak.

Hala ere, eskualde barneko mugikortasunari dagokionean, ibilgailu pribatuaren erabilera altua dela detektatu du ikerketa honek, ohitura hau dela eta garraio publikoan oinarritutako mugikortasuna ezartzea zaila delarik. Urola Erdia zein Urola Kostako eskualdeetan garraio publikoaren erabilera portzentaia oso baxua da zerbitzu honen eskaintza ikusirik.

Urola Kostako eskualdeko garraio publikoaren eskaintza, orokorrean, egokitzen jotzen du ikerketak, Aia eta Getariari dagokionean hobekuntzak egin daitezkeen arren. Eskualde honetan, bestalde, Euskotreneko tren zerbitzua ere eskaintzen dela adierazten da, garraio publikoaren zerbitzua aberastuz.

Ikerketa honetan jasotzen denez Orioko tren geltokian autobus eta ibilgailu pribatuarekiko lotura gune bat behar litzateke. Gune honek Udalerriari berari emango lioke zerbitzua, izan ere Orioko hiri garapena tren geltokia kokatzen den aurkako zentzuan ari baita burutzen.

Azkenik, Urola Erdia zein Urola Kostako eskualdean Bilbo eta Gasteizeranzko loturetan gabeziak nabariak dira (batez ere Bizkaiko hiriburuari dagokionean).

Aurreikuspenak

Zarautz-Azpeitiako (Urola Kosta) Funtzio-Arloko Lurraldeko Zatikako Planaren (LZP) (2003-2018) arabera interbentzio estrategikoak beharrezkoak dira aldiriko tren sarearen zein autobus lineen maiztasunaren hobekuntza arloan.

a) Trenbide Sarea.

LZP-k lurraldearen egituraketan trena sustatzea proiektatzen du, eta bide-trazadurarekiko paraleloki eta dagoen azpiegitura aprobetxatuz, merkantzia eta bidaiariei garraio bide bat eskainiko dien bi ardatz proposatzen dira (Iparraldekoa eta Mendebaldekoa).

Iparraldeko ardatza: Funtzio-Arloa Ekialdetik Mendebaldera zeharkatuko du, Aginagatik Debako norabidean Arroaz harantzago, Mendebaldeko ardatzak, egun zerbitzurik gabea eta beste erabilera batzuek okupatua, Zumaia eta Zumarraga lotuko ditu.

LZP-k Mendebaldeko ardatza, Funtzio-Arloetik kanpo Ezkio-Itsason (Santa Lucía), , aurreikusitako Euskal Herriko Trenbide Sare berriaren geltokiarekin (Euskal Y-a) lotzeko dauden aukerak aztertzea gomendatzen du.

LZP-ren arabera Iparraldeko ardatza sendotzeko (bermatzeko) zenbait ekintza beharrezkoak izango dira, Oriori dagozkienak azpimarratuz.

- ♣ Zerbitzuaren maiztasuna hobetzeko sarearen desdoblamendua.
- ♣ Aia-Orioko trenbide-pasagunearen ezabaketa eta Orioko geltokiaren berregituraketa.

Orioko Plangintzako Arau Subsidiarioetan (hasierako onespen fasean) adierazten denaren arabera, trenbidearen ibilbidea udalerriaren (area-)ertzetik igarotzen bada ere, nagusiki trazadura kotari (borneari) eta geltokiari dagokion modifikazio proiektu bat erredaktatzen ari dira, zeinek irisgarritasun sistemari eragingo dion. Modifikazio proiektua aurkezten denean bide-sistema eta oinezkoen bidean ondorioak aztertuko dira egokitze edota konexioetarako(loturetarako).

Bestalde, Orioko Merkataritza eta Turismoa Birgaitzeko Plan Bereziak (2003) hirigunea-hondartza garraio zerbitzuaren sorrera proposatzen du, zenbait aukera iradokitzen dituelarik:

- ♣ Lurreko Garraioa (Tren “Txu Txu”) + Itsas Garraioa (Antillako Hondartza eta hirigunea arteko ibilbidea beteko duen txalupa motorduna, itsasadarraren “beste aldera” (Oribarzarko Hondartza/ Nuevos Muelles) geldialdi posible batekin.
- ♣ Bidegorri: Hirigune-komertzialaren nukleoraino barneratuko den loturazko bidegorriaren bitartez iraganbide ez motordunen sarea indartu (hondartzan bizikletak alokatzeko zerbitzu aukeraz, etab.).

Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Ikerketan jasotzen denez, Urola Erdia zein Urola Kosta eskualdeak dira bidaiarien garraio publikoaren egitura mailan (autobus zerbitzua) gabezia gutxien ageri dituztenak, eta hortaz, errepide bidezko garraio publikoan ez da aldaketa gehiegiren beharrik detektatzen. Ikerketa honetan, hala ere, Donostia, Zarautz, Eibar eta Bilbo lotuko lituzkeen autobus zerbitzu bat planteatzen da, egungo tren bidezko loturaren lehiakortasun eza dela eta. Gaur egun ez dago honelako zerbitzurik eta Urolako eskualdea Bizkaiko hiriburuarekin lotzeko balioko luke. Zerbitzu honek, emaitza ekonomiko negatiboak izango lituzkeen arren, gaur egun asegabe dagoen eskariari erantzuna emango lioke.

8.2.6. Oinezko eta Bizikleta bidezko Mugikortasuna

Ezaugarriak

Oinezkoek motordun ibilgailuekiko lehentasuna dute ondoko kaleetan: Kaia (5-7), Eusko Gudari 2 Herriko Plazaren gurutzaguneraino, Kale Nagusia, Almirante OA, eta Urdaire. Orioko hirigune historikoa praktikoki oinezkoentzako da.

Bizikletak ibiltzea posible den zenbait tarte badauden arren, Orion bidegorri bakarra dago gaur egun. Aipaturiko tarteak bestalde, ez daude modu egokian seinaleztatuak.

Aurreikuspenak

Zarautz-Azpeitiako (Urola Kosta) Funtzio-Arloko Lurraldeko Zatikako Planaren (LZP) (2003-2018) barruan Urolako korridorean aurreikusitako bizikleta sareari dagokionez

zenbait proposamen egiten dira, egun Foru Aldundiak oro har Gipuzkoako Lurralde Historikorako sustatu duen proiektuan kontenplatzen dena. Proposamena.

Halaber, kostarekiko paralelo oinezkoentzako ibilbide baten antolamendua aurreikusten da Kukuarritik (Orio) Debaraino, Orioko hirigunea eta Zarauzko itsas pasealekua zeharkatuz, Getariaraino jarraituz Askizutik Zumaira iristeko eta hemendik Itziar arte. Ahal bada Ibilbide hau Kostako Santiagoko Bideari egokituko zaio.

Gainera, Gipuzkoa Iparraldetik Hegoalderaino zeharkatuko duen mendiko ibilbidea sendotzea aurreikusten da, Donostiatik Arantzazu eta Arabaraino.

Osatzeko, dimentsio txikiagoko baino fluxu handia izango duten oinezkoentzako pasealeku berriak jartzea edo hobetzea aurreikusten da, hauen artean Orioko itsasadarraren eskuinaldeko ertzeko pasealekua, Txankatik (Orio) Hondartzaraino barne hartzen delarik.

Bestetik, Plangintzako Arau Subsidiarioek (hasierako onespen fasean) nagusiki Antillako Hondartzako gunea eta hirigunea lotuko dituzten zenbait bidegorri tramu egitea proposatzen dute. Honela, ibilbide desberdinak proposatzen dira, bat Itsasadarraren ertzetik, eta beste bat, zuzenagoa Arrantzale Kaletik. Arauek Anibarko Portua eta Hirigune Historikoa lotzea ere aurreikusten dute, itsasadarraren bazterretik ibilbide bat eginez.

Zentzu honetan, ideia udalerrian bidegorrien eskaintza gero eta zabalagoa izatean oinarritzen da.

Amaitzeko, Orioko Merkataritza eta Turismoa Birgaitzeko Plan Bereziak (2003) Hirigune Historikoko eta erdialdeko zenbait kaleen (Herriko Plaza, Eusko Gudari Abeslari eta Ixarra artean, eta Eusko Gudari eta Arrantzale artean zeharkakoa) peatonalizazio osoa edo partziala proposatzen du, pixkanaka oinezkoen nagusitasunerako gune berriak sortzeko helburuz.

8.3. Irisgarritasuna

Desarrollos Vía Libre S.L, eta Bizgorre S.L. (ADIR) enpresek buruturiko Orioko Irisgarritasun Planak (2001), Orio finkatzen den lurraldeak irisgarritasun ikuspuntutik orografia konplikatua aurkezten duela adierazten du, batez ere Hirigune Historikoan.

Orioko hedapen eremuak, Oriaren ibai-ahotik gertuen dagoen zatia, praktikoki laua eta orografiatik ondorioztaturiko arazorik ez duen bitartean, Orioko hiriguneak malda handiko kaleak (%15 baino handiagoak) eta eskaileradun tramu ugari aurkezten ditu. Hau da Orioko kaleetan irisgarritasun aldetik aurkituriko arazo nagusia.

Aurkitutako gainontzeko arazoak, oinbideen estutasunean (eta oinbide bakarreko edo gabeko galtzadetan) eta oinezkoen pasabideetan oinarritzen dira, gehienetan gaizki diseinatuak izanagatik edo ez egoteagatik.

Halaber, azterketak erakusten du, analizaturiko hiri-elementuen (zuhaitzak, eserlekuak, barandak, trafiko seinaleak...) % 76a eskurakoia dela kokapenaren ikuspuntutik. Ostera, diseinu aldetik irisgarritasun parametroak betetzen ez dituzten elementu ugari daude, ikuspuntu honetatik azterturiko elementuen %49a soilik kontsidera daiteke eskurakoia.

Azkenik, azterketak gabezi batzuk detektatu ditu, hala nola, malda handiko, arrapaladun edo eskailera tramuetan baranda eza, ibilbide eta pasabideetan banda seinaleztatzailen eta alarmazko zoladuren gabezia (pertsonek itsuentzat nabariki kaltegarria), etab.

Kasu gehienetan, urbanizatu berriak izan diren kaleei dagozkien proiektuetan hartu dira kontuan irisgarritasun irizpideak.

Eginiko azterketatik aurrera, bide publikoan proposatzen diren interbentzioen artean , ondorengo jarduketak sartzen dira:

- ♣ Oinbideen zabaltzea eta eraiketa
- ♣ Oinezkoen pasabideen erreforma edo eraiketa
- ♣ Plataforma bakarreko eremuen konbertsioa
- ♣ Eskailera eta arrapalaren berreraiketa

- ♣ Malda handiko kaleetan eskudelen ezarketa
- ♣ Eremu libreetan hiri-altzarien ordezkapena
- ♣ Hondartzan igarobide/arrapalen ezarketa
- ♣ Etab.

Halaber, Irisgarritasun Planak hirigune historikorako irisgarritasuna hobetzeko Udalak elementu mekanikoen ezarketa programa espezifiko bat ekiteko beharra azpimarratzen du: hiri-igogailu baten instalazioa, eskailera mekanikoak, arrapala mugikorak, etab. Zentzu honetan, hirigune historikoan eskailera mekaniko bidez konektaturiko hiru altueratako pasealekuak eraikitzea eta kultur etxearen atzean igogailu bat instalatzea ere pentsatu da.

Bestetik, Orioko Merkataritza eta Turismoa Birgaitzeko Plan Bereziak (2003) hirigune historikoa merkataritza gunean sartzeko beharra azaltzen du, horretarako eskailera mekanikoen jartzea proposatzen du ondoko kokagune posibleetan: Herriko Enparantza, San Nikolas Eliza/Kale Nagusia, edota Eusko Gudariko merkataritza gunean.



2004ko abenduaren 1ean burututako Herritarren Partaidetza Foroan jasotako kezka nagusiak jarraian adierazten dira:

- ♣ Aparkaleku arazoa handia da. Gaur egun aparkalekuetan 15 minutuko muga dago ezarrita, epe laburregia. Gutxienez 30 minutuko epea ezarri behar litzateke.
- ♣ Bisitariak aparkatzeko arazoak izaten dituzte. Alternatiba berriak behar dira.
- ♣ Pilotari kalearen amaieran plaza txiki bat dago, non 40 beribil inguru egoten den aparkaturik.
- ♣ Arriba kalean egoera txarrean dauden bi erakuntza daude; inguruko etxebizitzetarako sarbidea zaildu egiten du honek.
- ♣ Etorkizunean egiten diren lanetan traba arkitektonikoak ekidin behar lirateke.
- ♣ Irisgarritasun planik baden arren exekuzio epeak ez dira ari betetzen.

9. INGURUMEN BEKTOREAK

9.1 URA

Ura, natur baliabide urria izan arren – batez ere planeta mailan -, bizitzeko eta gaur egungo gizartearen jarduera ekonomikoetarako ezinbestekoa da. Ordezkaezina da, gizakiak ezin du bere borondatez sortu eta denboran eta espazioan modu irregularrean agertzen da. Gainera, ura behin eta berriz erabil daitekeen baliabidea da.

Natur baliabide berriztagarri honen ezaugarriak direla eta sortutako askotariko arazoei erantzuna eman behar die uraren kudeaketa modernoak, besteak beste:

- └ Erabilpen iraunkorra ziurtatu behar da, honek ondokoak eskatzen dituelarik:
 - ♣ Uraren erabilpen eraginkorra eta zentzuzkoa
 - ♣ Karga gaitasuna eta ingurunearen birsorkuntza gaitasuna ez gainditzea: hondakin uren kutsadura maila eta sortutako hondakin kopurua minimizatu eta hauen kudeaketa egokia ziurtatu.
 - ♣ Ibaien bioaniztasuna eta ur kalitatearen balioztapena eta babesa.
- └ Kalitatea babestu eta berreskuratu, bai giza erabilpen eta baita erabilpen ekologikorako ere.
- └ Ur falta gizarte garapenerako oztopoa izan dadin galarazi.

9.1.1. Ur baliabideak:

Oriako unitate hidrologikoak Urumeako arroarekin eta Nafarroarekin egiten du muga Ekialdetik, Arabarekin Hegoaldetik eta Urolako arroarekin Mendebaldetik. Urbiako Mendilerroan, Gipuzkoako Hegoekialdean, Arabako mugatik gertu jaiotzen da Oria ibaia eta Iparraldean, Orion, itsasoratzen da.

Gipuzkoako ibai luzeena (77,29 Km), emari handienekoa (33,84 l/s) eta arrorik zabalena duena da. Gainazaleko arroaren azalera 912,86 Km²-koa da; horietatik 881,99 Km² ibai nagusiaren arroari dagozkio eta 30,87 Km² erantsitako arroei (Iñurritza adibidez).



Oriako unitate hidrologikoaren egoera geografikoa

Sare hidrografikoa: Oria ibaiaren sare hidrografikoa ardatz nagusiak (Oria ibaia), lehen mailako zazpi ibaiadarrek (Iparraldetik Hegoaldera Leitzaran, Zelai, Araxes, Amezketa, Zaldibia, Agauntza eta Estanda) eta bigarren mailako 15 ibaiadarrek osatzen dute, ondoko taulan jasotzen den bezala:

ORIA IBAIAREN UNITATE HIDROLOGIKOA		
Ibai nagusiaren azpiarroak		Azalera (Km ²)
Oria		204,89
	Altzerri	11,66
	Santio	25,96
	Abalotz	9,48
	Asteasu	28,97
	Alkiza	7,85
	Albiztur	28,51
	Zubiri	12,24
	Mutiloa	15,88
	Ibiur	11,92
	Ursuaran	21,09
Leitzaran		123,20
Zelai		34,22
Araxes		98,77
	Basabe	12,18
Amezketa		39,57
	Bedaio	17,36
Zaldibia		26,83
	Urtzubi	13,33
Agauntza		82,87
Estanda		19,94
	Arriaran	10,97
	Santa Luzia	24,3
Azalera totala		881,99

Iturria: EAEko Mapa Hidrologikoa. Eusko Jaurlariza

Oria ibaia, Otzaurte inguruan bat egiten duten Aitzgorri mendilerroko erreka biltzaile batzuetatik sortzen da. Seguratik ibaian behera, Etxegarartetik jaisten den Ursuaran ibaiaren urak jasotzen ditu. Beasainen Arriaran urtegiak erregulatzen duen Estanda

ibaiarekin bat egiten du; ibai hau Goierriren ur hornikuntzarako erabiltzen da. Ibaiaren goi ibilgua izan arren bailarak zabalak dira eta gune askotan lodiera gutxiko alubioi metaketak agertzen dira. Ordizia eta Alegia artean, Aralar mendilerroan sortutako Agauntza, Zaldibia, Ibiur eta Amezketa ibaiek Oriarekin bat egiten dute ibaiaren eskuinaldetik. Aralar mendilerroan eraikitako Lareo urtegiak Aia-Iturrieta iturburuaren ur baliabideak erregulatzen ditu, udan ibaiari ura ematearren.

Tolosatik gertu ibaiak zokogune bat sortzen du. Andoain-Billabona-ko zokoguneak haranaren zabalkuntza nabarmena ahalbidetzen du. Lasarten Oria ibaiak bat-bateko biragunea egiten du mendebalderantz eta Usurbil motel-motel zeharkatzen du, meandro zabalak deskribatuz. Orion itsasoratzen.

Oria ibaiaren goi partean ura kalitate altukoa den arren, hirigune eta industriaren (papera, burdingintza eta metalurgia) kontzentrazioak batetik eta hondakin uren saneamendu ezak bestetik, arroaren uren kalitatea asko kaltetu dute.

Azken urteetan zehar arroaren uren kalitatean hobekuntza igarri da, nagusiki industria jardueren itxieren ondorioz. Hala ere, Oriak kalitate ekologiko txarra aurkezten du gaur egun.

9.1.2. Hornikuntza

Atal honetan Urola Kostako Udaltaldeko udalerrietan kontsumitutako uraren jatorria deskribatuko da.

Urola Kostako eskualdeko hornikuntza sistema Azpeitian kokatutako Ibai-Eder urtegiak eta Ur Edangarrirako Tratamendurako Estazioak osatzen dute. Sistema honek ur edangarria banatzen du Udaltaldea osatzen duten udalerrietan (Zestoa, Aizarnazabal, Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orion), eta baita Azkoitia eta Azpeitian ere.



Iturria: Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

Ur-bilketa eta edateko uraren arazketarako ekipamenduak. Kokapena

Nuarben kokatzen den Ibai-Ederreko urtegia harri-lubeta motakoa da, hormigoizko pantailaduna. 11.300.000 m³-ko edukiera du, 66 m-ko altuera, 700 l/s inguruko erregulazio-ahalmena eta 29 m²-ko isurketa-arroa ditu. Urtegi honek 60.500 pertsona baino gehiago hornitzen ditu.

Azpeitian kokatzen den Ibai-Ederreko Edateko Uraren Araztegiak (EUA), 550 l/s inguruko tratamendu-ahalmena du eta urtero 7.000.000.000 litro banatzen ditu gutxi gorabehera aipaturiko udalerrietan. Urak jasotzen duen tratamendua ondoko prozesu hauek osatzen dute: aurretiko ozonizazioa, erreaktiboak nahasteko kamera, dekantazioa, tarteko ozonizazioa, iragazketa, fluorazioa eta desinfekzioa.

Gaur egun Orioko bilketa sistema bi biltegik osatzen dute:

Katxinako biltegia (altakoa)

Orioko Bentako biltegia (bajakoa)

Jabego pribatuko beste biltegi bat ere badago (Kanpalekuko biltegia). Noizbehinka, larrialdi uneetan, sareak bertatik hartzen du ura.

Aiako Andatza auzoko depositua erabiltzeko aukera ere badago

Biltegi hauen ezaugarriak ondorengoak dira:

BILTEGIA	GUTXI GORA-BEHERAKO EDUKIERA	KAMARA KOPURUA	GUTXI GORABEHERAKO ZOLADURA KOTA	KLORAZIO SISTEMA
KATXINA	600 m ³	21	325 imga	Ur tratatua
ORIOKO BENTA	200 m ³	1	70 imga	Biltegian

Biltegitratze edukiera totala 800 m³koa da beraz (2003ko urriako datuak).

Lur hiritarrezinean badaude beren biltegi propioa duten etxebizitzak baino bakoitzaren egoera ezberdina da. Gaur egun biltegi hauek ez daude zerrendatuta.

Aintzinean, izen bereko ermita ondoan kokatzen den San Juango iturburuak hornitzen zuen herria. Iturburu hau erabiltzeari utzi egin zitzaion, uren kudeaketa Ur Kontsortzioaren esku utzi aurretik, Udalerrri osoa ezin baitzuen hornitu.

9.1.3.Ur kontsumoak

Orioko bajako kontsumoko datuak, 2002ko hirugarren hiruhilabetea eta 2004ko hirugarren hiruhilabeteen artean, hauek dira:

3.-2002	4.-2002	1.-2003	2.-2003	3.-2003	4.-2003	1.-2004	2.-2004	3.-2004
155.937	95.779	76.418	87.742	98.694	87.096	91.420	68.470	92.920

Iturria: Gipuzkoako Urak, S.A.

9.1.4.Saneamendua eta arazketa:

Urtegiek funtzio bikoitza betetzen dute: hornitzeko adina ur egon dadin ur bilketa ziurtatzen dute eta laminadero moduan jokatzen dute uholde garaian. Edateko Uren Araztegietan, urtegieetan bildutako urak tratamendu egokia jasotzen du, sistema fisiko-kimiko konplexuen bidez, ur edangarri bihurtzeko.

Urola Eskualdean Zumaia, Zarauzko eta Badiolegiko (Zestoa) Ur Zikinen Araztegiak (U.Z.A.) aurki ditzakegu. Bakoitzak ondoko ezaugarriak aurkezten ditu:

U.Z.A..	Aurretiko tratamendurako ahalmena (l/seg)	Tratamendu biologikorako gehieneko ahalmena (l/seg)	Biztanleria (bizi. – baliok.)	Urteko tratamendua (m ³ /urte)	Arazturiko udalerriak
Zumaia	250	150	20000	800000	Zumaia, Getaria
Zarautz	900	450	70000	2500000	Zarautz, Orio
Badiolegi	660	290	55000	2500000	Zestoa (eta Azpeitia eta Azkoitia Udaltaldeaz kanpo)

Iturria: Gipuzkoako Ur Kontsurtzioa

Saneamendu sistemak

Orioko saneamendu sistema Udalerriko kolektore orokorrak, Orioko ur zikinak Zarautzaino ponpatzeko sistemak eta Iñurritzako U.Z.A.-k osatzen dute.

Iñurritzako Hondakin Uren Araztegiaren diseinua ohandze fluidizatuko motakoa da (bioiragazkiak), prozesu fisiko-kimikoa barne hartzen duelarik. Karga kutsatzailea 55.000 biztanle baliokideei dagokiena da, aurretratamendurako gehieneko ahalmena 900 l/s-koa eta tratamendu biologikoarena 450 l/s-koa direlarik.

9.1.5.Kontrolerako udal ekimenak

2005eko urtariletik Ur Kontsurtzioak Uraren Ziklo Integrala kontrolatzen du.

Udal eraikinetan egiten den kontrol bakarra kontsumoarena da. Bestalde, kanpalekuko udal biltegian legionellosiaren aurkako aparatua jarri zen eta zegokion tratamendua egin zen.

9.1.6.Aurkitutako gabeziak

- ♣ Saneamendu sarea ia udalerriko osoan osatu da, Iturbide kalea eta Udaletxe inguruko plazan izan ezik.
- ♣ Marea bizien garaian arazoak sortzen dira, itsasoko ura filtratu eta saneamendu sarean sartzen delako. Beraz, esan liteke saneamenduaren arazketak ez duela %100ean funtzionatzen. Urte pare batean arazoa konponduko dela aurreikusita dago.

- ♣ Kanpalekuko udal biltegiak arazoak sortzen ditu. Kloroaren lurruntzea dela eta urari ez zaio tratamendu egokia ematen eta ur kopuru handia galtzen da.
- ♣ Gipuzkoako Foru Aldundiak ur biltegi berri baten eraikuntza aurreikusita dauka Katxiña-tik gertu.

9.2. ENERGIA

Energia kudeaketa udalerri edo eskualde batean iraunkortasuneranzko bidean planteatu beharreko erronketako bat da.

Bizi kalitatea energia iturri ezberdinen erabilerak ere baldintzatzen du, energia mota bakoitzari loturiko ingurumen eragina dela eta. Horrela, udalerri edo eskualde baten funtzionamendurako -garraiorako, industriarako, berogailu sistementzako, ur beroarentzako, argiztapenerako etab.- erabilitako energia iturriek eragin ezberdina izango dute aztertutako inguruaren gain. Ondorioz, udalerrietako gaur egungo eta etorkizuneko garapenaren plangintzaren barruan, eta iraunkortasun irizpideei jarraituz, energia horniduren eredua kontsideratzea oinarritzkoa da tokiko eta eskualdeko komunitate biziagoak eta autonomoak lortzeko.

Gaur egun, energia kontsumoa eskualde jakinen garapen maila ebaluatzeko parametro bezala erabiltzen da. Ekonomia garapena eta energia kontsumoa kontzeptuen arteko lotura islatzen du honek. Historikoki garapen maila handienak energia kontsumo altuenekin lotu izan dira. Lotura hau, ordea, ez da iraunkorra.

Ondorioz, garapen iraunkorra etorkizunerako estrategia moduan hartzeak bi aldagai hauek (ekonomia garapena eta energia kontsumoa) banandu beharra dakar, bizitza maila hobea lortzeko bide moduan beste oinarritzko printzipio batzuk jarraituz:

- ┌ Energia aurrezte
- ┌ Energia eraginkortasuna
- ┌ Energia kutsatzaileen ekoizpen eta kontsumoaren murrizketa

Zentzu honetan, beharrezkoa da pixkanaka ohiko energia iturriak (baliabide ez berriztagarrietan oinarrituak gehienetan) ordezkatzeko eta energia iturri berriztagarriak erabiltzeko (eguzki energia, haize energia edo energia hidraulikoa besteak beste).

9.2.1. Udalerriaren energia egitura. Energia iturriak


Berriki gasa sartu da herrian. Oraindik ez dago honen kontsumoen inguruko daturik.

9.2.2. Energía kontsumoa


Iberdrolak emandako datuen arabera, Orioko udalerriko energi kontsumoen bilakaera ondorengo izan da azken urteetan:

	FAKTURATUTAKO ENERGÍA (kWh)			
Ekonomia sektorea	2000	2001	2002	2003
Etxebizitzak	6.840.708	6.554.564	7.043.722	7.129.542
Industria	820.363	882.294	1.040.600	832.868
Zerbitzuak	3.901.803	4.346.544	4.438.242	4.895.873
Sailkatu gabeak	35.998	30.073	26.948	22.359
GUZTIRA	11.598.872	11.813.475	12.549.511	12.880.643

Etxebizitza eta zerbitzu sektoreetan goranzko joera nabarmentzen da, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala. Industria sektorean aldiz, 2002 eta 2003 urteen artean beherakada txiki bat egon zen energia kontsumoan.




Sailkatu gabekoen kasuan, kontsumoa pixkanaka gutxituz joan da azken urteetan.



Ondoko taulan Orion urteko eta biztanleko fakturaturiko energia kontsumoaren bilakaera ikus daiteke:

	2000	2001	2002	2003
Biztanleak	4.388	4.395	4.505	4.605
Energia fakturazio totala	11.598.872	11.813.475	12.549.511	12.880.643
Energia fakturazioa biztanleko	2643,43	2687,94	2785,69	2797,10



Datu hauen arabera kontsumorik altuena etxebizitza sektorean ematen da. Azken grafiko honetan ikus daitekeenez biztanleria eta biztanleko energia kontsumoa nahikoa modu paraleloan igo dira 2000 eta 2003 urteen artean. Honela, biztanleko energia kontsumoa %5 igo da tarte honetan.

9.2.3. Energia berriztagarriak

Gaur egun ez dago energia berriztagarrien sistemarik.

9.2.4. Udalerrian hartutako edo aurreikusitako energia aurrezteko neurriak

Urbanizazio berrietan fluxu kontrolagailuak jartzen dira eta gainontzeko urbanizazioetan jartzea ere aurreikusita dago.

9.3. Hondakinak

Atal honetan Orion sortutako hondakinen kudeaketaren analisia egingo da.

Ingurumenaren aurkako mehatxuak asko dira, baina larrienen artean hondakinak eta kontrolik gabeko isurketak aurkitzen dira. Hauek lurzorua, ura eta airearen kutsadura, paisaiaren aldakuntza eta azken finean ingurumenaren degradazioa ekartzen dute.

Horrela, etxean, industrian edo lehen sektoreko jardueretan jatorria duten hondakinen sorkuntza eta tratamendua ingurumen arloko arazo nagusienetakoa bihurtu da mundu mailan. Gaur egungo bizimodu kontsumistak eta merkatuan erabilpen bakarreko hainbat produkturen agerpenak sortutako hondakin kopuruan goranzko joera eragin du. Gainera, ekoizpen ekonomiko errentagarria ingurumena hondatuz lortu ohi da askotan (energetikoki eraginkorrak ez diren ekoizpen prozesuak, atmosferara igorpenak, isurketak...), jarduera hauetan sortutako ingurumen kostuen internalizazio eza dela eta.

Sortutako hondakinak modu egokian kudeatzeko helburuarekin, estatu mailan 1998ko apirilaren 20ko Hondakinen 10/1998 Legea promulgatu zen hiri hondakinak eta hondakin arriskutsuak arautuz. Lege honek tokiko erakundeek derrigorrez eskaini beharreko zerbitzu bezala jasotzen ditu udalerrietako hondakinen bilketa, garraioa eta eliminazioa. Lege honen aurretik 5000 biztanle baino gehiagoko udalerriak bakarrik zeuden derrigortuta zerbitzu hau eskaintzera. Oriori dagokionean, udalerriko hondakin solidoen zati birziklagarriaren kudeaketa Urola Kostako Mankomunitateak burutzen du; orokorrean Urola Kostako Mankomunitatea da hondakinen kudeaketako eskuduntza duen erakundea Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiaren kasuan eta Urola Erdiko Mankomunitatea Aizarnazabal eta Zestoaren kasuan.

9.3.1 Gaikako bilketa

Urtetako zabortegeiak Urola Kostako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako hiri hondakinak jasotzen ditu: Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia. Bertan hiri hondakinak, hondakin ez arriskutsuak eta hondakin geldoak jasotzen dira

Zarauzko Garbigunea, Abendaño industrialdean kokatua dagoena, 2001ean ireki zen hiritarren, eraikuntzako gremioen eta merkataritza sektorearen beharrei erantzuna

emateko. Erabiltzaileen erantzuna ona izan da, 2002 eta 2003 urteen artean bildutako hondakin kopurua %41,77 igo delarik. Hau dela eta Udal Elkarteak 2003ko azaroan Zarauzko Garbigunea zabaltzeari ekin zion, 4 edukiontzi gehiago ezartzeko. Era berean, lorturiko emaitzak ikusirik, joan den uztailaren 28an Udal Elkarteak Korta industrialdean Zumaiaiko Garbigunea eraikitzeke proiektua onartu zuen.

Urola Kostako Udal Elkarteko Ingurumen Sailak eskualdeko gaikako bilketa kudeatzen du.

Gaikako Bilketa	Hondakin industrialen gaikako bilketa eta beste zerbitzu batzuk.
Papera eta Kartoia	Kartoia
Ontzi arinak	Enpresentzako aholkularitza
Beira	
Pilak	
Ehunak	
Landare olio	
Etxeetako hondakin arriskutsuak	
Inausketa eta lorezaintzako hondakinak	

Etxeetako hondakin arriskutsuen bilketa zerbitzua Udal Elkarteko udalerririk zeharkatzen dituen egokiro ekipaturiko furgonetaren bidez burutzen da. Furgoneta honek, bestalde, landare olio erabilia ere jasotzen du. Hondakin arriskutsuok baimenduriko kudeatzaileengana igortzen dira modu egokian deskontaminatu eta birziklagarriak diren zatiak berreskuratzeko. Bilketa zerbitzu hau ez dago merkatal establezimenduei ez eta industriei zuzenduta. Orion zerbitzu hau hilabeteko lehen ostegunean burutzen da.

Bestalde, saltokietako kartoiak gaikako bilketako gertueneko puntuan utz daitezke, 19:00etatik 20:00etara astelehenetik ostiralera. Era berean, industrian jatorria duen kartoia puntu konkretu batzuetan uzteko aukera dago (Vinos Atxega, Arin y Embil eta Gureak). Honen harira, Zarautzen esperientzia pilotua jarri da martxan. Bertan, industrian jatorria duen kartoiaren bilketa egiteko, astelehenetik ostiralera, kale nagusirantz orientatua dagoen atean uzten dute enpresek. Zerbitzu honetan interesa dutenek, atxikimendu orria bete behar dute.

Udal Elkartek, berriki, taberna eta jatetxeei ontziak jasotzeko gurpildun edukiontziak eskuratzeko aukera eskaini die. Diagnostika egiterakoan, Orioko establezimendu bakarrak eskatu zuen zerbitzu hau. Esan beharra dago, zenbait kasutan, establezimenduan edukiontzia kokatzeko lekua ez izatea dela eskaera ez egitearen arrazoia.

Bestalde, inprimagailuetako kartutxoak uzteko aukera dago Orioko paper denda batean.

Edukiontzi kopurua eta sorturiko hondakin tonak ondorengo taulan zehazten dira:

ETXEETAKO HONDAKINEN KUDEAKETA (2003)		
HONDAKINA	SISTEMA/TONAK	INSTALAKUNTZA/KUDEATZAILEA
Hiri Hondakinak	105 edukiontzi (10 lurperatuak) 2006.86Tn/urteko + 1004.49 Tn/urteko hondartzetako hiri hondakinei dagokienean	URTETA
Beira	17 Edukiontzi 102,408 Tn/urteko	ECOVIRIO
Papera	17 Edukiontzi 81,30 Tn/urteko	DESPANOR SL
Pilak	1,049 Tn/urteko	DESPANOR S.L"
Ontziak	14 Edukiontzi 26,40 Tn/urteko	GSMS
Landare olio	Furgoneta 1141 litro/urteko	ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L..
Ehunak	18 (eskualde osoan) 16.166 kilo/urteko (Orioko datua) 3 Orion	OLDBERRI S. COOP
Hondakin geldoak	2780Kg/urteko	URTETA


Urola Kostako Udal Elkartek emandako datuen arabera 2003. urtean Urtetan jasotako Hiri Hondakin Solidoen kopurua ondorengoa da:

HIRI HONDAKIN SOLIDOAK	
UROLA-KOSTAKO UDAL ELKARTEA	
URTARRILA	1.628,860Tn
OTSAILA	2.247,830Tn
MARTXOA	1.736,870Tn
APIRILA	1.561,410Tn
MAIATZA	1.788,400Tn
EKAINA	1.702,530Tn
UZTAILA	1.936,380Tn
ABUZTUA	1.973,340Tn
IRAILA	1.728,660Tn
URRIA	1.683,080Tn
AZAROA	1.669,680Tn
ABENDUA	1.693,740Tn
GUZTIRA	21.350,780Tn

2003ko urtarrila eta otsaila bitartean, Prestigen isurpenaren ondorioz hondartzan jasotako hondakinak zirela eta, hondakin kopuruan igoera nabarmena izan zen

Urola-Kostako Mankomunitateak emandako datuen arabera, Orioren kasuan, 1997 eta 2003 arteko eboluzioa ondorengoa izan da:

	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Guztira
1997	163520	164810	158180	211700	159780	285480	215900	211660	171660	159290	143980	162560	2208520
1998	149840	131820	159300	161220	170300	188440	192960	197360	168420	189200	182220	147240	2038320
1999	155520	152600	189020	177040	185420	196200	228320	220900	169990	156000	156380	174240	2161630
2000	164020	145520	184160	172320	178960	180840	191940	250680	182020	224880	213880	219280	2308500
2001	197700	193320	203940	191840	179300	200820	244280	258000	186920	189960	163520	165640	2375240
2002	170880	180720	181440	186740	208140	198600	215240	242780	203760	175240	201780	229340	2394660
2003	224460	677570	240460	191320	204320	216300	253380	253160	209400	191440	185600	210460	3057870



Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia udalerrietan guztira jasotako gaikako bilketako hondakin kopurua zehazten da ondorengo tauletan:

Papera (Kg)							
	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003
Aia	19.139	18.506	14.427	16.276	13.366	13.435	19.546
Getaria	26.240	31.621	39.986	52.999	64.109	65.022	64.262
Orio	65.275	70.775	72.239	99.980	107.617	78.430	81.294
Zarautz	342.291	385.210	448.146	562.684	614.664	646.240	627.068
Zumaia	172.304	173.702	179.974	204.991	202.520	222.882	221.906
Guztira	627.245	681.812	756.771	938.930	1.004.277	1.028.011	1.014.076

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarte

2002an, kartoia atez ate biltzeko zerbitzua jarri zen martxan. Hau da, 2001 eta 2002 artean jasotako paper kopurua jaistearren arrazoia. 1997 eta 2001 bitarteko datuak, papera eta kartoia batera jasotakoari dagokio. 2002 eta 2003ko datuak paper soilari dagozkio.

Kartoia (atez ate)(Kg)		
	2002	2003
Guztira	257.790	448.470

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarte

Beira (Kg)							
	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003
Aia	26.906	25.260	29.005	31.319	35.089	38.610	42.824
Getaria	64.356	72.737	93.962	99.105	128.211	115.123	129.328
Orio	50.779	51.427	57.875	61.166	79.888	90.317	102.408
Zarautz	344.016	396.984	473.567	576.262	624.025	647.784	719.778
Zumaia	137.776	153.058	165.312	197.545	203.681	220.476	237.564
GUZTIRA	623.833	699.466	819.721	965.397	1.070.894	1.112.310	1.231.902

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarte

Ontziak				
	2000	2001	2002	2003
Aia	2.790	3.082	6.045	7272
Getaria	7.255	13.334	18.184	23762
Orio	11.271	19.088	24.790	26399
Zarautz	75.664	114.489	139.634	153703
Zumaia	21.540	38.448	46.512	59103
GUZTIRA	118.520	188.441	235.165	270.239

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarteak

Pilak							
	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003
Aia						48	133
Getaria						270	707
Orio						349	1.049
Zarautz						1.196	2.985
Zumaia						628	1.482
GUZTIRA	3.718	3.055	2.808	7.080	2.760	2.491	6.356

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarteak

Ehunak (Kg)		
	2002	2003
Aia	255	2.418
Getaria	4.001	5.847
Orio	9.492	16.166
Zarautz	64.660	73.465
Zumaia	13.449	25.734
GUZTIRA	91.857	123.630

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarteak

Landare-olioak (litro)		
	2002	2003
Aia	120	537
Getaria	350	1.450
Orio	240	1.140
Zarautz	880	4.570
Zumaia	135	1.360
GUZTIRA	1.725	9.057

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarteak

Garbigunean jasotako hondakinen bilakaera ondokoa izan da:

	2000	2001	2002	2003
Txatarra			22.320	40.600
Egurra			180.420	235.855
Obra-hondakinak			254.620	329.020
Kartoia			14.930	33.934
Hiri hondakinak			332.600	508.306
Lerro grisa eta marroia	5.104	4.419	14.498	14.265
Hondakin arriskutsuak		1.126	2.272	3.260
Gurpilak	47.800	42.400	50.780	60.710
GUZTIRA (Kg)		47.945	872.440	1.225.950

Iturria: Urola Kostako Udal Elkartea

Datu guzti hauek eskualde mailan emandako birziklapen tasaren igoera nabarmentzen dute.

9.3.2. Tasak

Hondakinen kudeaketa zerbitzuari dagozkion tasak ondorengoak dira:

Kontzeptua	Orio	Urola kostako Udal Elkartea	Orioren portzentaia
Bilketa eta garraioaren kostua	79.105,50 €	538.101,34€	%14,70
Udalerrien ekarpena Udal Elkarteari (1)	48.383,83€	407.375,50€	%11,88
Kostu totala	127.489,33€	945.476,84€	%13,48
Tasa bilketa(2)	80.858,09€	885.405,79€	
Zerbitzu guztiaren estaldura %	%63,4		
Bilketa eta garraio zerbitzuan estaldura %	%102,2		

Iturria:Udalerriak

(1) Udalerriek egindako ekarpenak. Mankomunitateko gastu totala (gastu orokorrak+gaikako bilketa+isurketa) 634.709,76€koa da.

(2) Tasa bilketako aurreikuspena. 36.000€ Aian, 78.000€ Getarian, 83975€ Orion, 239300€ Zumaiñan eta 459122,4€ Zarautzen.

9.3.3. Kontrol jarduerak.

Sortutako hondakin kopurua dela eta, berriki gaikako bilketarako edukiontzi berriak ezarri dira Orioko Bentan.

Motondoko zabortegia kokatzen den eremua nekazal lur moduan erabili zen 1953raino gutxi gorabehera. Urte honetan izandako uholdeen eraginez landaredia nabarmenki aldatu zen eta lurzoruaren gazitzearen eraginez nekazaritzarako lur desegokia bihurtu zen.

Honela, lehen isurketak egiten hasi ziren eta Udalak lurrok lurzoru industrial izendatu zituen. 1971 urtean, gutxi gorabehera, lan publikoetako materialak, hondartzako area, fundizioko area eta obretako hondakinak erabili ziren betegarri moduan, guztiak material geldo moduan sailkatuak; dena den jatorri ezezaguneko eta kontrolik gabeko isurketak ere egin ziren.

Beranduago Eusko Jaurlaritzak hezegunearen konplexutasuna eta ekologia aniztasuna nabarmentzen zuen txostena igorri zuen, isuritako materialak erretiratu eta eremua berreskuratzea gomendatuz. Horrela, 1994tik aurrera, inguru honetako jarduerak gelditu egin ziren.

Gaur egun Oria ibaiko padura gunea Euskal Herriko Hezeguneen Inbentariorekin baitan sartuta dagoelarik.

9.4 Atmosfera eta akustika

Eskualde bateko airearen kalitatea bertako biztanleen bizi kalitatean eragin zuzena duen oinarritzko faktorea da.

9.4.1. Atmosfera

Kutsatzaileak atmosferara igortzen direneko prozesuari emisio edo igorpen deritzo; modu honetan askaturiko kutsatzaileak lehen mailako kutsatzaile izendatzen dira. Kutsatzaileok atmosferara iristean hainbat prozesu fisiko-kimikoen bidez, batetik desagertu egin daitezke, edo bestetik beste kutsatzaile bihur daitezke (bigarren mailako kutsatzaileak). Aipaturiko prozesu fisiko-kimikook hainbat motatakoak izan daitezke: kutsatzaileen arteko erreakzioak -askotan eguzki argia, ura edo beste substantzia batzuk eraginda-, kutsatzaileen barreiadura edo kutsatzaileen deposizioa. Kutsatzaile batek puntu jakin batean duen kontzentrazioa inmisio izenarekin ezagutzen da.

Airearen kalitatea gizakiok burututako jarduera ezberdinek eragindako substantzia kutsatzaileen emisioek baldintzatzen dute, substantzia kutsatzaile hauen kontzentrazio handiek airearen kalitatea okertzen dutelarik.

Atal honetan Udaltaldeko udalerrietako aire kalitatearen inguruko datuak aztertuko dira:

Emisioak:

Substantzia kutsatzaileen igorpenari dagokionez, iturri nagusiak ondorengoak dira:

♣ Ibilgailuak:

Zirkulazioa da EAE mailan kutsatzaileen igorpen iturri nagusienetakoa –eta zarata sortzaile nagusienetakoa-, besteak beste karbono monoxidoa, nitrogeno oxidoak eta konposatu organiko lurrunkorrak igorriaz. Gainera, aipaturiko igorpenak lurzoru mailakoak dira; hau dela eta, kutsatzaileen dispersioa ahalbidetzen ez duten hiri egitura trinkoetan atmosfera kalitate txarra eragin dezakete.

Oriori dagokionean ere zirkulazioa da airearen kalitatean eragin nabarmenena duen faktorea. Aita Lertxundi eta Anibarko Portua kaleetan poluzioa nabarmena da, bertatik N-634 errepidea igarotzen dela eta. Badirudi garraio sektorearen ekarpena atmosferara igorritako kutsatzaileetan gero eta handiagoa izango dela garraiobide bezala autoa gero eta gehiago erabiltzen delako.

lhes hodietatik igorritako gasen neurketa zirkulazioaren eraginez emandako igorpenak kontrolatzeko modu eraginkorra da. Neurketok 1992ko ekainaren 22ko 92/55/CEE zuzentarauak erregulatzen ditu.

♣ Industria jarduerak:

Industria sektorea, lanpostu eta aberastasun sortzailea izateaz gain, baliabide/material kontsumitzaile eta atmosferaren kutsatzaile handienetakoa da. Era berean, beharrezkoa da jarduerokin lotutako zirkulazioa kontutan hartzea (merkantzien garraioa batik bat).

Atmosferara egiten diren igorpenak konbustio prozesuekin lotu ohi dira; hortaz igorpenen ezaugarriak erabilitako erregai motaren eta erabilitako igorpenen neurri zuzentzaileen menpe egongo dira. Nazioarte mailan adostutako zenbait akordiotan jasotzen denez airearen kalitatea industria sektorean baliabide eta materialen erabilpen efizientzia hobetuz, kutsadura murrizteko teknologia eta sistemak erabiliaz, atmosfera kaltetzen duten substantziak ordezkatzuz edo hondakin eta azpiproduktuak gutxituz hobetu edo berma liteke.

Orioko “Nueva Cerámica de Orio” enpresak ikatza erabili ohi zuen erregai moduan baino berriki gas naturala erabiltzeari ekin dio igorpen kutsatzaileak gutxituz. Era berean hondakin atmosferikoen ebaluazioa burutzen hasi da enpresa hau.

♣ Etxebizitza eta zerbitzu sektorea:


Etxebizitza eta zerbitzu sektoreko igorpen atmosferikoen ezaugarriak berokuntza sistemetan erabilitako erregai motaren menpe daude batik bat.

Oriori dagokionean, erregai ohikoenak elektrizitatea eta petrolioaren eratorriak – petrolioaren gas likidotuak, gasolioa eta fuel olioak- dira.

Airearen kalitatean eraginik larriena petrolioaren eratorriek izan ohi dute, hauen atzetik elektrizitatea eta egurra kokatzen direlarik. Petrolioaren eratorri likidoak, eta baita elektrizitatea ere, gas naturalaz ordezkatzeko substantzia kutsatzaileen igorpenen murrizketa eragingo luke, karbono monoxidoa edo sulfuro monoxidoari dagokionean adibidez.

Airearen kalitatearen neurketa:

Euskal Herriko airearen kalitatearen neurketako estazioak ondoko irudian jasotzen den bezala daude banatuta:



Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Departamentuko Airearen Kalitatea Neurtzeko EAEko Sarearen baitan Pagoetako Natur Parkean kokatutako estazio bat dago.



Pagoetako airearen kalitatea neurtzeko estazioa.
Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Estazio honetan jasotako emisio datuak

Estazio honetan 2004ko urriaren 13an jasotako datuak ondokoak izan ziren:

	Min-Max	ORDUAK																							
		1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
NO ₂		4	3	3	3	3	3	4	4	6	3	5	5	5	8	8	6	10	14	13	9	6	6	4	3
NO		1	1	1	1	1	1	1	1	2	1	2	2	2	2	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1
O ₃		74	75	74	75	75	74	73	68	60	75	75	75	78	73	75	79	67	64	66	73		71	72	76
CO		51	44	42	39	37	49	73	84	145	183	220	242	262	240	207	211	219	218	155	154	169	178	160	138
PM ₁₀		13	13	11	10	8	9	8	2	2	5	6	5	6	9	13	11	14	16	17	13	13	14	13	12
SO ₂		7	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	7	7	7	7	6	6	6	7	8	7	6	5	5

Datu guztiak $\mu\text{g}/\text{m}^3\text{tan}$ = microgramoak/metro kubikoak
Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Jarraian, Pagoetako estazioan 2004ko urriko lehen astean jasotako batez besteko datuak jasotzen dira:

	Asteartea Astelehena Igandea Larunbata Ostirala Osteguna Asteazkena							
	Min-Max	X-12	X-11	X-10	X-9	X-8	X-7	X-6
NO ₂		5	6	4	5	7	13	8
NO		1	1	1	1	1	3	1
O ₃		71	68	75	76	65	41	59
CO		108	150	73	115	180	188	121
PM ₁₀		11	12	12	13	31	27	14
SO ₂		7	6	4	5	5	5	5

Datu guztiak $\mu\text{g}/\text{m}^3\text{tan}$ = microgramoak/metro kubikoak
Iturria Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Ondoko tauletan analizatutako substantzia kutsatzaile bakoitzaren kalitate tartearak eta kontzentrazio tartearak ($\mu\text{g}/\text{m}^3$) erlazionatzen dira, 1073/2002 Errege Dekretuan definitutako tolerantzia marjinaren urteko aldaketaren arabera. Taulok Udaltaldeko herrietako airearen kalitatea baloratzeko balioko dute:

SO ₂ eta O ₃ tartearak eguneko		
Tartea	SO ₂ $\mu\text{g}/\text{m}^3$	O ₃ $\mu\text{g}/\text{m}^3$
0-50	0-63	0-60
51-100	63-125	60-120
101-150	125-187	120-180
>150	>187	>180

PM ₁₀ tartearak eguneko 2003 eta 2005 urteen artean			
Tartea	2003	2004	2005+
0-50	0-30	0-28	0-25
51-100	30-60	28-55	25-50
101-150	60-90	55-83	50-75
>150	>90	>83	>75

NO ₂ tarteak eguneko 2003 eta 2010 urteen artean								
Tartea	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010+
0-50	0-135	0-130	0-125	0-120	0-115	0-110	0-105	0-100
51-100	135-270	130-260	125-250	120-240	115-230	110-220	105-210	100-200
101-150	270-405	260-390	250-375	240-360	230-345	220-330	210-315	200-300
>150	>405	>390	>375	>360	>345	>330	>315	>300

CO tarteak eguneko 2003 eta 2005 urteen artean			
Tartea	2003	2004	>=2005
0-50	0-7000	0-6000	0-5000
51-100	7000-14000	6000-12000	5000-10000
101-150	14000-21000	12000-18000	10000-15000
>150	>21000	>18000	>15000

Udaltaldeko herrietako airearen kalitatearen balorazio kualitatiboa

Urola Kosta Udaltaldeko udalerrietan, Pagoetako estazioan jasotako datuen arabera, ez dago kutsadura atmosferikoko arazo nabarmenik.

Oriori dagokionean, arestian aipatu den bezala, kutsadura atmosferikoa foko puntualetan antzematen da zirkulazioak eragindako emisioak direla eta.

9.4.2.Zarata

Hiri handietako zarata maila gero eta handiagoa da, biztanleen ongizatean eragin nabaria duelarik honek. Zaratak gizakiongan duen eragina zenbait faktoreren menpe dago -zarata mota, esposizio denbora edo pertsona bakoitzaren sentikortasuna- beronen ondorioak mota askotakoak izan daitezkeelarik –entzumenaren galera, haserrea, loaldia oztopatzea, etab.-.

Kutsadura akustikoaren iturriak: Eusko Jaurlaritzaren Zarata Mapa

Eremu jakin bateko kalitate akustikoa Zarata Mapa bat burutuz moldatzen da. Hasteko eremu horretako puntu ezberdinetako zarata presioa neurtzen da eta jarraian baimendutako zarata maila maximoen arabeko zonifikazio bat ezartzen da (zona bakoitzeko erabilpenen arabera baimendutako zarata maila ezberdina izango da). Amaitzeko kasu bakoitzeko kalitate helburu batzuk ezartzen dira.

Zarata iturriak, orokorrean, lau motatakoak izan ohi dira:

- Garraioa
 - o Errepideak
 - o Trenbideak
- Industria
 - o Industriak (lokalak)
 - o Makinak
- Hirigunea
 - o Zirkulazioa
 - o Tailerrak
 - o Gaueko aisialdirako guneak
 - o Lanak
 - o Aparkalekuak
- Beste batzuk
 - o Festak
 - o Merkataritza guneak

Udaltaldeko udalerrietako Zarata Mapa

1992 urteaz geroztik burututako ikerketei esker EAEko Zarata Mapa burutu da. Mapa honen bidez, besteak beste garraio sarea (errepideak eta trenbideak) edo industria guneen eraginez, euskaldunok jasan behar dugun zarata maila sakonki ezagutu ahal izan da; era berean zaratak eragindako inpaktua murrizteko beharrak eta aukerak ere sakonki ezagutu ahal izan dira.

Urola Kostako Udaltaldea osatzen duten herrietan, EAEko Zarata Mapan oinarrituta, detektatu diren zarata arazoak ondokoak izan dira:

- Errepideek eragindako eragin akustikoa:

Errepide sarean eginiko azterketetan 70 dBAtik gorako zarata maila (galtzadatik 10 metrora) sortzen duten errepide tarteak identifikatu izan dira; Udaltaldeari dagokionean inpaktu akustikoa eragiten duten tarteak ondoko udalerrietan kokatuko lirateke:

- o Zarautz (A-8 autobidea)
- o Getaria, **Orio**, Zarautz eta Zumaia (N-634)

- Industria guneek eragindako inpaktu akustikoa:

Industria guneek eragindako inpaktu akustikoak Udaltaldeko ondoko herrietan detektatu dira:

- o Aia

- **Orio**
- Zarautz
- Zumaia

Udalerriko zarata arazoak (Udal iturrien arabera)

Orion detektatu diren zarata arazo nagusiak ostalaritza eta zirkulazioarekin lotutakoak dira.

Ostalaritza sektoreari dagokionean zarata arazoak neurri batean gutxitu egin dira establezimenduetan zarata maila kontrolatzeko sonometroak ezarri direlako.

Trenbideak udalerria zeharkatzen duen arren gaur egun arte ez du zarata arazorik eragin..



2004ko abenduaren 1ean burututako Herriarren Partaidetza Foroan jasotako kezka nagusiak jarraian adierazten dira::

- ♣ Itsasadarreko lokatzari kirats izugarria dario. Marea behean zikinkeria ugari geratzen da agerian.
- ♣ Eusko Gudari kalea 2003 urtean berriztatu zen arren estolderiari kiratsa dario oraindik ere (2004ko abendua).
- ♣ Kale garbitzaileek zakur kaken garbiketa lanak hobeto egin beharko lituzkete.
- ♣ Gaur egun Orion ez dago dunarik.

10. JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA

Atal honetan giza jarduerak Orioko ingurune fisiko eta naturalean eragindako inpaktuak deskribatzen dira.

10.1 Baso ustiapenak:

Landare paisaiari erreferentzia zehatza eginez, baso ustiapenak eremu honetako jatorrizko espezien gain eragin du, koniferen onuran gehienetan.

Basogintzak, paisaiarengan eragin eta biodibertsitatearen galera ekartzeaz gain, eskualdean beste inpaktu esanguratsu batzuk ere sortu ditu:

- ♣ Eskualdeko erliebe gorabeheratsuak, aldapa moderatu eta handiz inguratutako haran estuz osatua, lurzorua higidura efektu negatibo garrantzitsuenetako bat izan dadin eragiten du. Fenomeno hau areagotu egiten da landaketa berriak direla eta lursailak garbitu eta moldatzeko hondeamakinak erabiltzen direneko kasuetan, izan ere marina astunek materia organikoz osatutako geruzaren zati handi bat ezabatu egiten baitute, lurzorua trinkotzea eraginez era berean. .
- ♣ Aurre antolaketa eta koordinaziorik gabe baso pistak irekitzeak baso eremuen ezabatzea dakar, gainazaleko isurketa fluxu handien sorkuntza, lurzorua trinkotzea eta higidura eta abar faboratuz.
- ♣ Foru Aldundiko araudiak finkatutako basogintza distantzia minimoak ez betetzeak (eraikuntza, larre-toki, belardi, bide, eta abelbide publikoekiko, nahiz landaketa ezberdinen artekoak) baso suteekiko zaurgarritasuna areagotzea suposatzen du; era berean herritar, lur-jabe eta abarren arteko liskarrak sortzea errazten du.
- ♣ Partzela pribatuetako landaketak ez daude erregulatuta; eskaerak Foru Aldundia eta Udalari egin beharko litzaizkieke baino azken honi ez zaio eskaerarik iristen. Udalak ez du eskumenik non landa litekeen erabakitzeke; non landa litekeen eta non ez erabakitzeke azterketa bat egin beharko litzateke, erabakiak justifikatu ahal izateko.

Azkenik, basoetako izurrien gainera kontrolari dagokionean, hauen eragina urtero ebaluatzen da eta tratamendu biologiko-kimiko integratuak burutzen dira. Honetarako batzutan baso eremuak intsektizida batekin (tidimil) fumigatu egiten dira hegazkin bidez. Intsektizida honek ez du modu selektiboan jokutzen, hortaz, inpaktu negatiboak

eragiten ditu, adibidez nekazaritza ekologikoko ustiattegietan. Bestalde, produktu hau gasoliotan disolbatu ohi da, efektu kaltegarria areagotuz.

Udalerrian antzematen den arazo nagusienetako bat zera da, baso azaleraren zati handi bat jabego pribatukoa dela, honek Udalak bertako landaredia sustatzeko politikak garatzea oztopatzen duelarik (horretarako Udal Plan bat badago baino lurzoru publikoan soilik de aplikagarria).

10.2. Nekazaritza eta abeltzaintza:

Nekazal jarduerekin lotutako ingurumen eraginik esanguratsuenak:

- ♣ Nekazal jarduera batzuk landare-osasunarentzako produktuetan jatorria duten hauts, gas... igorpenak eragin ditzakete (batzuk gizakion osasunean eragiten dutela frogatuta dago). Produktu kimikoak (pestizidak, ongarriak,...) modu intentsibo eta desegokian erabiltzeak lurpeko urak kutsa ditzake.
- ♣ Beharrezkoa da, halaber, nekazaritzako hondakinak modu egokian kudeatzea: landare-osasunarentzako produktuen edukiontziak, plastikoak, eta abar.
- ♣ Urak, agente natural bezala, landaredia edo laborantzarik gabe geratu den zoru biluziarengan higadura eragin dezake
- ♣ Higadura edota nekazal jarduera desegokiak lurzoruaren egitura eta beronen propietate fisiko-kimikoengan eragin dezakete.

Modu generikoan, tokiko edo eskualde mailako nekazal jarduera iraunkorrek aipaturiko inpaktu negatiboa pixkanaka ekiditen lagundu beharko lukete, dibertsitate ekologiko eta paisajistikoa mantendu, babestu eta berriztatzen lagundu eta balio erantsi bilakatuz. Nekazaritza ekologikoak horretan laguntzen du. Honen harira, berriki onartu da landa-etxe eta nekazaritza ekologikoko ustiategi batentzako proiektua Lusarbe inguruan.

Udalerriko nekazal ustiategi handiena Salmeristi baserrian dago, bere lurren %50a berotegiz osatuta baitago.

Abelazkuntzarekin lotutako ingurumen eraginik esanguratsuenak:

- ♣ Abeltegi edo ustiategi intentsiboetako hondakinen hartidura dela eta kiratsa sor daiteke.

- ♣ Abelazkuntzako hondakinak ongarri bezala modu desegokian erabiltzeak lurzorua eta lurpeko uren kutsadura eragin dezake. Era berean, eta ganadua elikatzeke erabilitako pentsuen arabera, hauek lurzoruan pila daitezke kate trofikoetan barneratuz.

Gaur egun Orion 6 behi ustiategi intentsibo daude:

- *Txara*: 80 abel buru eta zenbait berotegi.
- *Andu-berri*: 60 buru
- *Itxazpe*: 25 buru
- *Itxaiz*: 30 buru
- *Mareoerota*: 60 buru
- *Lertxundi*: 15-20 buru

Udalerrian ardi ustiategi batzuk eta oilasko granja bat ere badira.

Gaur egun sektore honetako hondakinen inguruko araudiaren betetzea ez dago kontrolatuta; hortaz Udalak jarduerok araudia betetzen duten edo ez esateko adina informaziorik ez dauka.

10.3. Arrantza:

Orion, azken 10 urteetan, arrantza sektoreak nabarmen egin du behera; dena den oraindik ere arrantzale herri bat dela kontsideratzen da.

Orioko itsasontziek antxoa, txitxarroa, berdela... harrapatzen dute otsaila eta ekaina bitartean. Uztaila eta abendua bitartean, berriz, hegala burra harrapatzen dute. Ibai-ahoan txipiroia, suge-arraina... arrantzatzen duten ontzi txiki ugari ere bada Orion. Neguan angulatan ibiltzen den ontzirik ere bada.

Arrantzaren ingurumen eraginik nabarmenetako batzuk ondoko aspektuekin erlazionatzen dira:

- ♣ Kate trofikoak aldatzea, harrapaketen ondorioz ematen diren aldaketa demografikoak direla eta.
- ♣ Heldugabeen harrapaketak.
- ♣ Espezie mehatxatuen egoeraren okertzea harrapaketa nahi gabekoak direla eta.

- ♣ Birsorkuntza oztopatzen duten jarduerak burutu eta legez kanpoko arrantza erak erabiltzea.
- ♣ Itsasontzietako motorrak ez mantentzea.
- ♣ Itsasontzietako saia, soto eta tankeetako garbiketako hondakinak itsasora isurtzea.
- ♣ Itsasontzietako kroskoetan anti-fouling pinturak erabiltzeagatik itsasoa kutsatzea.
- ♣ Hondakin arriskutsuak modu desegokian kudeatzea, batez ere motorreko olio erabiliak. Gaur egun Orion olio hauek bidoietan jasotzen dira.
- ♣ Kate trofikoan ingurumen inpaktu potentzial bat eragin dezaketen espezieak askatzea.
- ♣ Hauskortasun natural handiko arrantza ibilbideak erabiltzea.

Itsasontzietan sortutako hondakinei dagokienean, euren gaikako bilketa errazteko kanpaina bat burutu zuen Urola Kostako Manokunitateak, baino hau amaitu ostean ez da banaketa egiten jarraitu.

10.4. Industria eta zerbitzuak:

Industria jardueren ingurumen eragina balioztatzerakoan jardueron eraginpean egon daitezkeen aspektuak edukitzen dira kontutan: baliabide naturalen kontsumoa (lurzorua, ura, energia eta gainontzeko lehengai eta gai osagarriak) eta hondakinak, ur zikinak, zarata eta igorpenak. Orioko Udala, gaur egun, eguneratutako jarduera lizentzien jarraipena egiten ari da. Azken 15 urteetan sortutako jarduerak lizentziak izapidetuta dituzte, baino bada egungo araudia betetzen ez duenik.

Udalerriko enpresa esanguratsuenak ondokoak dira:

- Botaleku aroztegia
- Orio Konserbak
- Errasti upategia
- Arin y Embil SRC
- Leunda SL altzariak
- Lerchundi Huegun Jose Juan
- Atxega ardoak

“Nueva Cerámica de Orio” da Orion kutsadura atmosferikoa dela eta arazo gehien sortu izan dituen enpresa, ikatza erabiltzen zuelako erregai moduan. Berriki ikatza gas naturalaz ordezkatu dute, jarduera eguneratu eta hondakin atmosferikoen ebaluaketa proiektuaren baitan sartzeaz gain. Dokumentu hau lantzerako momentuan ez dago datu berririk. Enpresa aurkitzen den eraikuntza babestuta dagoenez hirugarren sektoreko erabileretara bihurtzea eskaini zaio jarduera honi.

Orion kutsadura arazo nabariak hiri-lurrean kokatutako jarduerak eragindako zarata eta zenbait kasutan usain txarra dira.

Kexa gehien sortarazten dituen arazoa zarata da. Tabernetan sonometroak ipini direnetik zarata arazoak kontrolatu eta kexa kopurua murriztea lortu da.

Merkataritza eta turismo zerbitzuen egitura

Orion, merkataritza eta ostalaritza egiturari dagokionean 3 zona ezberdindu daitezke: Egun herri dinamika eta bisitarien zirkuitutik at gelditzen den Hirigune Historikoa (goi herria), egungo herrigunea (behe herria) eta eraikitzen ari den edo itsasadarrentz eraikitzeko bidean den herria.


Eskaintza Aita Lertxundi, Aritzaga eta Eusko Gudari kaleek osaturiko luzetarako ardatz bakar eta luzearen gain artikulatu izan da historikoki, herriko merkatal establezimenduen %70 eta ostalaritza establezimenduen %42 taldekatuz. Ardatz honek hondartzaranzko zirkulazio bidea osatu izan du historikoki, igarotze efektu bat eraginez, itxurazko kontzentrazio bat eragin arren funtsean pasaerakoa. Gaur egun Arrantzale ardatz paraleloa agertu eta etengabe sendotzen ari da, Erdiguneko Eremuko hiri-bilbea indartu eta deskribaturiko luzetarako eskemarentzako etorkizunerako aukera berriak sortuz.

Hondartza da Orioko oinarritzako erakargarri turistikoa; herrigunetik urrun geratu arren gaur egun Hondartza Proiektuari Esker gerturatze prozesuan dago. Hondartzan hotel-eskaintza garrantzitsua (hotel berria eraikitzen ari dira) eta kanpina kokatzen dira. Gainerako ostatu eskaintza oso txikia da.

Udalerriak baditu sustatu nahi diren beste erakarmen mota batzuk: itsasadarra, paisaia, Hirigune Historikoa edota arrantza portua.

Oriok jasotzen duen turismoa sasoikoa dela esan liteke, batez ere egun batekoa (igandea) eta gaurik bertan egiten ez duena; honek probetxua ateratzea zaildu egiten du.

Turistei egindako inkestak ondoko emaitzak eman zituen euren jatorriari dagokionean:



Inkesta burutu zuten turisten %80ak Oriora lehen bisita zuen eta bertan ostatu hartu zutenen %51ak kanpina aukeratu zuen. Udalerraren balorazioari dagokionean, emaitza txarrenak jaso zituzten atalak aparkalekuak, monumentuak, jarduera kulturalak eta museoak izan ziren. Paisaia, hondartza eta turismo bulegoak (hiru hilabetez egoten da irekita) balorazio ona jaso zuten.

10.5. Lurzoru poluituak:

Udalerri iraunkor bat, lurzoruari dagokionean, honen erabilera eraginkorra sustatzen duena da, eraiki gabeko balio handiko lurzorua, berdeguneak eta garapen urbanistikoaren biodibertsitate balioak babesten dituen, lurzoru poluituak eta utzitakoak leheneratzen dituen.

Potentzialki poluitutako lurzorua zera da: poluitzaileak izan daitezkeen jarduerak jasaten edo jasan izan dituen lurzorua. EAEn kutsatutako kokalekuak ezagutzea ezinezkoa izan arren, iturri potentzialki poluitzaile kopuru altua dela eta, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak (IHOBE, S.A.) 1988an industri sektorer

bideratutako inbentario bat burutu zuen. Azterketa honek, "EAEko Lurzoruaren Poluitzaile izan daitezkeen Jarduerak dituzten Lurzoruen Inbentarioa", 34 Udalerritan kokatutako potentzialki poluitutako lurzoruak aztertu zituen.

Ondoko taulan Orion inbentariatutako partzela kopurua, mota eta azaleren laburpen bat jasotzen da.

Lurzorua Poluitzeko Jarduera Potentzialak dituzten Lekuen Inbentarioa. Orio.

KOKAPEN MOTA		Leku kopurua	Azalera (Ha)
Aktiboak	Etxapea	-	-
	Industria erabilera soila	1	0,03
Ez-aktiboak		-	-
Zabortegiak		1	0,72
Eraldatuak		-	-
GUZTIRA		2	0,75

Ondoko taulan Udalerriko jarduera potentzialki poluitzaileen banaketa laburbiltzen da. Jarduera bakoitzari dagokion Jarduera Ekonomikoen Kode Nazionala (CNAE) eta erregistratutako aktibitate kopuru totala ere adierazten dira.

CNAE Deskribapena	Jarduera kopurua
ORIO	
35.1- Itsasontzigintza eta itsasontzien konponketa.	1

1. Taula: CNAEren arabera identifikatutako jardueren banaketa

Ondoko taulan jarduera potentzialki poluitzaileak kokatzen direneko kokalekuetako datu garrantzitsuenen laburpen bat jasotzen da. Kokalekuaren kodearekin batera kokalekuaren izena (kokaleku horretan egon den azken jardueraren izena normalean), jarduera bakoitzaren CNAE kodea eta partzelaren azalera ageri dira.

Kokalekuaren kodea	Izendapena	CNAE	Azalera(m ²)
ORIO			
20061-00002	Talleres Arostegui S.L.	35.1	303
20061-00003	Motondo		7.238

Orion inbentariatutako jardueren zerrenda.

Bi jarduerok Oria ibaitik gertu kokatzen dira; 20061-00002 kodeduna herrigunetik gertu dago; 20061-00003 kodeduna herrigunetik 2 kilometro ingurura dagoen bitartean.



2004ko abenduaren 1ean burututako Herritarren Partaidetza Foroan jasotako kezka nagusiak ondokoak dira:

- ♣ Zumaian burututako dragaren hondarrak Orioko barraren parean isuri ziren 2004ko udan. Eusko Jaurlaritzak debekatuta dauka honelako ekintzak udan burutzea.
- ♣ Itsasadarreko lokatzei kiratsa darie. Marea beherean zikinkeria guztia agerian geratzen da.
- ♣ Txurruka hondartzan bainu hartzea debekatuta egon da azken 3-4 urteetan. Konponbide bat aurkitu beharko litzateke.

11. ARRISKUEN ANALISIA ETA KUDEAKETA

11.1 Udal Larrialdi Plana

Orioko Udal Larrialdi Plana 2000. urtean burutu zuen TECNIMAP (Energia eta Ingurumena) enpresak, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren dirulaguntzaz..

Plan hau Udalerrian jatorri natural, akats tekniko edo giza hutsegiteak direla eta gertaturiko istripu, ezbehar eta hondamendiekin lotutako larrialdi egoerei aurre egiteko helburuz landu zen.

Ezartzen dituen helburuak ondokoak dira:

- Larrialdietan esku-hartzeko antolamendu egitura eta prozedurak taxutu.
- Norbere burua babestea sustatu eta eragin.
- Arriskuak eta Udalerriko elementu zaurgarriak identifikatu eta analizatu.
- Antzemandako arriskuak gutxitu edo saihesteko prebentzio neurriak definitu.
- Herritarrak informatu eta sentikortu arriskuen inguruan eta hauei aurre egiteko prebentzio eta babes neurrien inguruan.
- EUSKADIKO BABES ZIBILEKO ESKUALDE PLANArekin artikulatu eta goi mailako planen zuzendaritza eta koordinazio zentroekin lotzeko sistemak ezarri.

Orioko arrisku eremuak jarraian adierazten den bezala sailkatzen dira:

♣ **LUR MUGIMENDU ARRISKUA**

- Larreaundi
- Muniota
- Sarobe
- Aizperro
- Aganduru
- N-634 errepideko ezpona 10 eta 11. Km. artean.

♣ **U HOLDE ARRISKUA**

- Oria itsasadarraren ertzak

♣ **INDUSTRIA ARRISKUA EDO JARDUERA TEKNOLOGIKO ARRISKUTSUAK**

- Gasolio biltegia (50.000 litro) (REPSOL)

♣ **MERKANTZIA ARRISKUTSUEK GARRAIO ARRISKUA**

- N-634 errepidea 10 eta 11. Km. artean.

♣ **GARRAIO ETA GARRAIO PUBLIKOKO ARRISKUAK**

- N-634 errepidea 10 eta 11. Km. artean.

♣ **SUTE ARRISKUA**

- Udalerri Iparraldeko zuhaitz landaketak (Aiznal, Erlabi y Erleta)
- Anokoko zuhaitz landaketak
- Kallaberroko zuhaitz landaketak
- Txarako-Aitzako zuhaitz landaketak
- Arizmendiko zuhaitz landaketak
- Andu-Aitzko zuhaitz landaketak
- Orioko Bentako zuhaitz landaketak
- Egurrezko eraikinak (Herrigune Historikoa)

♣ **GIZA KONTZENTRAZIO HANDIAK**

- Antillako hondartza eta kanpina
- Oribazarko hondartza

♣ **ARRISKU ANTI-SOZIALAK**


- Alkartetxea (EA)
- ELA-STV
- Batzokia (EAJ-PNV)
- UGT-PSE (Herriko etxea)
- BBV
- BCH
- Caja Gipuzkoa San Sebastián
- Lan Kide Aurrezkia
- MAPFRE
- Grupo Generali (Estrella Aseguruak)
- Zurich Aseguruak
- Allianz Aseguruak
- Seguros Generales (E. Garmendia)
- Loterías y Apuestas del Estado
- Udaletxea
- Correos y Telégrafos

♣ **GALERNA**


- Antillako hondartza eta kanpina
- Oribazarko hondartza

Planak prebentzio eta erantzun ekintza zehatzak definitzen ditu, arduradunak eta jarduketa moduak identifikatuz; alarma igortzeko sekuentzia zehazten du batetik eta larrialdietako aginte organigrama bestetik. Era berean, arduradun bakoitzaren funtzioak deskribatzen ditu.

ALARMA I GORPENAREN SEKUENTZIA



LARRIALDI AGINTEAREN ORGANIGRAMA



Udal Larrialdi Plana eguneratzen joaten da. Gaur egun ez da simulaziorik egiten.

11.2 Udal azpiegitura eta instalakuntzen Larrialdi Planak

2004ean Udaletxe, Kiroldegi eta Kultur-Etxeko Larrialdi Planak egin dira. Eurretari bakoitzean arriskuak identifikatzen dira, kanpokoak (bonba mehatxua, sabotajea...) nahiz barrukoak (sutea, leherketa...). Era berean larrialdietako arduradunak eta jarduketa metodoak identifikatzen dira.

Bestalde, arrantzaleek eta ikastetxeek aldizka larrialdi simulazioak egiten dituzte.

12. KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA.

12.1. Komunikabideak:

Orioko udalerrian hamabostaldian behin KARKARA aldizkaria banatzen da. Argitalpen hau 1989an sortu zen eta hasieratik euskara hutsean argitaratzen da. Hamabostaldian behin argitaratzen da Aia eta Orioko udalerrietan eta dibulgazio eta entretenimendu gai desberdinak jorratzen ditu. Udalak ere gertaera eta albiste nabarmenenak argitaratzen ditu.

Eskualdeko komunikabideei dagokienez, egunero “Urola-Kostako Hitza” egunkaria argitaratzen da. 7000 aleko tirada du eta eskualde guztian banatzen da. Idatzizko prentsari dagokionez, “El Diario Vasco” egunkaria da irakurriena. Bertan, asteartea eta igandea bitartean, kronika sailean, Oriori buruzko informazioa argitaratzen da.

Kalitatezko irrati edo telebistarik ez dago inguruan.

12.2. Komunikazioa udaletxetik

Udalerriaren Diagnostikoarekin hasten den Tokiko Agenda 21eko prozesu baten garapenean planteatzen den erronka nagusienetako bat gizarte eragileen eta herritarren konplizitatea lortzea da, prozesuak tokiko komunitateko kide desberdinen partehartzea berma dezan.

Herritarren parte-hartzea antolatzeko helburuz, udalerriko elkarte sarearen analisia egin da, existitzen diren erakunde desberdinak, burutzen dituzten jarduera motak eta Tokiko Agenda 21ean parte hartzeko dagoen prestasuna kontutan hartuz.

12.2.1. Komunikabide-kanalak

Informazioaren edukia kontutan hartu gabe, udaletxeak herritarrei informazio orokorra transmititzeko erabiltzen dituen mekanismoak askotarikoak direla kontutan hartu behar da:

- ♣ Komunikabideei informazioa (irratia, DV Urola-Kosta, HITZA, etab.)
- ♣ Udal bandoak edo iragarkiak.
- ♣ KARKARA aldizkaria. Komunikabide eraginkorrena da.
- ♣ www.oriola.com web orriak udalerriari buruzko informazio orokorra eskaintzen du. Erabiltzaileak bere kexak, iradokizunak edota informazio eskaerak bidaltzeko atal bat ere eskaintzen du.

IZAGA *Zerbitzu Elkarteak* urte osoan zehar udalerriarekin erlazionaturik argitaratu diren artikulua guztiak, hilabetearen eta gaiaren arabera sailkatuta, dokumentu eta CD batean jasotzen ditu Udaletxearentzat. Artxibo hauek Orioko Kultur Etxean kontsulta daitezke.

Ingurumen gaiei buruzko Herritarren Arreta Informazioari dagokionez ez da udal-mekanismo zehatzik ezagutzen. Urola-Kosta Udaltalde 21 osatzearekin, 2004ko udan Urola-Kosta Mankomunitatean informazio telefono bat eta mankomunitateko web orriko foro birtuala jarri ziren martxan. Telefonoak Tokiko Agenda 21en inguruan herritarrei sortzen zaizkien zalantzak argitzeko eta euren iritzia, proposamenak eta kezak azaltzeko balio du (tel: 943 890045). Era berean, Urola-Kosta Mankomunitatearen web orriko foro birtuala parte-hartze gunea izatea nahi da.

12.2.2. Udal-batzordeak

Orioko Udaletxean zazpi batzorde daude. Batzorde bakoitzaren buru zinegotzi bat dago.

OGASUN ETA HERRI BATZORDEA
HIRIGINTZA ETA INGURUMENA
OBRAK, ZERBITZUAK, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
KULTURA, HEZKUNTZA ETA EUSKARA
EKONOMIA, TURISMOA, MERKATARITZA ETA ENPLEGU SUSTAPENA
OSASUN ETA GIZARTE-ONGIZATEA
KIROLA, GAZTERIA ETA JAIK

Orain arte udalerriak ez du herritarren parte-hartze sistema egituraturik.

Batzordeak irekiak izaten dira parte hartzeko eskaera eginez gero.

12.3. Heziketa jarduerak eta udalak edo udalaz gaindiko erakundeek sustaturiko kanpainak

Udalak, Arkupe Merkatarien Elkartarekin elkarlanean, urtero “Bixiguaren Eguna” antolatzen du.

Udaberrian, “Zuhaitzaren Eguna” antolatzen da non udalerriko ikastetxeko haurrek parte hartzen duten.

Hire esku programa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalizazio eta Gazteria Saileko Zuzendaritza Nagusien arteko elkarlaneko programa da. Euskararen erabilera sustatzeko asmoz, Orioko Txurruka kanpamendua antolatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako B eta D ereduko ikasleei zuzendurik.

Orioko Turismo bulegoak urtean zehar jarduera ugari eskaintzen ditu, adibidez “Oriora bisita gidatua: ibaia eta sagardotegia”, ibaian kanoan ibili ondoren Aginaga sagardotegia bisitatzen da.

Ikastetxeek ingumenarekin erlazionaturiko jarduera ugari burutzen dituzte: Azterkostan parte hartu, ekologiarekin erlazionaturiko gaietan lan egiteko irteerak eta egonaldiak, etab.

12.4. Tokiko elkarte sarea eta parte-hartze modua

Ondoko taulan Orioko elkarteak zerrendatzen dira:

ELKARTE MOTA	ELKARTEAREN IZENA
KULTURALA	KARKARA TALDEA
	HARRIBIL DANTZA TALDEA
	SALATXO ABESBATZA
	OSTARGI TALDEA
	ERRIKOTXIA BERTSOZALE ELKARTEA
	GALTZARRI KULTUR ELKARTEA
	TXISTULARI TALDEA
	XUGA GAZTE TALDEA

ELKARTE MOTA	ELKARTEAREN IZENA
AISIALDIKOA	TXURRUMUSKI TALDEA
KIROL-ELKARTEA	ARRAUN ELKARTEA
	FÚTBOL TALDEA
	TALAI MENDI ELKARTEA
	SOFTBOL TALDEA
	PILOTA ELKARTEA
	SURF TALDEA
	SASKIBALOI TALDEA
	ALDAPA TALDE ZIKLOTURISTA
MERKATARIEN ELKARTEA	ARKUPE ELKARTEA
GASTRONOMIKO-KULTURALA	BALEA ELKARTEA
	ALDAPA ELKARTEA
	SAN JUAN ELIZPE ELKARTEA
	ARKAIZPE ELKARTEA
	GURE ETXEA ELKARTEA
	ANARRI ELKARTEA
BESTEAK	ZAHARREN BABESLEKUA
	ARRANTZALE KOFRADIA
	ETXERAT
	HERRIKO NATUR TALDEA
	SAN MARTINGO FESTA BATZORDEA
	SENDOTZA TALDEA

12.4.1. Beste parte-hartze moduak: erlijiozkoa, auzolanak, etab.

2004ko abenduaren 1ean Hiritarren Parte-Hartze Foroaren deialdia egin zen, udalerriko gizarte sektore desberdinen parte-hartzea bilatuz.

Batzarraldi hauetan egiten den informazioaren ekarpena kualitatiboa da eta ez kuantitatiboa.

Topaketa hauetan parte-hartzaileen ideiak eta iritziak jaso ziren.

Honela kontsideratutako kategorietan hautemandako aspektu-multzoa identifikatzea ahalbidetzen du, baino ezin da kuantitatiboki baloratu elementu bakoitzak besteekiko duen pisu erlatiboa.

13. INGURUMENAREN UDAL-KUDEAKETA

13.1. Udalaz gaindiko erakundeen kudeaketa eta koordinazioa

Orioko Udala ondoko Mankomunitate, Kontsortzio eta Erakundeetan dago:

- ♣ *Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL).*
- ♣ *Urola-Kosta Mankomunitatea–Urola-Kostako Udal Elkarte*
- ♣ *Gipuzkoako Ur Kontsortzioa, ur-kudeaketaren arduradun.*
- ♣ *Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)*
- ♣ *Euskal Fundoa*
- ♣ *Urola Kostako Mendi Nekazaritza Elkarte- URKOME*
- ♣ *Udalbiltza*

13.2. Arloen arteko barne-komunikazio eta koordinazioa

Komunikazioa zuzena da. Kooperazio beharrak sortzen diren unearen arabera, ingurumen, hirigintza, gizarte arazo edo beste izan, teknikari eta aukerako pertsonak biltzen dira arazoari irtenbide bat emateko.

13.3. Ingurumen-kudeaketarekin erlazionaturiko enpresa eta erakundeak

Hornikuntza zein saneamendu Uren kudeaketa, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren bidez egiten da.

Hondakinen kasuan, gaikako bilketaren kudeaketa lanak Urola-Kostako Udal Elkarteak hartzen ditu bere gain.

13.4. Tokiko ingurumen-arautegia

Orioko Udalak ingurumenarekin erlazionaturiko bi ordenantza egin ditu:

- *Ur-ziklo integralaren kudeaketaren udal ordenantza erregulatzaileria.*
- *Ostalaritza elkarten establezimenduen udal ordenantza erregulatzaileria.*

Ostalaritzako establezimenduetako zarata maila erregulatzeko, ordenantza honen kapitulu bat *ZARATA ETA BIBRAZIOEI* eskaini zaie.

Ingurumen-kudeaketari dagokion gainontzeko arautegia izaera orokorrekoa da, bai eremu autonomikoan zein estatukoan.

13.5. Udal-aurrekontua


Getariako udal-aurrekontuaren barruan ingurumen aurrekontuaren partida aztertzeko kontuan harturiko irizpidea, ingurumenarekin zuzenean erlazionaturiko elementuak identifikatzea izan da, hala nola: hondakin, ur eta energiaren kudeaketa, hirigintza, etab.

Honela, ingurumenarekin erlazionaturiko elementuak taldekatu dira, elementu bakoitzari dagokion kudeaketa arloa alde batera utzita.


2004ko Orioko Udaleko ingurumen kostuen aurrekontuen banaketa ondokoa izan da:

KONTZEPTUA	2004
<i>PARKEEN MANTENTZEA</i>	<i>5100</i>
<i>LORATEGIEN MANTENTZEA</i>	<i>73000</i>
<i>UR SAREAREN KONPONKETA MATERIALA</i>	<i>3000</i>
<i>IZURRIEN KONTROLA</i>	<i>2900</i>
<i>HONDAKINEN KUDEAKETA ETA BIDEEN GARBIKETA</i>	<i>250000</i>
<i>ANIMALIEN BILKETA</i>	<i>1150</i>
<i>INGURUMEN BABESA ETA HOBEKUNTZA (zarata neurtzeko makinen alokairua, etab.)</i>	<i>5950</i>
<i>HONDARTZEN MANTENTZEA</i>	<i>3000</i>
<i>EDUKIONTZIEN ALOKAIRUA</i>	<i>2000</i>
GASTU TOTALA (€)	346.100

Ondoko grafikoan ingurumen kudeaketako arlo bakoitzari dagokion aurrekontu portzentaia adierazten da (2004):



2004ko aurrekontu totalaren %5,86a udalerriko ingurumen kudeaketara bideratu zen Orion.



13.6. Ingurumen konpromisoa

Udalerriko Arau Subsidiario berrietan, ingurumena, eta balore paisajistiko eta naturalistikoak babesteko kapitulu bat sartu da. Atal honetan lurzoru hiritarrezinetan errepide eta bide berriak irekitzeko irizpideak, zuhaitz babestuen mozketa edo

interbentzio suntsitzaileen debekua, aireko lineen integrazio paisajistikoa, zein ingurumen babesa eta integrazioa zehazten dira.

Hondartza Planaren barruan Dunen Birgaitze Plana kokatuta dago. Jada martxan jarri den Plan honen helburua ekosistemen birsorkuntza eta hondartzako bideko hegazti eta beste animalien esparru itxia birkokatzea da, hiri- eta natur- erreferentzi moduan. Ekosistema honetako flora eta fauna adierazgarria babesteko, planteamendu honek ere beste proposamen batzuk integratzea baimentzen du.

I. ERANSIKINA:

DIAGNOSIAREN LABURPENA ETA ONDORIOAK

4. SOZIOEKONOMIA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
DEMOGRAFIA	
♣ Demografiaren eboluzioa positiboa izan da 1998 eta 2003 urteen artean.	
♣ Jaiotze tasa 1998an ‰10'01ekoa izatetik 2002an ‰14'33koa izatera pasa da.	♣ Orioko zahartze tasa hazkorra da Gipuzkoa osoan bezala. Biztanleriaren eboluzioa positiboa izan da 1998 eta 2003 urteen artean.
♣ 2001ean ugalkortasun tasa ‰32'2koa zen Gipuzkoako batez bestekoa ‰34,7koa zen bitartean.	
♣ Zahartze tasa 1998an 0,077koa izatetik 2001ean 0,142koa izatera pasa da.	
♣ Hilkortasun tasa 1998an ‰8,9koa izatetik 2002an ‰10,6koa izatera pasa da.	
MIGRAZIO MUGIMENDUAK	
♣ 2001ean Orioko migrazio mugimenduen saldoa positiboa izan zen: 183 etorkin eta 89 emigrante.	
♣ Etorkin gehienak Ekuador eta Marokokoak dira.	♣ Migrazio mugimenduek 94 pertsonako saldo positiboa ageri zuten 2001ean.
BIZTANLERIA	
♣ 2001ean Oriok 4.421 biztanle zituen, 2.210 gizonezkoak eta 2.211 emakumezkoak.	♣ Orioko biztanleen erdia emakumezkoak dira eta beste erdia gizonezkoak.
♣ Orioko biztanleriak zahartze biologikoaren ezaugarriak ageri ditu.	♣ Biztanle dentsitatea Gipuzkoako batez bestekoa baino altuagoa da.
♣ 2001ean Orioko biztanleria dentsitatea 451'1 biztanle/Km ² koa zen, Gipuzkoako batez bestekoa gaindituz (340 biztanle/Km ²).	♣ Familia bakoitzeko pertsona kopurua Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa da.

4. SOZIOEKONOMIA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
(340 biztanle/Km²). ♣ 2001ean Orion 1.508 familia zeuden, batez besteko tamaina 2,8 pertsona/familia zelarik (Gipuzkoako batez bestekoa 2,72 pertsona/familia). JARDUERA EKONOMIKOA ETA LANA ♣ 2001ean biztanleria aktiboa 2.158 pertsonakoa zen eta ez aktiboa 2.263koa. Biztanleria aktiboaren %93a okupatuta zegoen. ♣ 2004ko 2. hiruhilekoan langabetuen gehiengoa 25 eta 34 urte bitartekoa zen. ♣ 2004ko 2. hiruhilekoan langabetu gehienak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketadunak ziren. ♣ 2004ko abuztuan langabetu gehienak zerbitzu sektorekoak ziren, jarraian industria sektorekoak. ♣ 2004ko abenduan Orioko langabetuen %52 emakumezkoak ziren eta %48 gizonezkoak. Eskualde eta probintzia mailan emakume langabetuen proportzioa altuagoa zen, %60ekoa. ♣ 2000 urtean Orioko Barne Produktu Gordina EAEko batez bestekoa baino 50 puntu baxuagoa zen, Gipuzkoakoa baino 52 puntu baxuagoa eta eskualdekoka baino 55 puntu baxuagoa. ♣ 1997an Orioko Familiako Errenta Gordina EAEko batez bestekoa baino	♣ Orioko langabezia tasa baxua da. Biztanleen %93a okupatuta zegoen 2001ean. ♣ Langabetu gehienak 25 eta 34 urte bitartekoak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketadunak dira. ♣ Orioko BPG eta FEG Euskal Autonomi Erkidegoko batez bestekoaz azpitik zeuden 2000 urtean. ♣ Lan mundua Oriotik kanpo dago eta oriotarrek kanpora jo behar dute lanera

4. SOZIOEKONOMIA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
11 puntu baxuagoa zen, Gipuzkoakoa baino 13 puntu baxuagoa eta eskualdekoa baino 7 puntu baxuagoa. ♣ Baso aprobetxamenduen gehiengoa koniferoen landaketei dagokie, batez ere <i>Pinus radiata</i> landaketak. ♣ Nekazaritza-abelazkuntza jardueretara bideratutako azalera totala 523 Hektareakoa zen 1999an, guztira 68 ustiategi zirelarik (euretariko 39 abelazkuntza jardueradunak). Gehienak ustiategi txikiak dira. 6 dira horretatik bizi direnak. ♣ Orio itsasoari lotutako herria izan arren gaur egun hamar urte baino bapore gutxiago dago herrian. Arrantza sektoreak nabarmen egin du behera. ♣ Eskualdean kokaturiko industria da Orioko ekonomiaren motore nagusia, eskualdeko gainerako herrietan bezala. ♣ 1998 eta 2002 urteen artean merkatal jarduerak behera egin zuen; 2002-2004 epean, berriz, gora egin du, PERCOTURa egitearekin batera. ♣ Oriotarren merkataritzako gastuen %30a herritik kanpo egiten da. Jasotako merkataritzako gastuen gehiengoak Aian du iturria. ♣ Orion ostatu mota ezberdinak aurki daitezke: Kanpina, ostatuak, nekazal etxeak, erromes aterpetxeak (San Martin/ Arteta-Txurruka Etxea).	oriotarrek kanpora jo behar dute lanera ♣ Orion nekazaritza eta abelazkuntza jarduera garrantzitsua da; 68 ustiategi daude guztira. 6 dira horretatik bizi direnak. ♣ Arrantza sektoreak indarra galdu du azken hamarkadan. ♣ Eskualdean kokaturiko industria da Udalerriko ekonomiaren motore nagusia. ♣ Orion mota ezberdinetako ostatuak aurki daitezke: Kanpina, ostatuak, agroturismoak. ♣ Orioko turismo bulegoa Itourbasken baitan sartu da, kalitatezko turismoa sustatzearren. ♣ Kirol portuak suposatzen duen turismo-potentziala zaindu behar da.

4. SOZIOEKONOMIA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
♣ Orioko turismo bulegoa berriki Itourbask-en baitan sartu da. ETXEBIZITZA ♣ 1996ean Orion 1.617 etxebizitza zeuden, euretarik 333 hutsak eta 1.284 lehen etxebizitzak ♣ Alde Zaharra husten ari da gaur egun ♣ 1992 eta 2004 urteen artean etxebizitzaren m²ko prezioa %170 inguru igo da. ♣ Orion 32 etxebizitza sozial eta 40 BOE daude. ♣ Orioko etxebizitzan erosotasun indizea %60ekoa da, Gipuzkoako batez bestekoa %66,7koa den bitartean. ♣ Orion 1992tik hona 535 etxebizitza berri eraiki dira (72 babes ofizialekoak) eta aldiz epe berean 400 pertsonako igoera izan du biztanleriak. ♣ Etxebizitza beharra 20-35 urte bitartean dituztenen artean kokatzen da. Orion tarte horretan 1100 pertsona daude gaur egun. HEZKUNTZA ♣ Orioko ikastetxeak hondokoak dira: Orioko Ikastola (Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza), Juan Zaragueta Eskola Publikoa (Haur eta Lehen Hezkuntza) eta Orioko Musika Eskola Publikoa. Haurtzaindegia pribatu bat ere bada. ♣ Haur Eskola baten beharra detektatzen da.	♣ Orion etxebizitza huts ugari dago. ♣ Orioko gazteengana zuzendutako etxebizitzak erreserbatu nahi dira. ♣ Etxebizitzaren salneurriak nabarmen gora egin du azken hamarkadan (%170). ♣ Orion herrian bertan eskolatzeko aukerarik baden arren bertako ikastetxeen promozioa falta da ikasleak kanpora joan ez daitezen. ♣ Haur eskola falta da.

4. SOZIOEKONOMIA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
detektatzen da. ♣ 2001ean 10 urtez gorako Oriotarren %46'68k Lehen Mailako Ikasketak eginda zituen, %15,64k Lanbide Heziketako ikasketak, %21,15ek Bigarren Mailako Ikasketak, %6,07k Erdi Mailako Ikasketak eta %8,92k Goi Mailako Ikasketak. OSASUNA ♣ Orion estomatologo bat, odontologo bat eta podologo batek eskaintzen dute euren zerbitzua. Fisioterapiako bi zentro irekitzeko jarduera lizentziak tramitatzen ari dira. ♣ Orion bi farmazia eta parafarmazia bat daude. GIZARTE ONGIZATEA ♣ Gizarte ongizateko udal aurrekontua 267.080 €koa da, pertsona-gastuak barnean direlarik. ♣ Udalerriko gizarte ongizateko lan nagusia ondokoekin erlazionatuta ageri dira: Minusbaliatuak, etorkinak, drogamenpekotasuna, emakumeak, pasadizokoak. ♣ 2003an GGD (Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera) jasotzen zuten 14 familia zeuden eta GLL (Gizarteratzeko Larrialdietarako Laguntzak) jasotzen zuten beste 13 familia. ♣ Orion GOF (Gizarte Ongizateko Fondoa) pentsioa jasotzen duten 4 pertsona daude eta Kotizazio Gabeko	♣ Orion nahikoa osasun zerbitzu eta farmazia dago. ♣ Eskualde mailako osasun zentro baten falta nabari da. ♣ Gizarte ongizateko lan nagusiak minusbaliotasunak, inmigrazioa, emakumeen diskriminazioa eta pasadizokoak dira. ♣ Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrera eta Gizarteratzeko Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituzten familiak 14 eta 13 dira hurrenez hurren.

4. SOZIOEKONOMIA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
pertsona daude eta Kotizazio Gabeko Pentsioa jasotzen duten beste 11. ♣ Orion eguneko zentro bat dago eta 2006an tutoretzako 4 apartamentu egongo dira (8 plaza). ♣ Orion ez dago zahar etxerik. ♣ Beste gizarte zerbitzu batzuk: Etxez-etxeko arreta (2003an 27 pertsonak erabili zuten zerbitzu hau), tele-alarma zerbitzua (10 erabiltzaile), etxez-etxeko hezitzailea (2 familia). ♣ Etxez-etxeko laguntzarako itxaronzerrendarik ez dago eta Eguneko Zentrorako pertsona bakarra dago zain. ♣ Familia desegituratu kopurua hazten ari dela antzeman da ikastetxeetan. ♣ Oporrak Bakean Programaren bidez uda sasoiaren Saharako umeak atosten dira herrian. ♣ 10 oriotarrek txirotasun laguntza jasotzen dute (4 gizonezkoak eta 6 emakumezkoak). KULTURA ♣ Orioko kultur ekipamenduak: KzGunea, Udal Musika Eskola, Kultur Etxea eta jarduerak burutzeko lokalak. ♣ Orion jai eta kultur ekitaldi ugari ospatzen da: Bisigu Eguna, Artisautza FERIA, Ostiralean Jai Programa, eta abar. ♣ KARKARA aldizkaria (Aia eta Orio)	♣ Etxez-etxeko laguntzarako itxaronzerrendarik ez dago eta Eguneko Zentrorako pertsona bakarra dago zain. ♣ Orioko txirotasun maila ez da eskualdeko batez bestekoa baino altuagoa. ♣ Gazteengana zuzendutako jardueretan hutsunea nabari da. ♣ Zinema, musika kontzertu edota antzerkietarako lokal baten falta nabari da.

4. SOZIOEKONOMIA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
1989an sortu zen eta euskaraz argitaratzen da. ♣ Liburutegi eta Kultur Etxea txikiegiak geratu dira. AISIA ♣ Orion 5 haur parke daude baino ez dago gazteleku edo ludotekarik. ♣ Haur, gazte eta helduengana zuzendutako aisialdiko jarduerak: Koloniak, Txumurruski taldeak antolatutako haurrentzako irteerak, musika eta euskara uztartzen dituen gazteentzako Ostiralean Jai Programa, Saint Ciers sur Gironde herri senidetura irteerak. Talai Mendi Elkarteak mendi irteerak antolatzen ditu. KIROLA ♣ Orioko kirol ekipamenduak: Karela Kiroldegia, Udal pilotalekua, futbol zelaia, softball zelaia, arraun talde olinpikoa, hiru saskibaloia areto eta abar. ♣ Aurreikusitako kirol instalakuntzak: Hondartzako kirol-eremua, Karela kiroldegiaren handitzea, kirol portua eta futbol eta softball zelai berria. ♣ Arrauna Orion tradizio handia duen kirola da. ♣ Arraun klubaren instalakuntzak eta frontoia egoera txarrean daude.	♣ Gaztegune eta ludoteka falta dira gazteentzat. ♣ Orion nahikoa kirol ekipamendu dago.

4. SOZIOEKONOMIA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
EUSKARA ♣ 2001ean Orioko biztanleen %79,95 euskalduna zen, %12,47 ia euskalduna eta %7,58 erdalduna. ♣ Euskararen kaleko erabilpena %70ekoa da. ♣ Orioko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako eskaintza D ereduan egiten da soil-soilik. ♣ Euren dendetako errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak eskaintzen zaizkie merkatariei. ♣ Euskararen sustapenerako Plan eta Programak: Lan Munduan Euskara Sustatzeko Plana, Euskara Biziberritzeko Plana, Kirola Euskaraz Programa. ♣ 1993az geroztik Euskara Zerbitzuak Euskaraz Gazte literatur lehiaketa antolatzen du. ♣ Planiker Hizkuntza Zerbitzuak enpresak 2001ean eskualdeko kirol erakundeetako euskararen egoera eta erabileraren inguruko diagnosi bat burutu zuen, Euskara Sasoian Programaren oinarriak finkatuz. Programa honen helburua kirol elkarteetan euskara sustatzea da. ♣ Urola Kostako Mankomunitatea eta	♣ Euskararen ezagupen eta erabilpen maila ona da. ♣ Etorkinei euskara ikasteko erraztasunak ematen zaizkie. ♣ Euskara Lan Munduan Sustatzeko Planaren ezarpena hasi da.

4. SOZIOEKONOMIA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
Zarauzko Euskaltegiak 2004-2005 ikasturtean internet bidez euskara ikasteko zerbitzu bat jarri dute martxan. ♣ Hitanoa geroz eta okerrago erabiltzen da. KONTSUMOA ♣ Udalerrian ez dago kontsumitzaileen defentsarako zerbitzurik. Beharrezko kontsultak Donostiako kontsumitzaileen defentsarako zerbitzuko egoitza zentrolean egin daitezke. HIRI BIRSORKUNTZA ♣ Hiri birsorkuntzako planak: Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plana, Errehabilitazio Sozio-ekonomiko eta Orioko Lurralde Birsorkuntzako Proiektu Integrala, Hirigune Historikoan Merkataritza Berpizteko Plan Berezia, Merkataritza eta Turismoa Berrindartzeko Plan Berezia, Agenda 21.	♣ Orion hiri birsorkuntzako zenbait plan daude: PERCO, PERCOTUR, Agenda 21.

5. INGURUNE FISIKOA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
UDALERRIAK ♣ Urola Kosta Udaltaldea osatzen duten udalerriak zazpi dira: ♣ Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia Urola Kosta eskualdean. ♣ Aizarnazabal eta Zestoa Urola Erdia eskualdean. ♣ Udalerriek, 156'2 Km2 hedaduraz, Zarautz-Azpeitiako Eskualde Egiturako %47'4a suposatzen dute.	

ARRO EGITURATZAILEAK ♣ Oriako Arro hidrografikoari dagokionez, ibaiadar garrantzitsu bezala Santiago eta Altxerri ibaiak nabarmentzen dira.	♣ Orioko udalerria Oria ibaiari lotuta dago, bere lurraldean itsasadarrean eratzen den estuarioa hartzen duelarik.
---	--

GEOMORFOLOGIA ETA EDAFOLOGIA ♣ Kretazikoko material margo kalkareoen eta Triasikoko igeltsu-buztinen gainean ildo deprimitu edo "kanpo korridorea" dago, Oriotik Lasarteraino hedatzen den Erdiko sektorea barne hartzen duelarik, Oria ibaiaren itsasadar edo estuarioa bertatik igarotzen da. ♣ Interes geologikoa duen gunea da Antilla hondartzatik hasi eta Mendizorrotz arteko itsas labarra	
---	--

5. INGURUNE FISIKOA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
KLIMATOLOGIA ♣ Isurialde atlantikoan kokatutako Urola-Kostako udalerriek klima mesotermikoa dute, atlantiar eragineko klima leuna eta batez besteko tenperatura eta plubiometria altua dutelarik. ♣ Batez besteko urteko tenperatura 12 eta 14 °C bitartean dabil, gehieneko batez besteko tenperatura 16-19 °C bitartean eta gutxienekoak 9ª C inguruan. ♣ Batez besteko urteko prezipitazioa 1.500-1.600 mm bitartean dago. Gehieneko plubiometria neguko hilabeteetan ematen da, batez ere azaroan.	♣ Orioko klimak nekazaritza, abelazkuntza eta baso ustategien produkzioa oparoa izatea ahalbidetzen du.

6. INGURUNE NATURALA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
EGUNGO LANDAREDIA ♣ Orioko lurraldearen %26,2a zuhaiztiak dira, eta %25,9a zelaiak. ♣ Orion Lurralde Historikoan eta Urola Kostan baino askoz ere larre portzentaia altuagoa agertzen da (%16,4a). Baso azalera berriz (%25,1), Lurralde Historikoan (%56a) eta Urola Eskualdean (%50a) azaltzen dena baino urriagoa da. ♣ Orion, Urola Eskualdearekin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoarekin konparatuz gero, baso zuhaiztien azaleraren gehiengo Koniferoak (%60,3) dira, Hostozabalak portzentaia txikiagoan azaltzen diren bitartean (39,7%). ♣ <i>Pinus insignis</i> (%35,4) espezieari dagokionez Orion Eskualdean edo Lurralde Historikoan baino portzentaia nabarmenki txikiagoan agertzen da. <i>Pinus pinaster</i> koniferoak (%22,2) ordea azalera aski handiagoa hartzen du aipaturiko eremuetan baino. ♣ Baso zuhaiztien azaleraren bilakaera: 1986 eta 1996 urteen artean eskualdeko zuhaizti azalera gutxiagotu den arren (%5eko jaitsiera), hostozabalek okupatutako azalera handitu egin da koniferoen kalterako. Oriori dagokionean, berriz, baso azalera osoa %5,8 emendatu da aipatutako aldian.	♣ Orioko landa eremuan belardi eta larreak batez beste Gipuzkoa osoan baino proportzio altuagoan ageri dira, Udalerri honen landa izaeraren adierazle. ♣ Orioko baso eremua batez ere koniferoek okupatzen dute, batik bat <i>Pinus pinaster</i> (itsas pinuak).

6. INGURUNE NATURALA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
NATURGUNE ETA NATUR ELEMENTU BABESTUAK ♣ Oria Itsasadarra: Zingira leku eta padurako paisaiaren hondakinak (Santiagon bereziki) alde batetik eta berriztapen ekologikoaren potentzialitatea nabarmentzen dira bestetik. Interes komunitarioko 10 habitat ditu, hauetako 2 lehentasunezkoak, eremuaren %91 betetzen dutelarik. ♣ Gaur egun ez dago babestutako naturgune eta elementuen inguruko informazioa askorik, herritarrei zuzendutakorik. ONDARE NATURALA ETA PAISAIA KONTSERBATZEKO INTERESEKO EREMUAK (LAAren arabera) ♣ <u>Natur intereseko puntu eta areak:</u> Mendizorrotzeko errekek ♣ <u>Garrantzi Geologikoa duten puntu eta areak:</u> Orioko itsaslabarra–Agitiko hondartza (nazio mailako garrantzia), Orioko trenbidearen zehar-ebakia (eskualde mailako garrantzia), eta Oria ibaiko estuarioa eta Benta Auzoko azalera eta Nick Point-a (tokiko garrantzi maila). BESTE INTERES GUNE BATZUK	♣ Oria Itsasadarra EAEko hezeguneak babesteko PTSan babestuta dagoen eremua da, natur eta paisaia balio garrantzitsuak ageri dituelarik.

6. INGURUNE NATURALA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
(Orioko AASSen arabera)	
♣ Babes Bereziko Eremuak: - <u>Natur Babeseko Eremuak</u>: Saikola urtegiko eremua eta Lezkadi Urbede erreka toaren ibarra. - <u>Paisaiaren Babes Eremuak</u>: Mendizorrotz labarretako eremua eta kanpin inguruko puntuak. Kukuarri eta Tontortxikiren jarraipenak osatzen duten gailur eremua. - <u>Bertako Basoen Eremua</u>: Bertako basoek irlatxoak osatzen dituzte Kukuarri mendi hegalean, Txabolako Erreka eremuan, Autobidearen Hegoaldean, Txanka Errekan eta Saikolako Erreka inguruan. - <u>Hondartze Eremua</u>: Antilla eta Oribazar hondartzak. - <u>Akuiferoak</u>: akuiferoen babeserako eremua, itsasertza babesteko lerroa eta lurrazaleko urak babesteko lerroa.	♣ Orioko AASS berriek Babes Bereziko Eremuak eta Ingurumen Hobekuntzako Eremuak izendatzea proposatzen dute Udalerriko Natur Intereseko Eremuak babestu eta berreskuratzearen.
♣ Ingurumen Hobekuntzarako Eremuak:	

6. INGURUNE NATURALA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
- <u>Paisaia Berreskuratzeko Eremuak:</u> baso eremuez gain, Aganderu mendi hegala ere adierazten dira lur mugimenduak direla eta desitxuratze morfologikoa jasan baitute. - <u>Basoa Berreskuratzeko Eremua</u> - <u>Motondo Eremua:</u> Natur intereseko eremuak Santiago errekaostari badagokio ere, erribera goi eremuarentzat Plan Berezi bat egin beharko dela jotzen da eremu horretako jardura aukerak zehaztearren. GALZORIAN DAGOEN FAUNA ♣ <u>Galzorian dauden Fauna eta Flora, Espezie Basati eta Itsastarren Katalogoak</u> Urola-kostako eskualdean ondoko espezieak bereizten ditu, bakoitzari dagokion babes kategoriaren arabera: ♣ <u>DESAGERTZEKO ARRISKUAN:</u> Zuhaitz Igela (<i>Hyla meridionalis</i>) ♣ <u>INTERES BEREZIKOA DE:</u> de Eskulapioren Sugea (<i>Elaphe longissima</i>) eta Sai arrea (<i>Gyps fulvus</i>) ♣ <u>KALTEBERA:</u> Sai zuria (<i>Neophron percnopterus</i>), Txirritxo txikia (<i>Charadrius dubius</i>) eta Bisoi	♣ Eremu honen egoera hobetu eta babesteko aukeren inguruko ikerketa bat behar da.

6. INGURUNE NATURALA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
europarra (<i>Mustela lutreola</i>) ♣ <u>ESPEZIE ARRAROA</u>K: Belatz handia (<i>Falco peregrinus</i>), Ubarroi mottoduna (<i>Phalacrocorax aristotelis</i>) eta Aztorea (<i>Accipiter gentiles</i>) ♣ Oria ibaian ubarroi eta lertxunak ugaltu dira aingira eta platuxen populazioaren kalterako GALZORIAN DAGOEN FAUNAREKIN LOTUTAKO PLANAK ♣ <u>Hegoaldeko Zuhaitz-Igelaren Kudeaketa Plana</u> (<i>Hyla meridionalis</i>): Orioko hondartzatik gertu (Hondartza eremuko urbanizazio eremu berrian) putzu bat sortzea proiektatzen da; honela Mendizorrotz eremuan zehar putzuak sortu espezie honen habitata berreskuratzeko Foru Aldundiaren Programa osatuko da. Modu honetan Igeldo-Mendizorrotz kordan zehar berreskuratu da espezie hau Orion ere sartuz. ♣ <u>Izokina Berreskuratzeko Plana</u> (<i>Salmo salar</i>).	♣ Oria ibaian agian espezieen arteko desoreka hasi da gertatzen ♣ Igeldo-Mendizorrotz kordan zehar Hegoaldeko Zuhaitz-Igelaren habitata berreskuratzeko ekintzak aurreikusita daude.

7. LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
LURRALDE EREMUA ♣ Urola-Kosta da 8.000 biztanletik gorako hirigune gehien dituen Gipuzkoako bigarren Eskualde-Egitura. ♣ 2000ko abenduaren 31ko erroldaren arabera 66.500 biztanle inguru bizi dira lurralde eremuan. ♣ Lurraldearen batez besteko dentsitatea 2 bizt./ha-koa da, Gipuzkoako batez bestekoa baino askoz txikiagoa. ♣ Ehun ekonomiko garrantzitsua du, batez ere industrian oinarritua, biztanle bakoitzeko industria-lurzoruko 50 m² gordineko ratioak erakusten duen bezala. ♣ Langabezia tasa Euskal Autonomia Erkidegoko osotasuneko batez bestekoaren oso azpitik dago. ♣ Arrantzaren presentzia nabarmenki jaitsi da, baino arrantzarekin estuki loturiko herri txiki bat izaten jarraitzen du.	♣ Urola Kosta da 8.000 biztanletik gorako hirigune gehien dituen Gipuzkoako eskualdea; biztanleriaren batez besteko dentsitatea 2 bizt./ha-koa da. ♣ Ehun ekonomiko garrantzitsua du eta langabezia tasa oso baxua da. ♣ Herri txiki eta arrantzale izaerak definitu izan du Orio orain arte baina gaur egun aldatzen ari da

7. LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
LAA / LZP / LAP ♣ Orio, Zumaia, Getaria eta Zarauzko udalerriekin batera, oinarri endogenoko bigarren egoitza moduan proposatuta dago. ♣ Hirigintzako alderdi adierazgarri gisa, Oriako eskuineko ibaiertzean kokaturiko hirigune historikoa Monumentu Multzo gisa deklaraturik dago. ♣ Motondo inguruko padura ertzak berreskuratzeko premia duen ibaitarte gisa proposatu da, besteak beste. ♣ Oriako itsasadarrean ondoko kategoriak bereizten dira: ○ Babes Bereziko Eremuak: Santiago, Donparnasa, Olabarrieta eta Altxerriko Padurak. ○ Ekosistemen hobekuntzarako inguruneak: Antillako Hondartzak eta Hareatzak, Itsasaldi arteko Lokatzak (kanpoaldekoa, erdialdekoa eta aurrealdekoa) eta Cerrado de Motondoko Hondartzak eta Hareatzak. ○ Berreskuratu beharreko gunen degradatuak: Altxerriko ibarra eta Anibarko-Portua (Txankako erreka). ○ Nekazaritza eta Abeltzaintzako gunea eta landazabala: Erribera eta Sariako ibarrak eta Izoztegiko urbazterrak.	♣ Oria ibaiaren bokalean hirigune bat finkatzea proposatzen da. ♣ Hirigune historikoaren dinamizazioa proposatzen da. ♣ Ibai eta Erreken ertzak Antolatzeke LAPean Motondoko ingurua berreskuratzeko premia duen ibaitarte gisa proposatzen da. ♣ Oriako itsasadarra baimendutako erabilaren arabera antolatzen eta banatzen da zonatan.

7. LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
EKONOMIA JARDUKETARAKO LURZORU PUBLIKOA ETA MERKATARITZA EKIPAMENDUAK SORTZEKO LAP ♣ Eskualde-Egiturak jarduketa ekonomikoetarako kalifikatutako 463 Ha lurzoru ditu guztira, hauetatik 318 Ha lurzoru okupatuari dagozkio eta 145 Ha lurzoru ez okupatuari. ♣ Orio, Aia eta Getarian ez dago lurzoru erreserba taxuzkorik, erreserba nagusienak Azpeitia, Azkoitia, Zumaia eta Zarauzko udalerrietan, eta batez ere, Zestoako Arroa Bekoa poligono publiko berrian kontzentratzen da. ♣ 1990-2002 aldian Urola Kostako Eskualde-Egituran gertaturiko industria-lur okupazioaren gehikuntza 70 Ha ingurukoa izan dela kalkula daiteke, honek urteko 6 Ha inguruko batez besteko hazkuntza erritmoa adierazten duelarik. ♣ Jarduera ekonomikoen garapenerako Lehentasun Esparruen Maparen arabera, bi udalerri mota bereizten dira: Jarduera ekonomikoei dagokien lurzoru “hazkuntza orekatuko” udalerriak (Aia, Aizarnazabal, Getaria eta Orio) eta Jarduera ekonomikoei dagokien lurzoruaren antolamendua eta promozioa “lehentasunezko interesa” duten udalerriak (Zarautz, Zestoa eta Zumaia)	♣ Eskualde-Egiturak jarduketa ekonomikoetarako lurzoru erreserba du. ♣ Diagnostikaturiko udalerrietan ez dago lurzoru erreserba taxuzkorik. ♣ Orio, Aia eta Getaria hazkuntza orekatuko udalerrien artean aurkitzen dira jarduera ekonomikoei dagokienez.

7. LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
LURZORUAREN ERABILERA ETA EGUNGO HIRIGINTZA EGITURA ♣ Azalera Osoa = 980 Ha ♣ Bizitegitarako eta industria erabileratarako lurzoru azalera ondokoa da: - Hiri-Lurra: 185.900 m² - L. Urbanizagarria: 189.600m² - L. Urbanizaezina: 5.700 m² ♣ Garatutako guneek oso dentsitate altua agertzen dute, batez ere <i>Pelotar, Iturbide eta Antziolan</i>. ♣ Oriok bere azalera okupatua bikoiztu egin du azken 10 urteetan eta biztanleria berriz mantendu egin da (gutxi gora behera 400 biztanle gehiago) ♣ Umeentzako parkeak gutxi dira eta daudenak egoera txarrean daude ♣ Udalerriko hiri parke modura Antilla eta Oribazarko Hondartzak eta euren ingurune hurbilak hartzen dira. ARAU SUBSIDIARIOEN ANALISIA ♣ Egun indarrean dagoen udal dokumentu urbanistikoa 1990eko apirilaren 30ean onarturiko Arau Subsidiarioei dagokie. ♣ 2004ko uztaillean AASS Berrien Aurrerapen dokumentuari hasierako	♣ Garatutako guneek oso dentsitate altua agertzen dute. ♣ Parke eta lorategi eskasia dago. ♣ Egun AASS Berrien Aurrerapen dokumentua onartua dago. ♣ Aurrerapen honetan ondokoa proposatzen da: - Hirigune Historikoaren Birgaitze Planaren bitartez Hirigune historikoa birgaitzea.

7. LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
onespena eman zitzaion, egun berrikuste prozesuan aurkitzen delarik. ♣ AASSen Aurrerapen dokumentuan ondorengo irizpide eta helburu orokorrak jasotzen dira: – <u>Hiri antolamendua egoera berrira egokitzea</u>, udaletik kanpo egingo diren proiektuak direla eta (Orioko itsasadarreko Portuko Plan Berezia, A-8 Autobidearekin egingo den lotura eta Orioko Saihesbidea). – <u>Finkaturiko hiri-egituraren birsorkuntza fisikoa eta funtzionala</u>, “Mutiozabal” ezkerreko marjinaren, “Cerámica Arocena” eta “Ensanche” inguruan batutako industria instalazioen erabileretan aldaketak eginez. Hirigune Historikoaren Birgaitze Plana. “Dike” zonako jarduketa proposamenaren berrikuspena. Gudari eta Iturbide kaleen artean kokatutako “uharte-patio”-en birsorkuntza. – Lurzoruaren proposamen berriak “Azkue” eta “Hondartza” eremuen antolamendura egokitzea. – Errekaren eskuinaldean, polikiroldegiaren jarraipen gisa, <u>kirol eremu zabala sortzea</u>,	– Ibaiaren ondoan kirol eremua sortzea. – Espazio libreak erabat betetzea. – Ekipamendu eta gune berdeen zerrenda bat sortzea. – Trafiko zirkulazioa desbideratzea eta herriko plazaren peatonalizazioa ahalbidetuko duen zubi berri bat eraikitzea. – Aizperron industrigune berri bat sortzea. – Landa lurreko berezko balio naturalak babestea. – Hiri-parke eta babes paisajistikorako parke bat sortzea eremu malkartsu batean.

7. LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
kokapen pribilegiatua duen espazioan. – “Azkue” eta “Erribera” eremuen artean eta “Azkue”, “Bikamiota” eta “Hondartze” berri artean geratzen den <u>espazio librea erabat betetzea</u>. – Itsasadarraren ertzean, kirol-porturaino, <u>ekipamendu eta gune berdeen zerrenda bat sortzea</u>. – “Kofradiaren” altueran <u>zubi berri bat eraikitzea</u>, CN-634 “Ensanche”ko zona berriarekin batuko duena, Hirigune Historikoaren peatonalizazio aurrerakorra baimenduz eta egungo zubiaren gailurrak suposatzen duen oztopoa gaindituz. Era berean, biribilgune baten bitartez, Aiako industrigunetik eratorritako zirkulazioa berrantolatuko da. – “Bikamiota” eta “Ensanche”ko ertzeko mendi-hegalean, hirigune historikoarekin lotzen deneraino, <u>hiri-parke eta babes paisajistikorako parke bat sortzea</u>. – <u>Aizperron</u>, autobideko lotunetik gertu, <u>industrigune berri bat</u>	

7. LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
<u>sortzea</u>, desplazaturiko industriak birkokatzeko eta dagoen eskaria beteko duen industrialde txiki bat eraikitzeke. – <u>Landa-lurraren balore produktibo, paisajistiko eta ekologikoa babestea</u>, ingurune honetan erabilera eta eraikuntza desegokien ezarpena ekiditeko. – <u>Bizitegitarako eskaintza aukeraren antolaketa</u> tipologiakoa egitea. HAZKUNDE AURREIKUSPENAK ♣ Bizitegitarako lurzoruak (Hiri lurra gehi lurzoru urbanizagarria) 368.913 m²-ko azalera hartzen du, 1990. urtetik 20.813 m²-ko gehikuntza hauteman delarik. ♣ Industria lurzoruak (Hiri lurra gehi lurzoru urbanizagarria) 51.922 m²-ko azalera hartzen du, 1990. urtetik 24.722 m² gehikuntza hauteman delarik. ♣ Giza ekipamendu sistemara zuzendutako lurzoruaren aurreikuspenak: - Ikastetxe eremuaren handitzea eta zentro berri bat eraikitzeak erabilera honetara bideraturiko azalera 8.327 m²-tik 13.827 m²-ra emendatzen dute. - Kirol ekipamenduen lekualdaketek, eraikuntzek eta finkapenek, erabilera honetara zuzendutako 7.065 m²-ko azalera aurreikuspena ondorioztatzen dute. - Hiri Parke berriak sortzeak Antilla eta Oribazar hondartzak eta inguruko eremuak	♣ Udalerrriak industriguneei dagokienez agertzen duen gabezia edo hutsunea arintzeko baliatzen da. ♣ Enpresak Mutiozabal poligonotik atera nahi dira eremu hau bizitegitarako bilakatzeko. ♣ Ekipamendu komunitarioen sistemara bideraturiko aurreikuspenak daude, zeintzuek ondorengoetan izango duten eragina: – Ikastetxeak – Kirol ekipamenduak – Hiri parkeak – Oria itsasadarreko Portua

7. LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
alde batera utzita, 74.273 m²-ko azalera ematen dute. - Oria itsasadarreko Portuaren Plan Berezia: arrantza-portua ezkeraldera lekualdatzea, errekaaren eskuinaldean kirol-portua egitea, ezkeraldean Itxasetxearen ondoan beteranoentzako ontziraleku bat egitea eta, ezkeraldean, Mutiozabalen kaiaren luzapena proposatzen dira. LURZORU URBANIZAEZINAREN TRATAMENDUA (AASSen arabera) ♣ Lurzoru Urbanizaezina ondorengo zonatan sailkatzen da: - Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiak - Nekazaritza erabilera ez profesionalizatuak - Basogintzako erabilerak - Obra publikoei loturiko erabilerak - Lurraldearen ustiapenarekin loturarik ez duten bizitegitarako erabilera autonomoak - Erabilera tertziarioak ♣ Eraikigarritasunari dagokionez, kalifikatutako zona bakoitzean definituriko erabilerei doitzen zaizkien eraikinak bakarrik onartuko direla adierazten da Aurrerapen dokumentuan ♣ Dauden eraikinak finkatzen dira,	♣ Lurzoru Urbanizaezina kategoria bakoitzean baimentzen den erabileraren arabera sailkatuta dago. Etxebizitza berrien eraikuntza araututa dago eta egungoak finkatuta.

7. LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
katalogaturiko erabilerei dagokienez zona desegokian kokatzen direnak edo exijituriko araudi partikularra hausten dutenak salbu. ELEMENTU ESANGURATSUAK ♣ Antillako hondartza eta hirigunea lotzen dituzten bidegorri tramu desberdinak proposatu dira.	♣ Hondartza eta hirigune historikoa lotzeko bidegorriak eraikitzea proposatu da.

8. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
EGUNGO ERREPIDE SAREA ♣ Orioko zirkulazioa ondoko errepide sarearen bidez egituratzen da gaur egun: A-8 autobidea, N-634 eta Txankako errepidea. ♣ Eusko Trenbideak-eko autobus eta trenak herria zeharkatzen dute. ♣ Orioko errepide sarearen dentsitatea (Txankako errepidea kontutan izan gabe) 0,71 Km/Km² da, Udaltaldeko batez besteko dentsitatearen azpitik (1 Km/Km²). ♣ N-634 errepidea eguneko ordu puntatan saturatu egiten da ERREPIDE SAREKO PROIEKTUAK ♣ Urola Kostako Lurraldearen Zatikako Planean (2003-2018) jasotzen denaren arabera Orion (Txanka) A-8 <u>Autobidearekiko lotune bat</u> egitea aurreikusten da. Proiektu hau Orioko Arau Subsidiarioetan ere aipatzen da; bertan printzipioz erdi-lotune bat litzatekeela jasotzen da (lotura Donostiarekin soilik) baina ez da baztertzen etorkizunean lotune osoa egitea. ♣ Urola Kostako Lurraldearen Zatikako Planean (2003-2018) jasotzen denaren arabera Oria itsasadarraren	♣ Garraio publikoa tren eta autobus bidezkoa da. ♣ Orioko errepide sarearen dentsitatea Udaltaldeko batez besteko dentsitatea baino baxuagoa da. ♣ Hondartzako gunea betetzen ari da eta urrun geratzen da garraio publikoetatik ♣ Urola Kostako Lurraldearen Zatikako Planean (2003-2018) Orion (Txanka) A-8 Autobidearekiko lotune bat egitea aurreikusten da. ♣ Urola Kostako Lurraldearen Zatikako Planean (2003-2018) Oria itsasadarraren gainean beste zubi bat eraikitzea aurreikusten da (Anibarko Portutik Motondora).

8. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
gainean beste <u>zubi bat eraikitzea</u> aurreikusten da (Anibarko Portutik Motondora) A-8 autobideko Txankako lotunetik abiatuta (Orioko saihesbidea). Itsasadarraren hegoaldean proiektatzen da traza berria. Proiektu hau Orioko Arau Subsidiarioetan ere jasotzen da. ♣ LZP nahiz Arau Subsidiarioek Txanka eta Hondartza arteko errepidearen hobekuntza aurreikusten dute; Arau Subsidiarioek Hirigune Historikoko goialdea eta errepide honen arteko lotura exekutatzea proposatzen dute A-8 autobide gaineko pasabide baten bidez. ♣ Arau Subsidiarioetan ondoko aurreikuspenak ere jasotzen dira: - Zubi berria Oria ibarreko hiri-zabalgune berria eta N-634 artean, Aiako industriguneko zirkulazioa bideratuko duen errotonda bat burutuz. Zubi honek itsasontziei gaur egungo moilara pasatzen uztea posible da. - “Sareta” itxurako bide sarea zirkulazioa eta hiri-zabalgunea antolatzeke. - Hirigune Historikoa partzialki oinezkoentzat egokitu eta gaur egungo zubiaren erabilera bigarren maila batetara pasatzea. MUGIKORTASUNAREN ARRAZOIAK ♣ Lanari lotutako mugikortasunari	♣ Arau Subsidiarioetan hiri zabalgune berria eta N-634 zubi berri baten bidez lotzea aurreikusten da, beti ere itsasontziei moilara pasatzen utziz.

8. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
dagokionean, Urola Kostako Udaltaldean eta Gipuzkoan batez beste bi langiletik batek beste Udalerri batera joan behar izaten badu arrazoi hau dela eta, Orion 10 langiletik 7 dira mugitu behar dutenak. ♣ Ikasketei lotutako mugikortasunari dagokionean (derrigorrezko ikasketak izan ezik), 2001ean Orioko ikasleen %100ak beste Udalerri batean burutzen zituen ikasketak. IBILGAILUAK ♣ Orion 1.000 biztanleko 481 ibilgailu daude, Urola Kostako Udaltaldean 468 eta Gipuzkoan batez beste 543 (2002ko datuak). ♣ 1996 eta 2002 urteen artean Orioko ibilgailu kopurua %30,6ean igo da (%5,1 urteko). ♣ Ibilgailu pribatuaren erabilera altua da eskualde barneko mugikortasunari dagokionean. APARKALEKUAK ♣ Orion gaur egun 1.966 aparkaleku plaza daude eta 2.059 auto daude zentsatuta (0,95 aparkaleku auto bakoitzeko). ♣ Aparkaleku berriak eraikitzeko aurreikuspenei dagokionean: AASS	♣ Orion lanarekin lotutako mugimenduak eskualdean baino ugariagoak dira. Ikasleen ia %100ak beste Udalerri batetara joan behar izaten du ikasketak (derrigorrezko hezkuntza kontutan izan gabe) direla eta (2001). ♣ Orion 1.000 biztanleko 481 ibilgailu daude, Urola Kostako batez bestekoa gaindituz eta Gipuzkoako batez bestekoaz azpitik. ♣ Ibilgailu eta aparkaleku kopurua nahikoa orekatuta daude gaur egun.

8. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
aurreikuspenei dagokienean: AASS en berrikuspenean lurrazaleko 1871 plaza eta lurpeko 2064 plaza aurreikusten dira. GARRAIO PUBLIKOA ♣ Garraio publikoan detektaturiko gabeziak zerbitzu kantitateari baino kalitateari dagozkio, batez ere autobus eta tren geltokiak hirigunetik kanpo aurkitzen direla eta. ♣ Zarautz-Azpeitiako (Urola Kosta) Funtzio-Arloko Lurraldeko Zatikako Planaren (LZP) (2003-2018) arabera zenbait interbentzio estrategiko beharrezkoak izango dira: - Zerbitzuaren maiztasuna hobetzeko sarearen bikoizketa. - Aia-Orioko trenbide-pasagunearen ezabaketa eta Orioko geltokiaren berregituraketa. ♣ Orioko Merkataritza eta Turismoa Birgaitzeko Plan Bereziak (2003) hirigunea-hondartza garraio zerbitzuaren sorrera proposatzen du ♣ Gipuzkoako Bidaia-arien Garraio Publikoko Sarearen Ikerketak Donostia, Zarautz, Eibar eta Bilbo lotuko lituzkeen autobus zerbitzu bat planteatzen da, egungo tren bidezko	♣ AASSen berrikuspen prozesuan aurreikusiten diren aparkalekuek aurreikusiako ibilgailu parkearen igoera dela eta sortutako beharrak aseko dituzte. ♣ Garraio publikoa ez da Udalerriko herrigunera iristen eta horrek, beronen erabilera oztopatzen du. ♣ Lurraldeko Zatikako Planaren (LZP) trenbide sarearen desdoblamentua eta Aia-Orioko trenbide-pasagunearen ezabaketa eta Orioko geltokiaren berregituraketa aurreikusten dira. ♣ Herrigunea eta hondartza artean motora bidezko garraioa sortzea aztertzen ari da Udala.

8. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
loturaren lehiakortasun eza dela eta. ♣ Autobusaren zerbitzua garestia da (ez dago bonorik) Trena Zarautzera joateko garestia da. Autoaren antzekoa MOTORGABEKO MUGIKORTASUNA ♣ Gaur egun Orion bidegorri bat dago. ♣ Lurraldeko Zatikako Planean (LZP) kostarekiko paralelo oinezkoentzako ibilbide baten antolamendua aurreikusten da Kukuarritik (Orio) Debaraino, Orioko hirigunea zeharkatuz. ♣ Bizikletaz ibiltzeko seinaleztapenik ez dago bideetan IRISGARritasuna ♣ Orioko Irisgarritasun Planak (2001), Orioko lurraldeak irisgarritasun ikuspuntutik orografia konplikatua duela adierazten du, batez ere Hirigune Historikoan ♣ Aurkitutako arazoak ondokoak dira: espaloien estuasuna (eta espaloi bakarreko edo gabeko galtzadak), gaizki diseinatutako oinezkoen pasabideak, edo pasabiderik ez egotea. ♣ Beste gabezia batzuk: malda handiko, arrapala edo eskailera tramuen eza, ibilbide eta pasabideetan banda seinaleztatzailerik eta alarmazko	♣ Gaur egun herrian bidegorri bakar bat dago. ♣ LZPak oinezkoentzako ibilbide bat aurreikusten du kostarekiko paralelo, Orio zeharkatuz. ♣ Hirigune Historikora irisgarritasuna hobetzeko elementu mekanikoen beharra nabaria da. ♣ Espaloien egoera txarra da: toki batzuetan falta dira eta daudenean gabezia handiak daukate (estutasuna...). ♣ Espaloiak egokitzeko lanekin jarraitu behar litzateke.

8. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
seinaleztatzailerik eta alarmazko zoladurarik ez dagoela.	♣ Eremu malkartsuetan eskudelak falta dira eta oinezkoen segurtasunerako seinaleztapenik ez dago..

9. INGURUMEN BEKTOREAK	
URA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
HORNIDURA ♣ Oriaren sare hidrografikoa ardatz nagusia (Oria ibaia) eta lehen mailako zazpi ibaiadarrek osatzen dute. Ori ibaia, Otzaurte inguruan bat egiten duten Aitzgorri mendilerroko erreka biltzaile batzuetatik sortzen da eta Orion itsasoratzen da. ♣ Urola Kostako eskualdeko hornikuntza sistema Azpeitian kokatutako Ibai-Eder urtegiak eta Ur Edangarrirako Tratamendurako Estazioak osatzen dute. Sistema honek ur edangarria banatzen du Udaltaldea osatzen duten udalerrietan (Zestoa, Aizarnazabal, Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orion), eta baita Azkoitia eta Azpeitian ere. ♣ San Juanen beste ur hartune bat dago, Ibai Ederretik hornitzen hasi aurretik erabiltzen zena. ♣ Gaur egun Orioko bilketa sistema bi biltegik osatzen dute: Katxinako biltegia (altakoa) eta Orioko Bentako biltegia (bajakoa). Bestalde, jabego pribatuko beste biltegi bat ere badago (Kanpalekuko biltegia). Noizbehinka, larrialdi uneetan, sareak bertatik hartzen du ura. Biltegitratze ahalmena guztira 800 m³koa da (2003ko urria). ♣ Lur urbanizaezinean biltegi propioa duten etxebizitzak badira. Gaur egun biltegi hauek ez daude zerrendatuta	♣ Gaur egun Oriok ur hornidura asetuta dauka Azpeitian kokatutako Ibai Eder urtegitik; San Juanen erreserbako beste hartune bat dauka.

9. INGURUMEN BEKTOREAK	
URA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
KONTSUMOA ♣ 2002 eta 2004 urteen artean ur kontsumoa batez beste hiruhileko 68.470 eta 98.694 m³ artekoa izan zen. SANEAMENDUA ♣ Orioko saneamendua Udalerriko kolektore orokorra, Orioko ur zikinak Zarautzaino ponpatzeko sistema eta Iñurritzako U.Z.A.-k osatzen dute. ♣ Saneamendu sarea ia udalerrri osoan osatu da, Iturbide kalea eta Udaletxe inguruko plazan izan ezik. KONTROL JARDUERAK ♣ Bai hornikuntza baita saneamendu sarea ere Gipuzkoako Ur Kontsortzioak kudeatzen ditu. Udalak euri urak kontrolatzen ditu soilik. 2005 urtetik aurrera Ur Kontsortzioak Uraren Ziklo Integrala kontrolatzen du. ♣ Udal eraikinetan egiten den kontrol bakarra kontsumoarena da. Bestalde, kanpalekuko udal biltegian legionellosiaren aurkako aparatua jarri zen eta zegokion tratamendua egin zen. GABEZIAK ♣ Marea bizien garaian arazoak sortzen	♣ Orioko ur zikinak Zarauzko Ur Zikinen Araztegira ponpatzen dira. ♣ Ur zikinen saneamendu sarea Iturbide kalea eta Plaza inguruko ur beltzen eta euri uren banaketa amaitzen denean osatuko da. ♣ Gipuzkoako Ur Kontsortzioak uraren ziklo osoa kudeatzen du 2005eko urtarritetik. ♣ Saneamendu sarean itsasoko ura

9. INGURUMEN BEKTOREAK	
URA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
dira, itsasoko ura saneamendu sarean sartzen delako. ♣ Gipuzkoako Foru Aldundiak ur biltegi berri baten eraikuntza aurreikusita dauka Katxiñatik gertu.	sartzen da marea biziak direnean. Arazo hau ur beltzak eta euri urak banatzen direnean konponduko da.

9. INGURUMEN BEKTOREAK	
ENERGIA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
HORNIDURA ♣ Berriki gasa sartu da herrian. Oraindik ez dago kontsumoaren inguruko daturik. KONTSUMOA ♣ Kontsumo mailarik altuenak etxebizitza eta zerbitzu sektorean gertatzen dira. ♣ Energia kontsumo totalak %11 gora egin zuen 2000 eta 2003 urteen artean; hazkunde tasarik altuenak zerbitzu sektorean eman ziren (%12,5). ♣ Biztanleko energia fakturazioa %5 igo da 2000 eta 2003 urteen artean. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ♣ Gaur egun ez dago energia berriztagarriak. ENERGIA AURREZTEKO UDALAREN NEURRIAK ♣ Urbanizazio berrietan fluxu kontrolatzaileak ezartzen dira; gainerako urbanizazioetan ezartzea ere aurreikusita dago.	♣ Orioko argindar kontsumo totalak gora egin du 2000 eta 2003 urteen artean, biztanleko energia fakturazioa gutxi gorabehera egonkor mantentzen den arren; etxebizitza eta zerbitzu sektorea dira kontsumo handieneko sektoreak. ♣ Energia berriztagarrien sorkuntza sistemarik ez dago. ♣ Energia kontsumoa kontrolatzeko fluxu kontrolatzaileak ezartzen ari dira urbanizazioetan.

9. INGURUMEN BEKTOREAK HONDAKINAK	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
HONDAKINEN BILKETA ♣ Urola Kostako Mankomunitateko Ingurumen Departamentuak kudeatzen du eskualdeko hondakinen gaikako bilketa. ♣ Orioko edukiontzi parkea (2003): Hiri hondakinatarako 105 edukiontzi (10 lurpekoak), beiratarako 17 edukiontzi, paperetarako 17 edukiontzi, ontzietarako 14 edukiontzi eta eskualde mailan ehunetarako 18 edukiontzi. (horietako 3 Orion) ♣ Merkataritza sektoreko kartoia finkatutako bilketa puntuetan utz daiteke baita Industria sektorekoa ere (Vinos Atxega, Arin y Embil, Gureak). ♣ Berriki, Mankomunitateak ontziak jasotzeko gurpildun edukiontzi txikiak erosteko aukera eskaini die taberna eta jatetxeei.(batek bakarrik eskatu du. Gehienek gertu dauzkate edukiontziak) Bestalde, Orioko paper denda batek inprimagailuetako kartutxo erabiliak jasotzen ditu. ♣ Urola Kostako Mankomunitateko herrietako hiri hondakinak Urtetako zabortegean isurtzen dira. 2003an zabortegei honetan 21.350,780Tm zabor bildu zen.	♣ Hondakinen gaikako bilketa Urola Kostako Mankomunitatearen esku dago. ♣ Orioko hiri hondakinak Urtetako zabortegean isurtzen dira. Hortaz, beharrezkoa da Europako zabortegeen inguruko legedia betetzeko ekintzak diseinatu behar dira Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integralarekin bat eginik. ♣ Mankomunitateak hondakinen gaikako banaketa hobetzeko lanean dihardu: Berriki papera eta kartoiaren bilketa banatu egin dira, etxeetako hondakin arriskutsuen bilketarako zerbitzu bat ezarri da eta tabernei ontziak botatzeko edukiontzi berezi batzuk eskaini zaizkie.

9. INGURUMEN BEKTOREAK	
HONDAKINAK	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
♣ Hiri hondakin solidoen gorakada nabarmena antzematen da 2003ko urtarrila eta otsaila artean. Prestigen isurketaren ondorioz hondartza garbiketan jasotako hondakinei ondorioa da. ♣ 1997 eta 2001 urteen artean paperaren gaikako bilketak %65eko gorakada jasan zuen Orion; 2001 eta 2003 urteen artean, berriz 532ko beherakada jasan zuen 81.294 Kg. jasoaz. 2001 urtean kartoia aparte biltzen hasi zela da beherakada honen arrazoia. 2002 eta 2003 urteen artean atez ateko kartoi bilketak %74an egin du gora eskualde osoan. ♣ 1997 eta 2003 urteen artean beiraren gaikako bilketa bikoiztu egin da Orion. Honela bada, 1997an 50.779 Kg. biltzetik 2003an 102.408 Kg. biltzera pasa da. ♣ 2000 eta 2003 urteen artean ontzien gaikako bilketak %134ko igoera jasan du Orion. Honela bada, 2000 urtean 11.271 Kg. biltzetik 2003an 26.399 Kg. biltzera pasa da. ♣ Etxeetako hondakin arriskutsuen bilketako furgoneta bat ibiltzen da herriz herri eskualde mailan. Orion zerbitzu hau hilabeteko lehen ostegunean eskaintzen da.	♣ Orion, eskualdeko gainerako herrietan bezala, hondakinen gaikako bilketak nabarmen gora egin du azken urteetan.

9. INGURUMEN BEKTOREAK	
HONDAKINAK	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
♣ Mankomunitateak Zarauzko Garbigunea handitu eta Zumaian beste Garbigune bat eraikitzeari ekin behar izan dio bildutako hondakin kopurua eta herritarren erantzuna direla eta. ♣ 2002an Orion 349 Kg. pila bildu ziren, 2003an, berriz, 1.049 Kg. ♣ 2002an Orion 9.492 Kg. ehun bildu ziren, 2003an, berriz, 16.166 Kg. ♣ 2002an Orion 240 litro olio bildu ziren, 2003an, berriz, 1.140 litro. ♣ 2001ean Garbigunean 47.945 Kg bildu ziren, 2003an, berriz, 1.225.950 Kg. KONTROL JARDUERAK ♣ Berriki, Orioko Bentak-eko parkean gaikako bilketako edukiontziak ezarri dira sortzen den hondakin kopurua dela eta. ♣ Motondoko zabortegia kokatzen zeneko eremua gaur egun ez da aktiboa baina ez da berau berreskuratzeko neurririk hartu; Oria ibaiko padura eremua Euskal Herriko Hezeguneen Inbentarioaren baitan dago.	♣ Motondoko eremua lehen bertan zegoen zabortegia dela eta kutsatuta dagoela uste da.

9. INGURUMEN BEKTOREAK ATMOSFERA ETA AKUSTIKA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
ATMOSFERA ♣ Orion trafikoa da atmosferara substantzia kutsatzaileak emititzen dituen foko nagusia. Kutsadura nabaria da Aita Lertxundi eta Anibarko Portua kaleetan N-634 errepidea dela eta. ♣ Berriki “Nueva Cerámica de Orio” enpresak erregai bezala ikatza erabiltzeari utzi eta gas naturala erabiltzen hasi da. Bestalde hondakin atmosferikoak ebaluatzeko proiektu bat jarri da martxan. ♣ Etxebizitza eta zerbitzuetan elektrizitatea eta petrolioaren eratorriak (gas likidotuak, gasolioa eta fuel olioak) erabiltzen dira erregai moduan. Petrolioaren eratorri likidoak –baita elektrizitatea ere- pixkanaka gas naturalaz ordezkatzeko karbono monoxido edo sufre dioxido igorpenak gutxitzea lekarke. ♣ Airearen kalitatea kontrolatzeko estazio hurbilena Pagoeta Natur Parkean dago. ♣ Estazio honetan jasotako datuen arabera Urola Kosta Udaltaldeko Udalerrietan ez dago kutsadura atmosferikoarekin lotutako arazo nabarmenik. Oriori dagokionez, kutsadura atmosferikoa zirkulazioarekin lotutako igorpenek eragindako foko puntualetan hautematen da.	♣ Kutsadura atmosferikoaren adierazleek ez dute arrisku egoerarik azaltzen. ♣ Kutsadura atmosferikoaren foko nagusia N-634 errepidea da, eragina kuantifikatzeko dagoen arren. ♣ Industria sektoreko zenbait kutsadura foko ezabatu egin dira ikatza gas naturalaz ordezkatu ondoren.

9. INGURUMEN BEKTOREAK ATMOSFERA ETA AKUSTIKA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
AKUSTIKA ♣ Orion detektatutako zarata arazo nagusiak ostalaritza eta zirkulazioari lotutakoak dira.	♣ Gaur egun ostalaritza sektoreak eragindako zarata arazoei aurre egiteko neurketak egin eta neurriak hartzen ari dira.

10. JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
BASO USTIAPENAK ♣ Baso ustiapen baten <u>eragin negatiboak</u> ondokoak izan daitezke: -Paisaiaren gaineko eragina eta bioaniztasun galera. -Lurzoruaren higadura. Fenomeno hau areagotu egiten da landaketa berriak direla eta lursailak garbitu eta moldatzeko hondeamakinak erabiltzen diren kasuetan. -Aurre antolaketa eta koordinaziorik gabe baso pistak irekitzeak baso eremuen ezabatzea dakar, gainazaleko isurketa fluxu handien sorkuntza, lurzoruaren trinkotzea eta higadura eta abar faboratuz. -Finkatutako basogintza distantzia minimoak ez betetzeak baso suteekiko zaurgarritasuna areagotzea suposatzen du; era berean herritar, lur-jabe eta abarren arteko liskarrak sortzea errazten du. - Partzela pribatuetako landaketak ez daude erregulatuta. - Basoetako izurriak kontrolatzeko tratamendu biologiko-kimiko integratuak direla eta eragindako eragin negatiboak. ♣ Udalerrian antzematen den arazo nagusienetako bat zera da, baso azaleraren zati handi bat jabego pribatukoa dela, honek Udalak bertako landaredia sustatzeko politikak garatzea oztopatzen duelarik.	♣ Baso ustiapenek inpaktu negatiboak eragin ditzakete ingurunean behar den neurriak hartzen ez baldin badira. ♣ Baso azalera gehiengoa pribatua denez Udalak ezin du jarduera hauen kontrol eta erregulazioan parte hartu.

10. JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
NEKAZAL JARDUERAK ♣ Nekazaritza ustiapeneko <u>eragin negatiboak</u> ondokoak izan daitezke: - Produktu fitosanitarioetatik eratorritako hauts, gas... igorpenak. - Lurpeko uren kutsadura produktu kimikoak (pestizidak, ongarriak,...) modu intentsibo eta desegokian erabiltzeagatik. - Hondakin sorkuntza: landare-osasunarentzako produktuen edukiontziak, plastikoak, eta abar. - Urak landaredia edo laborantzarik gabe geratu den zoru biluziarengan higadura eragin dezake. - Higadura edota nekazal jarduera desegokiek lurzoruaren egitura eta beronen propietate fisiko-kimikoengan eragin dezakete. ♣ Berriki landa-etxe eta nekazaritza ekologikoko ustiategi batentzako proiektua onartu da Luzarbe inguruan. ♣ Udalerriko nekazal ustiategi handiena Salmeristi baserrian dago, bere lurren %50a berotegiz osatuta baitago. ABELAZKUNTZA JARDUERAK ♣ Abelazkuntza ustiapeneko <u>eragin negatiboak</u> ondokoak izan daitezke: - Hondakinen hartxidura dela eta kiratsa sor daiteke. - Abelazkuntzako hondakinak ongarri, bezala, modu desegokian	♣ Berotegidun nekazal ustiategi intentsibo bat dago Orion. Produktu fisiko-kimikoen erabilera dela eta kutsadura eragin lezake.

10. JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
ongarri bezala modu desegokian erabiltzeak lurzorua eta lurpeko uren kutsadura eragin dezake. ♣ Gaur egun Orion 6 behi ustiategi intentsibo daude. Udalerrian ardi ustiategi batzuk eta oilasko granja bat ere badira. ♣ Gaur egun sektore honetako hondakinen inguruko araudiaren betetzea Udalak ez du kontrolatzen. ARRANTZA ♣ Arrantza jardueraren <u>eragin negatiboak</u> ondokoak izan daitezke - Kate trofikoak aldatzea. - Heldugabeen harrapaketak. - Espezie mehatxatuen egoeraren okertzea. - Birsorkuntza oztopatzen duten jarduerak burutu eta legez kanpoko arrantza moduak erabiltzea. - Itsasontzietako motorrak ez mantentzea. - Itsasontzietako saia, soto eta tankeetako garbiketako hondakinak itsasora isurtzea. - Anti-fouling pinturak erabiltzeagatik itsasoa kutsatzea. - Hondakin arriskutsuak modu desegokian kudeatzea, batez ere motorreko olio erabiliak. Gaur egun	♣ Behi aziendadun ustiategi intentsiboak daude herrian; Udalak jardueron jarraipen bat egin beharko luke ingurunean eragin dezaketen kutsadura dela eta. ♣ Arrantza jarduerak kutsadura iturri dira itsasoan isurtzen diren zaborrak, eta estuarioan burutzen diren beste isurketak (pinturak, olioak,) direla eta. Gainera oso zaila da Arrantzaleek zaborrok biltegiratu eta portura ekar ditzaten lortzea, itsasontzian sortzen zaizkien eragozpenak direla eta.

10. JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
motorreko olio erabiliak. Gaur egun Orion olio hauek bidoietan jasotzen dira. - Kate trofikoan ingurumen inpaktu potentzial bat eragin dezaketen espezieak askatzea. - Hauskortasun natural handiko arrantza ibilbideak erabiltzea. ♣ Itsasontzietan sortutako hondakinei dagokienean, euren gaikako bilketa errazteko kanpaina bat burutu zuen Urola Kostako Mankomunitateak, baina hau amaitu ostean ez da banaketa egiten jarraitu. INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK ♣ Industria jardueraren <u>eragin negatiboak</u> ondokoak izan daitezke: Baliabideen kontsumoa eta hondakin, isurketa, zarata eta igorpenen sorkuntza. ♣ “Nueva Cerámica de Orio” da Orion kutsadura atmosferikoa dela eta arazo gehien sortu izan dituen enpresa, ikatza erabiltzen zuelako erregai moduan. Berriki ikatza gas naturalaz ordezkatu dute. ♣ Orion kutsadura arazo nabariak hiri-lurrean kokatutako jarduerak eragindako zarata eta zenbait kasutan usain txarra dira. LURZORU POLUITUAK ♣ EAEko Lurzoruaren Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten	♣ Kutsadura arazo handiena zaratagatik ematen da. Herrigunean kutsadura akustikoa lantegi eta tabernek eragiten dute. ♣ EAEko Lurzoruaren Poluitzaile izan

10. JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA					
DIAGNOSIAREN LABURPENA			ONDORIOAK		
daitezkeen	Jarduerak	dituzten	daitezkeen	Jarduerak	dituzten
Lurzoruen	Inbentarioan	Oriori	Lurzoruen	Inbentarioan	Talleres
dagokionez	0,75 Ha.	Okupatzen	Arostegui eta	Motondoko	zabortegia
dituzten bi	lursail daude	inbentariatuta:	kokatzen	zeneko eremua	ageri dira.
Motondoko	zabortegi zaharra	eta			
Talleres	Arostegui S.L.k	okupatutako			
lursaila.					

11. ARRISKUEN ANALISIA ETA KUDEAKETA	
DIAGNOSIAREN LABURPENEA	ONDORIOAK
♣ Orioko Udal Larrialdi Plana 2000. urtean burutu zuen TECNIMAP (Energia eta Ingurumena) enpresak, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren dirulaguntzaz. ♣ 2004n Udaletxe, Kiroldegi eta Kultur Etxeko Larrialdi Planak egin dira.	♣ Udal zein instalakuntza mailan Larrialdi Planak daude.

12. KOMUNIKAZIOA, SENTIKORTZEA ETA PARTE-HARTZEA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
KOMUNIKABIDEAK ♣ Orion KARKARA aldizkaria argitaratzen da hamabostean behin. Euskara hutsean argitaratzen den aldizkari hau Orion sortu zen 1989an eta Udalak berri eta gertaera garrantzitsuen berri emateko erabiltzen du. ♣ Eskualdeko komunikabideei dagokienez, egunero “Urola-Kostako Hitza” egunkaria argitaratzen da. 7000 aleko tirada du eta eskualde guztian banatzen da. KOMUNIKAZIOA UDALETXETIK ♣ Udaletxeak herritarrei informazio orokorra transmititzeko erabiltzen dituen mekanismoak askotarikoak dira: komunikabideak, bando edo iragarkiak, Udalak argitaratutako UERA aldizkaria, edo www.oriola.com. Web orria. KARKARA aldizkaria da biderik eraginkorrena. ♣ IZAGA Zerbitzu Elkartek urte osoan zehar udalerriarekin erlazionaturik argitaratu diren artikulua guztiak jasoaz txosten batosatzen du Udaletxearentzat. Artxibo hauek Orioko Kultur Etxean kontsulta daitezke.	♣ Orioko Udalak KARKARA eta UERA herri aldizkariak eta Urola Kostako Hitza erabiltzen ditu berri eta gertaera garrantzitsuen berri emateko. Hala ere Udalak proiektu eta jarduerak ez direla herritarrengana modu egokian heltzen uste du.

12. KOMUNIKAZIOA, SENTIKORTZEA ETA PARTE-HARTZEA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
♣ Ingurumen gaiei buruzko Herritarren Arreta Informazioari dagokionez ez da udal-mekanismo zehatzik ezagutzen. Urola-Kosta Udaltalde 21 osatzearekin, 2004ko udan Urola-Kosta Mankomunitatean Agenda 21eko informazio telefono bat eta mankomunitateko web orriko foro birtuala jarri ziren martxan. UDAL BATZORDEAK ♣ Orioko Udaletxean zazpi batzorde daude. Batzorde bakoitzaren buru zinegotzi bat dago. Batzordeak irekiak izaten dira parte hartzeko eskaera eginez gero. ♣ Orain arte udalerriak ez du herritarren parte-hartze sistema egituraturik. HEZKUNTZA JARDUERAK ETA UDALAK EDO UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEK SUSTATUTAKO KANPAINAK ♣ Udalak, Arkupe Merkatarien Elkartarekin elkarlanean, urtero “Bisigu Eguna” antolatzen du. ♣ Udaberrian, “Zuhaitz Eguna” antolatzen. ♣ Hire esku programa, Euskararen erabilera sustatzeko asmoz Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalizazio eta Gazteria Saileko Zuzendaritza Nagusien arteko elkarlaneko programa da.	♣ Urola-Kosta Udaltalde 21 osatzearekin, Urola-Kosta Mankomunitatean Agenda 21eko informazio telefono bat eta mankomunitateko web orriko foro birtuala jarri dira martxan ♣ Herritarren partehartzea bideratzeko sistema egituratu bat behar du Udalak.

12. KOMUNIKAZIOA, SENTIKORTZEA ETA PARTE-HARTZEA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
♣ Orioko Turismo bulegoak urtean zehar aktibitate ugari eskaintzen ditu, adibidez “Oriora bisita gidatua: ibaia eta sagardotegia”. ♣ Ikastetxeek ingumenarekin erlazionaturiko aktibitate ugari burutzen dituzte. ELKARTE SAREA ETA PARTEHARTZEA ♣ Orioko udalerrian 30 elkarte daude. ♣ 2004/12/01ean Hiritarren Parte-Hartze Foroaren deialdia egin zen , non udalerriko sektore sozial desberdinen parte-hartzea bilatu zen. Parte-hartzaileen ideia eta iritziak jaso ziren.	♣ Orio ezagutzera emateko jarduerak modu puntualean bakarrik egiten dira, sarriago egin beharko lirateke. ♣ Udalerrian mota ezberdinetako 30 elkarte daude, baina ez dute programa bateraturik. Jardueren eskaintzan koordinazioa falta da.

13. UDALERRIKO INGURUMEN KUDEAKETA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA ♣ Orioko Udala ondoko erakundeetako partaide da: Urola Kostako Mankomunitatea, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa eta Urola Kostako Mendi Nekazaritza Elkartea (URKOME). INGURUMEN KUDEAKETAREKIN ERLAZIONATURIKO ENPRESA ETA ERAKUNDEAK ♣ Uraren kudeaketa, hornidura eta saneamenduari dagokionean, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku dago. ♣ Hondakinen gaikako bilketaren kudeaketa Urola Kostako Mankomunitatearen esku dago. TOKIKO INGURUMEN ARAUDIA ♣ Orioko Udalak ingurumenarekin erlazionaturiko bi ordenantza egin ditu: Ur-ziklo integralaren kudeaketaren udal ordenantza erregulatzailea eta Ostalaritza elkarteen establezimenduen udal ordenantza erregulatzailea (zarata eta bibrazioen inguruko atal bat duena). Ingurumen-kudeaketari dagokion gainerako araudia izaera orokorrekoa da, bai eremu autonomikoan zein estatukoan.	♣ Orioko Udalak dagokion Udalez gaindiko entitate guztietan hartzen du parte. ♣ Orioko Udalak ur eta hondakinen kudeaketa modu mankomunatuan burutzen du. ♣ Orioko Udalak Ur-ziklo integralaren kudeaketa eta Ostalaritza establezimendu eta euren afekzioei buruzko udal ordenantza arautu du.

13. UDALERRIKO INGURUMEN KUDEAKETA	
DIAGNOSIAREN LABURPENA	ONDORIOAK
♣ 2004eko ingurumen arloko udal aurrekontua 346.100 €koa izan zen (udal aurrekontu totalaren %5,86). ♣ Udalerriko Arau Subsidiario berrietan, ingurumena, eta balore paisajistiko eta naturalistikoak babesteko kapitulu bat sartu da. ♣ Hondartza Planaren barruan Dunen Birgaitze Plana sartu da.	♣ AASS berrien dokumentuan ingurumena babesteko kapitulu bat sartu da, beraz, atzera begira alor honetan aurrerapen bat eman dela esan daiteke.

II. ERASKINA:

DIAGNOSIAREN ONDORIOAK ETA HELBURUEN PROPOSAMENA

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
HERRI IZAERA ♣ Herri txiki eta arrantzale izaerak definitu izan du Orio orain arte baina gaur egun aldatzen ari da.	♣ Herri izaera garai berrietara egokitu.
DEMOGRAFIA ♣ Orioko zahartze tasa hazkorra da Gipuzkoa osoan bezala. Biztanleriaren eboluzioa positiboa izan da 1998 eta 2003 urteen artean.	♣ Biztanleriaren berriztapena mantendu.
MIGRAZIOA ♣ Migrazio mugimenduek 94 pertsonako saldo positiboa ageri zuten 2001ean.	♣ Emigrazioa minimoa izan dadin lortu.
BIZTANLERIA ♣ Orioko biztanleen erdia emakumezkoak dira eta beste erdia gizonezkoak. ♣ Biztanle dentsitatea Gipuzkoako batez bestekoa baino altuagoa da. ♣ Familia bakoitzeko pertsona kopurua Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa da.	♣ Udalerriko biztanle kopurua mantendu edo gehitu, herriko izaera mantenduz
EKONOMIA ETA LANA ♣ Orioko BPG eta FEG Euskal Autonomi Erkidegoko batez bestekoaren azpitik zeuden 2000 urtean. ♣ Orioko langabezia tasa baxua da. Biztanleen %93ak lanean ziharduen 2001ean. ♣ Langabetu gehienak 25 eta 34 urte bitartekoak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketadunak dira. ♣ Lan mundua Oriotik kanpo dago eta oriotarrek kanpora jo behar dute lanera	♣ Langabezia tasa handiak jasaten dituzten gizataldeengana zuzendutako ekintzak burutu, lana sustatzearren. ♣ Lanaren kalitatea hobetu Udalerrian. ♣ Udalerrian lanpostu sorkuntza bultzatu
LEHEN SEKTOREA ♣ Orion nekazaritza eta abelazkuntza jarduera garrantzitsua da; 68 ustiategi	♣ Nekazaritza arloko lanpostuak kontutan eduki eta sustatu

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
daude guztira. Hauetatik 6 dira horretatik bizi direnak ♣ Arrantza sektoreak indarra galdu du azken hamarkadan.	♣ Arrantza sektorearen eboluzioa eta bere etorkizuna balioztatu.
BIGARREN SEKTOREA ♣ Eskualdean kokaturiko industria da Udalerriko ekonomiaren motore nagusia. ♣ AASSen aurrerapenean Aizperron industrigune berri bat sortzea proposatzen da. ♣ Udalerriak industriguneei dagokienez agertzen duen gabezia edo hutsunea arintzea bilatzen da, industria lurzorua zabalduz. ♣ Ekonomia jarduketarako lurzoru publikoa eta merkataritza ekipamenduak sortzeko LAP-ren arabera: – Eskualde-Egiturak jarduketa ekonomikoetarako lurzoru erreserba du. – Orion ez dago lurzoru erreserba taxuzkorik. – Orio, hazkuntza orekatuko udalerrien artean aurkitzen da jarduera ekonomikoei dagokienez.	♣ Industria sustatu herritarrentzako lanpostuak sortzearren. ♣ Industria jardueretara bideratutako azalera gehitu. ♣ Udalerri mailan jarduera ekonomikoetarako libre gelditzen den lurra kudeatu.
HIRUGARREN SEKTOREA ♣ 2003an MTPBPB (Merkataritza eta Turismoa Berrindartzeko Plan Berezia) jarri zen martxan ♣ Orion mota ezberdinetako ostatuak aurki daitezke: Kanpina, ostatuak, agroturismoak. ♣ Orioko turismo bulegoa ITOURBASKen baitan sartu da, kalitatezko turismoa sustatzearren. ♣ Kirol Portuak suposatzen duen turismo-potentziala zaindu behar da	♣ Udalerrian bertan kontsumitzea sustatu. ♣ MTPBPB eguneratu eta ebaluatu ♣ Turismoa sustatu, kalitatea irudi bezala erabiliz eta nortasuna mantenduz.

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
ETXEBIZITZA ♣ Orion etxebizitza huts ugari dago. ♣ Orioko gazteengana zuzendutako etxebizitza erreserba egin nahi da. ♣ Etxebizitzen salneurriak nabarmen gora egin du azken hamarkadan (%170). ♣ Garatutako guneek oso dentsitate altua agertzen dute ♣ Lurzoru Urbanizaezina kategoria bakoitzean baimentzen den erabileraren arabera sailkatuta dago. Etxebizitza berrien eraikuntza araututa dago eta egungoak finkatuta.	♣ Udalerriko etxebizitza hutsak kudeatu. ♣ Gazteengana zuzendutako etxebizitza eskaintza bermatu. ♣ Landa eremuko eraikuntza berriak antolatu, paisaiaren kalitatea kaltetu ez dezaten.
HEZKUNTZA ♣ Orion herrian bertan eskolatzeko aukerarik baden arren bertako ikastetxeen promozioa falta da ikasleak kanpora joan ez daitezen. ♣ Haur eskola falta da.	♣ Udalerriko ikastetxeak balioztatu eta sustatu. ♣ Haur eskola publikoa sortu.
OSASUNA ♣ Orion nahikoa osasun zerbitzu eta farmazia dago. ♣ Eskualde mailako osasun zentro baten falta nabari da.	♣ Kontsulta espezializatueterako eskualdeko osasun zentroaren sorkuntza kudeatu.

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
GIZARTE ONGIZATEA ♣ Gizarte ongizateko lan nagusiak minusbaliak, inmigrazioa, drogamenpekotasuna, emakumeen diskriminazioa eta pasadizokoak dira. ♣ Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrera eta Gizarteratzeko Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituzten familiak 14 eta 13 dira hurrenez hurren. ♣ Orioko txirotasun maila ez da eskualdeko batez bestekoa baino altuagoa. ♣ Etxez etxeko laguntzarako itzaroten ez dago inor. ♣ Eguneke zentrorako bi pertsona daude zain. ♣ Familia desestrukturatuen kopurua hazten ari dela detektatu da ikastetxeetan.	♣ Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bilatu ♣ Drogomenpekotasunari aurre egiteko neurriak hartu ♣ Laguntzak jasotzen dituzten familien egoera hobetu. ♣ Familia eredu ezberdinen beharrei aurre egiteko prestatu.

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
EKIPAMENDUAK ♣ Parke, berdegune eta lorategi eskasia dago. ♣ Zinema, musika kontzertu edota antzerkietarako lokal baten falta nabari da. ♣ Gazteguner eta ludoteka falta dira gazteentzat. ♣ AASS berrietan proposatzen da – espazio libreak erabat betetzea eta ekipamendu eta gune berdeen zerrenda bat sortzea. – ibaiaren ondoan kirol eremua sortzea ♣ Ekipamendu komunitarioen sistemara bideraturiko aurreikuspenak daude, zeintzuek ondorengoetan izango duten eragina: – Ikastetxeak – Kirol ekipamenduak – Hiri parkeak – Oria itsasadarreko Portua	♣ Zinema eta antzerki jarduerak ahalbidetu. ♣ Kultur Zentro berria sortu(balio anitzekoa) ♣ Haur eta gazteen beharrak asetzeko ekipamenduak sortu. ♣ Sustapen berrietan espazio libre, parke eta lorategiak erdietsi eta hauen diseinuan erabiltzaileen erosotasuna (estazionalidadea, itzalen planteamendua, e.a.) kontutan hartu. ♣ Bizi kalitatearen hobekuntza eta, batez ere, herrigunean aisialdirako gune gehiago edukitzea bilatu, Arau Subsidiarioen bidez.
KULTURA ♣ Gazteengana zuzendutako jardueretan hutsunea nabari da.	♣ Gazteen beharrak ezagutu ♣ Gazteengana zuzendutako jarduera programa bat sortu. ♣ Herriko talde desberdinen ekintzak ezagutu
KIROLA ♣ Orion nahikoa kirol ekipamendu dago. ♣ Kirol ezberdinetan federatutako pertsonen eta kirol-taldeen egungo daturik ez dago.	♣ Kirol instalakuntzak mantendu eta egokitu eta jarduerak antolatu. ♣ Orioko kirol jarduera ezagutu bere alde neurriak hartzeko

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
EUSKARA ♣ Euskararen ezagupen eta erabilpen maila ona da. ♣ Etorkinei euskara ikasteko erraztasunak ematen zaizkie. ♣ Euskara Lan Munduan Sustatzeko Planaren ezarpena hasi da. ♣ Hitanoa geroz eta okerrago erabiltzen da	♣ Euskararen erabilera normalizatu maila guztietan. ♣ Hizkuntzaren erabilpen zuzena sustatu
HIRI BIRSORKUNTZA ♣ Orion hiri birsorkuntzako zenbait plan daude: PERCO, PERCOTUR, Agenda 21. ♣ Lurralde mailako planetan hirigune historikoaren dinamizazioa proposatzen da. ♣ AASS berrietan Hirigune historikoa birgaitzea proposatzen da.	♣ Hiri Birsorkuntzako Plan guztiak koordinatu eraginkortasun handiago baten bila. ♣ Hirigune Historikoren Birgaitze Plana garatu.

INGURUMEN NATURALA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
EGUNGO LANDAREDIA ♣ Orioko landa eremuan belardi eta larreak batez beste Gipuzkoa osoan baino proportzio altuagoan ageri dira, Udalerri honen landa izaeraren adierazle. ♣ Orioko baso eremua batez ere koniferoek okupatzen dute, batik bat Pinus pinaster (itsas pinuak).	♣ Baserrietako laborantza estentsiboa zaindu eta sustatu, egungo landa eremuko paisaia mantentzearen. ♣ Bertako hostozabal landaketak sustatu konifero espezieen aurrean, bai udalaren sailetan baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren sailetan ere
NATURGUNE ETA NATUR ELEMENTU BABESTUAK ♣ Oria Itsasadarra EAEko Hezeguneak Babesteko LAPan babestuta dagoen eremua da, natur eta paisaia balio garrantzitsuak ageri dituelarik. ♣ Gaur egun ez dago babestutako naturgune eta elementuen inguruko informazioa askorik, herritarrei zuzendutakorik.	♣ Oria itsasadarra bere balioa eta sustapen aukerak kontutan izanik kudeatu. ♣ Orioko natur balioak ezagutzera eman bertakoei eta bisitariei. ♣ Herritarrei babestutako guneak, natur, ekonomia eta gizarte baliabide bezala duten garrantziaz informatu ♣ Oria itsasadarrean burutzen diren jarduera eta interbentzioek eremu horretako natur balioetan izan ditzaketen eragina kontutan hartu.

INGURUMEN NATURALA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
BESTE INTERES GUNE BATZUK ♣ Orioko AASS berriek proposatzen dute: – Babes Bereziko Eremuak eta Ingurumen Hobekuntzako Eremuak izendatzea, Udalerriko Natur Intereseko Eremuak babestu eta berreskuratzearen. – Landa lurreko berezko balio naturalak babestea proposatzen dute. ♣ Motondoko eremuaren egoera hobetu eta babesteko aukeren inguruko ikerketa bat behar da. ♣ Ibai eta Erreken ertzak Antolatzeke LAPean Motondoko ingurua berreskuratzeke premia duen ibaitarte gisa proposatzen da.	♣ Natur intereseko eremuen mantentzea eta hobekuntza eta elkarren arteko jarraitasun ekologikoa bermatu Arau Subsidiarioen garapenean. ♣ Oria ibaiaren erriberak eskaintzen dituen aukerak aztertzen hasi, bere natur balioak mantenduz eta indartuz ♣ Lurzorua baliabide mugatu bezala kontsideratu. Berria okupatu aurretik hiriguen barruko espazio hutsa aprobetxatu
GALZORIAN DAGOEN FAUNA ♣ Oria ibaian agian espezieen arteko desoreka hasi da gertatzen	♣ Oria ibaiko espezieen egoera azertu
GALZORIAN DAGOEN FAUNAREKIN LOTUTAKO PLANAK ♣ Igeldo-Mendizorrotz kordan zehar Hegoaldeko Zuhaitz-Igelaren habitata berreskuratzeke ekintzak aurreikusita daude.	♣ Jarduerak burutzekean mehatxupear dauden espezieen habitata kontutan hartu. ♣ Hegoaldeko Zuhaitz-Igelaren kontserbaziorako ekintzak erraztu.

MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	♣ Udalerriko Mugikortasun Plana garatu ♣ Mugikortasun arloan herritarrak sentikortzearren kanpainak antolatu
ERREPIDE SAREKO PROIEKTUAK ♣ Urola Kostako Lurraldearen Zatikako Planean (2003-2018) Orion (Txanka) A-8 Autobidearekiko lotune bat egitea aurreikusten da. ♣ Urola Kostako Lurraldearen Zatikako Planean (2003-2018) Oria itsasadarraren gainean beste zubi bat eraikitzea aurreikusten da (Anibarko Portutik Motondora). ♣ AASSen aurrerapenean trafiko zirkulazioa desbideratzea eta herriko plazaren peatonalizazioa ahalbidetuko duen zubi berri bat eraikitzea proposatzen da., beti ere itsasontziei moilara pasatzen utziz.	♣ Errepide nagusienetatik Udalerrirako sarbidea hobetu.
IBILGAILUAK ♣ Orion 1.000 biztanleko 481 ibilgailu daude, Urola Kostako batez bestekoa gaindituz eta Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik.	♣ Auto pribatua ez den beste garraiobide erakargarriak sustatu. ♣ Autoaren erabilera murriztu.
APARKALEKUAK ♣ Ibilgailu eta aparkaleku kopurua nahikoa orekatuta daude gaur egun. ♣ AASSen berrikuspen prozesuan aurreikusiten diren aparkalekuek aurreikusitako ibilgailu parkearen igoera dela eta sortutako beharrak aseko dituzte. ♣ Hondartza inguruko aparkaleku plazak ez dira nahiko betetzen.	♣ Aparkaleku plazak erabiliak izan daitezen lortu.

MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
GARRAIO PUBLIKOA ♣ Garraio publikoa ez da Udalerriko herrigunera iristen eta horrek, beronen erabilera oztopatzen du. ♣ Lurraldeko Zatikako Planean (LZP) trenbide sarearen desdoblamendua eta Aia-Orioko trenbide-pasagunearen ezabaketa eta Orioko geltokiaren berregituraketa aurreikusten dira. ♣ Hondartzako gunea betetzen ari da eta urrun geratzen da garraio publikoetatik. ♣ Herrigunea eta hondartza artean motora bidezko garraioa sortzea aztertzen ari da Udala.	♣ Garraio publikoaren erabilera sustatzeko bideak jarri. ♣ Garraio publikoetarako irispidea erraztu herrigunetik. ♣ Zerbitzu kantitatea eta lotura desberdinak (Lasarte, Azpeitia, Bilbo...) hobetu
MOTORGABEKO MUGIKORTASUNA ♣ Gaur egun herrian bidegorri bakar bat dago. ♣ LZPak oinezkoentzako ibilbide bat aurreikusten du kostarekiko paralelo, Orio zeharkatuz. ♣ Hondartza eta hirigune historikoa lotzeko bidegorriak eraikitzea proposatu da.	♣ Bidegorri praktiko eta funtzionalak egin. ♣ Herri barruko garraiobide bigunak bultzatu, bizikletaren eta oinezkoaren diskriminazio positiboa aplikatuz , autoaren erabilera masiboa ekidinez
IRISGARRITASUNA ♣ Hirigune Historikora irisgarritasuna hobetzeko elementu mekanikoen beharra nabaria da. ♣ Espaloiaren egoera puntu batzuetan txarra da: toki batzuetan falta dira eta daudenean gabezia handiak dauzkate (estutasuna...). ♣ Espaloiak egokitzeko lanekin jarraitu beharko litzateke. ♣ Eremu malkartsuetan eskudelak falta dira eta oinezkoen segurtasunerako seinaleztapenik ez dago.	♣ Elementu mekanikoak ezarri hirigune historikora heltzeko. ♣ Espaloiak egokitu eta oinezkoentzako eskudelak ezarri

INGURUMEN BEKTOREAK URA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
HORNIDURA ♣ Gaur egun Oriok ur hornidura asetuta dauka Azpeitian kokatutako Ibai Eder urtegitik; San Juanen erreserbako beste hartune bat dauka.	♣ San Juaneko hartunea erreserba moduan mantendu.
KONTSUMOA ♣ 2002 eta 2004 urteen artean hiruhileko ur kontsumoa, batez beste 68.470 eta 98.694 m3 artekoa izan zen.	♣ Ura kontsumoaren igoera 2000 eta 2003 urteen artean zergatik gertatu den aztertu. ♣ Ur kontsumo arrazionala sustatzeko kanpaina burutu.
SANEAMENDUA ♣ Orioko ur zikinak Zarauzko Ur Zikinen Araztegira ponpatzen dira. ♣ Saneamendu sarean itsasoko ura sartzen da marea biziak direnean ♣ Ur zikinen saneamendu sarea Iturbide kalea eta Plaza inguruko ur beltzen eta euri uren banaketa amaitzen denean osatuko da.	♣ Ur fekal eta euri-uren banaketa egin saneamendu sarean.

INGURUMEN BEKTOREAK ENERGIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
KONTSUMOA ♣ Orioko argindar kontsumo totalak gora egin du 2000 eta 2003 urteen artean, biztanleko energia fakturazioa gutxi gorabehera egonkor mantentzen den arren; etxebizitza eta zerbitzu sektorea dira kontsumo handieneko sektoreak.	♣ Enpresa ezberdinen energia kontsumoa kuantifikatu. ♣ Energia kontsumoaren igoera 2000 eta 2003 urteen artean zergatik gertatu den aztertu.
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ♣ Energia berriztagarrien sorkuntza sistemarik ez dago.	♣ Energia berriztagarrien sorkuntzako instalakuntzak sustatu
UDALAREN NEURRIAK ENERGIA AURREZTEKO ♣ Energia kontsumoa kontrolatzeko fluxu kontrolatzaileak ezartzen ari dira urbanizazioetan.	♣ Zentzuzko energia kontsumoa lortu aurrezpen neurriak aplikatuz. ♣ Arrazoizko energia kontsumoa sustatzeko kanpainak burutu.

INGURUMEN BEKTOREAK HONDAKINAK	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
HONDAKINEN KUDEAKETA ♣ Orioko hiri hondakinak Urtetako zabortegian isurtzen dira. Europako zabortegien inguruko legedia betetzeko ekintzak diseinatu behar dira Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integralarekin bat eginik.	♣ Gipuzkoako Hondakin Solidoen Plan Integralak herri mailan zein eragin duen suposatzen duen aztertu
GAIKAKO BILKETA ♣ Hondakinen gaikako bilketa Urola Kostako Mankomunitatearen esku dago. ♣ Mankomunitateak hondakinen gaikako banaketa hobetzeko lanean dihardu: Berriki papera eta kartoiaren bilketa banatu egin dira, etxeetako hondakin arriskutsuen bilketarako zerbitzu bat ezarri da eta tabernei ontziak botatzeko edukiontzi berezi batzuk eskaini zaizkie. ♣ Orion, eskualdeko gainerako herrietan bezala, hondakinen gaikako bilketak nabarmen gora egin du azken urteetan.	♣ Eskualde mailako hondakinen kudeaketa europar legedia beteaz burutu. “3-R”en hierarkia errespetatu. ♣ Gai guztientzako ahal den birziklapen maila altuena lortu.

INGURUMEN BEKTOREAK ATMOSFERA ETA AKUSTIKA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
ATMOSFERA ♣ Kutsadura atmosferikoaren adierazleek ez dute arrisku egoerarik azaltzen. ♣ Kutsadura atmosferikoaren foko nagusia N-634 errepidea da, eragina kuantifikatzeke dagoen arren. ♣ Industria sektoreko zenbait kutsadura foko ezabatu egin dira ikatza gas naturalaz ordezkatu ondoren.	♣ Kutsadura maila neurtzeko sistema fidagarri bat ezarri.
AKUSTIKA ♣ Gaur egun ostalaritza sektoreak eragindako zarata eta ostalaritza kanpoko zarata arazoei aurre egiteko neurketak egin eta neurriak hartzen ari dira.	♣ Herritarrak gogaitzen dituen zarata maila gutxitu. ♣ Autopistaren handitzeari begira, Oriotik pasatzen den zatian pantailak jartzea aztertu.

JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
BASO USTIAPENAK ♣ Baso ustiapenek inpaktu negatiboak eragin ditzakete ingurunean behar den neurriak hartzen ez baldin badira. ♣ Baso azalera gehiengoa pribatua denez Udalak ezin du jarduera hauen kontrol eta erregulazioan parte hartu.	♣ Baso jardunbide egokien gida bat sortu. ♣ Inpaktuak eragiten dituzten baso ustiapenen aurrean Udalak esku hartzeko ahalmena izan dezan formulak bilatu.

NEKAZAL JARDUERAK ♣ Negutegidun nekazal ustiategi intentsibo bat dago Orion. Produktu fisiko-kimikoen erabilera dela eta kutsadura eragin lezake.	♣ Udalerriko nekazal usiategiek eragindako kutsadura mailaren inguruko ezagupena lortu eta jarraipena egin ♣ Udalerriko nekazal produkzioko potentziala aprobetxatu. ♣ Nekazal jardunbide egokien gida bat sortu. ♣ Iraunkortasun irizpideak barneratuak dituen nekazal jarduerak bultzatu
--	---

ABELAZKUNTZA JARDUERAK ♣ Behi aziendadun ustiategi intentsiboak daude herrian; Udalak jardueron jarraipen bat egin beharko luke ingurunean eragin dezaketen kutsadura dela eta.	♣ Udalerriko abeltzaintza ustiategiek eragindako kutsadura mailaren inguruko ezagupena lortu eta jarraipena egin ♣ Iraunkortasun irizpideak barneratuak dituen abeltzaintza jarduerak bultzatu
--	---

JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
ARRANTZA ♣ Arrantza jarduerak kutsadura iturri dira itsasoan isurtzen diren zaborrak, eta estuarioan burutzen diren beste isurketak (pinturak, olioak,) direla eta. Gainera oso zaila da Arrantzaleek zaborrok biltegitratu eta portura ekar ditzaten lortzea, itsasontzian sortzen zaizkien eragozpenak direla eta.	♣ Beraien hondakinak itsasora bota ez ditzaten itsasontziei baliabideak eskaini eta arrantzaleak kontzientziatu.

INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK ♣ Kutsadura arazo handiena zaratagatik ematen da. Herrigunean kutsadura akustikoa lantegi eta tabernek eragiten dute. ♣ Enpresak Mutiozabal poligonotik atera nahi dira eremu hau bizitegitarako erabiltzeko.	♣ Udalerriko enpresetan ingurumen kudeaketa sustatu. ♣ Jarduera gogaikarriak herrigunetik atera.
LURZORU POLUITUAK ♣ EAEko Lurzoruen Poluitzaile izan daitezkeen Jarduerak dituzten Lurzoruen Inbentarioan Talleres Arostegui eta Motondoko zabortegia kokatzen zeneko eremua ageri dira.	♣ Lurzoruen kutsadura mailaren jarraipena egin. ♣ Motondoko eremua babestu eta sustatzeko aukerak kontutan izan. ♣ Lurzoru-kalitate kontzeptua planeamenduan sartu ♣ 1/2005 Legeak (Otsailak 4ko 1/2005 legea, lurzoruen kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarako) ezartzen duen bezala, borondatezko akordioak sustatu neurriak hartu behar dituztenen eta Administrazio publikoaren artean

ARRISKUEN ANALISIA ETA KUDEAKETA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
♣ Udal zein instalakuntza mailan Larrialdi Planak daude.	♣ Diseinatutako Larrialdi Planak exekutatu.

KOMUNIKAZIOA, SENTIKORTZEA ETA PARTE-HARTZEA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
KOMUNIKABIDEAK ♣ Orioko Udalak KARKARA eta UERA herri aldizkariak eta Urola Kostako Hitza erabiltzen ditu berri eta gertaera garrantzitsuen berri emateko. Hala ere Udalak proiektu eta jarduerak ez direla herritarrengana modu egokian heltzen uste du. ♣ Irrati baten beharra dago	♣ Udalak eskuragarri dituen komunikabideak maizago erabili. ♣ Herriko Irrati berri bat bultzatu ♣ Euskarazko komunikabideen erabilpena sustatu eta bultzatu.
KOMUNIKAZIOA UDALETXETIK ♣ Urola-Kosta Udaltalde 21 osatzearekin, Urola-Kosta Mankomunitatean Agenda 21eko informazio telefono bat eta mankomunitateko web orriko foro birtuala jarri dira martxan. ♣ Orio ezagutzera emateko jarduerak modu puntualean bakarrik egiten dira, sarriago egin beharko lirateke.	♣ Udalerriaren egoera ezagutzeko baliagarria den informazioa herritarren esku jarri. ♣ Eskaintza kulturala eta Orio ezagutzera emateko jarduerak ugaritu. ♣ Komunikazioa eta koordinazioa bultzatu herriko haurren ikastetxeen, elkartearen eta udalaren artean.
ELKARTE SAREA ETA PARTEHARTZEA ♣ Herritarren partehartzea bideratzeko sistema egituratu bat behar du Udalak. ♣ Zenbait elkarteetatik udal erabakietan parte hartzeko eragozpenak daudela adierazten da. ♣ Udalerrian mota ezberdinetako 30 elkarte daude, baina ez dute programa bateraturik. Jardueren eskaintzan koordinazioa falta da.	♣ Agenda 21en inguruan sortutako parte-hartze dinamika mantendu. ♣ Elkarte ezberdinek antolatutako programak koordinatu gainezar ez daitezten.

UDAL INGURUMEN KUDEAKETA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA ♣ Orioko Udalak dagokion Udalaz gaindiko entitate guztietan hartzen du parte.	♣ Inguruko Udalerriekin eta beste administrazioekin lankidetzan maila altua mantendu, partekatutako zerbitzuen eraginkortasuna bilatzearen.
INGURUMEN KUDEAKETAREKIN ERLAZIONATURIKO ENPRESA ETA ERAKUNDEAK ♣ Orioko Udalak ur eta hondakinen kudeaketa modu mankomunatuaren burutzen du.	♣ Mankomunitateetan modu aktiboan parte hartu. ♣ Udalerriko bizitzan modu zuzenean eragiten duten ingurumen gaiak Udalak kudeatu.
TOKIKO INGURUMEN ARAUDIA ♣ Orioko Udalak ur-ziklo integralaren kudeaketa eta Ostalaritza establezimendu eta euren afekzioei buruzko udal ordenantza arautu du.	♣ Ingurumenaren babesa herritarrei eskaintzen zaien zerbitzu baten moduan hartu. ♣ Energia berriztagarrien ezarpena arautu
UDAL BARNEKO INGURUMEN KUDEAKETA ♣ AASS berrien dokumentuan ingurumena babesteko kapitulu bat sartu da, beraz, atzera begira alor honetan aurrerapen bat eman dela esan daiteke.	♣ Iraunkortasun irizpideak barneratzen dituen udal kudeaketa sustatu